



JARDUNBIDE EGOKIEN KATALOGOA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA



AURKEZPENA

Nafarroako Foru Komunitateko Tokian tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokien José Ignacio Sanz Arbizu Sariaren hamaikagarren edizioa da aurtengoa eta, niretzat eta Departamentu guztientzat, pozgarria da zinez ikustea 2020 honetan izaniko parte-hartze oparoa eta proposamenen maila handia.

Aurten aurkeztu diren hautagaitzek Nafarroako toki entitateen eta herritar elkarten ahalegina eta uste osoa erakusten dituzte, gure gizartean diren eskari eta premiei jasangarritasunez erantzuterakoan.

Kontua da deialdi honetarako, hain zuzen, parte-hartzea mugatu egin dela, ez baitira sartu entitate batzuk, hala nola ikastetxeak edo irabazi-asmoa duten enpresa handiak. Baina, hala ere, 18 hautagaitza izan dira; beraz, parte-hartzerik handiena izan da deialdi guztien artean.

Ez da ahaztu behar, gainera, proiektuak konfinamendu garaian eta pandemiaren erdian aurkeztu behar izan direla; horrek ederki erakusten du hedatu egin dela ingurumeneko erronkei aurre egiteko komunitate erresilienteak sortzeko nahia eta, gainera, agertoki berrietara egokitu dela, hala nola egungo osasun egoerara.

Aipatzekoa da, halaber, aurkeztutako proiektuen maila handia: guztiak ere jardunbide egokitzaile jo dira eta, aukeratutako lehen hiruez gain, beste bostek ere epaimahaiaren aipamen berezia merezi izan dute.

Lehen hiru sariak honakoak izan dira: “Bioekonomia”, NUPek aurkeztua; “A ze marroia dugun”, Izarbeibarrek ondua, eta “Mugartea Urbanizazioa”, Arangurengo Udalak aurkeztua. Bada, hirurak ere toki entitateen lan

onaren seinale dira, bai eta beste entitate batzuekin eta herritarrekin darabilten elkarlanaren erakusgarri ere.

Bakoitzak bere moldean, erakusten dute, ezen gure egoerak behar dituen aldaketa sozial nahiz kulturaletarako, nahitaezkoa dela entitateen arteko lankidetzaz, nahitaezkoa zorrotasun teknikoa eta eskakizuna, eta era berean, herritarren kontzientziak. Gure ingurumenaren egoera ikusirik, argi dago nabarmen eraldatu behar direla bai gure ekonomiak, bai gure gizartea, oro har; eta hori ezinezkoa izanen da, proiektu sarituek argi eta garbi azaldu dituzten hiru elementu horiek gabe.

Sariek, halaber, ederki erakusten dute Ekonomia Zirkularrak une honetan duen bultzada eta garrantzia. 18 proiektuak bere osoan dira toki entitateek jasangarritasunaren arloan darabilten lanaren erakusgarria: hots, klima-aldaketa, tokiko ekonomia, mugikortasun jasangarria eta azpiegitura berdea, beste gai aunitzen artean.

Nafarroako Gobernuak eta, bereziki, gure Departamentuak, espero dugu sariok beren sorrera-helburuetarako balio izatea: hots, tokiko entitateak eta gizarte erakundeak motibatzen jarraitzea, trantsizio ekologikoan eta garapen jasangarrian aurrera egiten segitzeko.

Itziar Gómez López
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA



SARIAK

JARDUNBIDERIK ONENAK

- Hondakin organikoei buruzko bioekonomia zirkularreko proiektu pilotua tokiko eskalan, gizarte eta prestakuntza arloko ikuspegiarekin.
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - JOSENEA 5
- A ze marroia dugun eta abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón y te lo decimos cantando.
IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA /
MANCOMUNIDAD DE VALDIZARBE 12
- Mugartea Sektorearen Urbanizazioa, Mutiloan: euri-uren
eta lorezaintzaren kudeaketa jasangarria, eta
biodibertsitatearen kontserbazioa.
ARANGUREN IBARREKO UDALA 19

AIPAMEN BEREZIAK

- Sirenas Hezkuntza Proiektua.
IRUÑEKO UDALA 28
- Santa Criz Eslabakoa, Arkeologia Altxorra 2016/2020.
ESLABAKO UDALA 35
- Energia aurrezpena eta eraginkortasuna Erdialdean.
NAFARROAKO ERDIALDEKO TOKIKO EKINTZA TALDEA 49
- Basoko Etxea, etorkizuna lantzen Berrotza eta Lana ibarrerako.
ESTEMBLO ELKARTEA 57
- Kontsumo arduratsua eta hondakinen prebentzioa
Iruñeko Udaleko haur eskoletan.
IRUÑEKO UDALAREN HAUR ESKOLEN
ERAKUNDE AUTONOMOA 66

JARDUNBIDE EGOKIAK

- Iruñeko Udalaren “Bizieskola” programa
Ikasleendako eta helduendako
IRUÑEKO UDALA 74
- Iruñeko hiri-baratzeen sarea
(komunitarioak, aisiakoak eta sozialak).
IRUÑEKO UDALA 81
- Eskoletako Baratze Ekologikoak Hezkuntza Proiektua.
IRUÑEKO UDALA 89
- Lorategi bat auzolanean Zangozarako.
ARDASKA ELKARTEA ETA ZANGOZAKO UDALA 96
- Arga ibaiko Areatzea meandroaren lehengoratzeko hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz paisaiari begira (Uharte). Iruñerria
IRUÑERRRIKO MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRRIKO ZERBITZUAK, S.A. 106
- “Convivium Yesa 2019”: Komunitatea osasunez,
sormenez eta berdintasunez bizitzeko bilerak.
ESAKO UDALA 117
- Konpromiso ttikien aldeko kanpaina.
ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA 127
- Ekonomia Zirkularra & Hiri Biodibertsitatea
Bizikidetza Arduratsu baterako “CATHOTEL”.
LLOBREGATS 137
- Zahartze aktiboa Ledean.
LEDEAKO UDALA 144
- Berriozar, zaintza ardatz.
BERRIOZARKO UDALA 156



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA



SARIAK

JARDUNBIDERIK ONENAK

- **Hondakin organikoei buruzko bioekonomia zirkularreko proiektu pilotua tokiko eskalan, gizarte eta prestakuntza arloko ikuspegiarekin**
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - JOSENEA
- **A ze marroia dugun eta abesten esaten dizugu /**
Tenemos un buen marrón y te lo decimos cantando
IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD DE VALDIZARBE
- **Mugartea Sektorearen Urbanizazioa, Mutiloan: euri-uren eta lorezaintzaren kudeaketa jasangarria, eta biodibertsitatearen kontserbazioa**
ARANGUREN IBARREKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDERIK ONENA

Hondakin organikoei buruzko bioekonomia zirkularreko proiektu pilotua tokiko eskalan, gizarte eta prestakuntza arloko ikuspegiarekin

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA - JOSENEA

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Hondakin organikoei buruzko bioekonomia zirkularreko proiektu pilotua tokiko eskalan, gizarte eta prestakuntza arloko ikuspegiarekin


NAFARROAKO
UNIBERTSITATE
PUBLIKOA - JOSENEA

HARREMANA:

Inazio Irigoien Iriarte

Agronomia Saila
Bioteknologia eta Elikadura
31006 Iruñea

Tel: 616 645 862 / 948 168 902
www.josenea.bio



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Hondakin organikoei buruzko bioekonomia zirkularreko proiektu pilotua tokiko eskalan, gizarte eta prestakuntza arloko ikuspegiarekin

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Irunberri, Zangozako Mankomunitatea

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

**Zangozako Mankomunitatea, beste mankomunitate batzuk (Irati, Bidausi, etab.).
Planeta guztia**

JARDUNBIDEA AURKEZTU DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa - Josenea

JARDUKETAREN GAKO-DATAK:

Hasiera: **2018/06/01**

Bukaera: **2020/01/01**

Beste data interesgarri batzuk:

2020/10/31 European Network for Rural Development erakundeak jardunbide egoki gisa aukeratua

2018/12/26 Foru intereseko inbertsio deklarazioa (NAO)



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Zangozerrian, Europako beste leku askotan bezala, oso eskasa da udal hondakin organikoen edo biohondakinen kudeaketa, nahasita biltzen baitira beste frakzio batzuekin batera, eta zabortegei eta erraustegietara eramaten dira birziklatu gabe. Ekonomia linealeko eredu hori zaharkitua eta kutsagarria da eta ez ditu indarrean diren araudiak betetzen.

Landa-eskualde honetan enplegua sortu beharra dago; Joseneak sortzen duena bezalako enplegua, bereziki. Eredu horrek sustatu egiten baitu gizartean bazterturik gelditzeko arriskua duen jendearen gizarteratzea eta prestakuntza enplegu arruntarako bidean. Bestalde, kezkarriak dira bai klima-aldaketa, bai higadura, bai lurzoruen emankortasun galera; bereziki, inguru mediterraneoetan.

1.2 JARDUKETA

Josenea gizarteratze eta laneratze enpresa sendabellarren laborantzian dago espezializatua Iruberrin (Nafarroa) eta, harekin elkarlanean, sistema berritzaile bat diseinatu, gauzatu eta jarri zen abian eskualdeko hondakin-sortzaile handiek eragindako udal biohondakinen tokiko kudeaketa egiteko. Sortzaile handiak ikastetxeak, ostalaritza, merkataritza eta egoitzak dira. Sistema horren bidez, biohondakinak bildu eta konpostatzen dira teknologia errazak, merkeak eta seguruak erabiliz, betiere lan-eskala honetara egokituak, hots, 300etik behera tona biohondakin urteko. Josenea laborategi gisa erabiltzen da eredu ikertu eta optimizatzeko, bai eta estatuan eta nazioartean zabaltzeko erakusleho gisa ere. Era berean, ikasgela gisa erabiltzen da, jendea eredu deszentralizatu horretan trebatzeko, beste leku batzuetan ere baliatze aldera.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Hondakin organikoei
buruzko bioekonomia
zirkularreko proiektu
pilotua tokiko eskalan,
gizarte eta prestakuntza
arloko ikuspegiarekin**

NAFARROAKO
UNIBERTSITATE
PUBLIKOA - JOSENEA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA



SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Hondakin organikoei
buruzko bioekonomia
zirkularreko proiektu
pilotua tokiko eskalan,
gizarte eta prestakuntza
arloko ikuspegiarekin**

NAFARROAKO
UNIBERTSITATE
PUBLIKOA - JOSENEA

1.2.1 Prozesua

5 jardueratan dago egituratua:

1. Bilketarako jarduera pilotua: 3 ibilbide sortzaile handietara.
2. Tratamendu pilotua konpostaje bidez, meta iraulietan, tokiko teknologia erabiliz.
3. Ikerketa hainbat gauza optimizatzeko: bilketa, konpostajea, betiere konposta neka-zaritzan, lurzoruan eta kliman epe labur eta luzera erabiltzeko.
4. Eredua tokian eta munduan hedatzea, hala esparru zientifikoan nola herritarren artean, solasaldi, bisitaldi eta jardunaldien bidez.
5. Jendea unibertsitateko ikastaroen bidez prestatzea, eredua beste leku batzuetara eramateko.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

- Biohondakinak kudeatzeko sistema berritzaile bat garatzea, konpostajerako planta txiki batean oinarritua, erreferentzia izanen dena eredua ikertzeko, hedatzeko eta jendea gaitzeko.
- Zangozerriko hondakin kudeaketa hobetzea.
- Landa-enplegu berdea eta terapeutikoa sortzea.
- Josenea enpresa sozialaren jarduera terapeutikoa aniztea.
- Joseneako lurzoruen emankortasuna hobetzea, atmosferako C ongarri organiko gisa bahituz, eta klima-aldaketa arintzea.

1.2.3 Garatutako estrategiak

Helburuak lortzeko estrategia konfiantzan datza:

- Elkarlana maila askotan eta askoren artean: enpresa soziala, unibertsitatea (NUP), aholkularitza-enpresa txikiak (Maestro compostador eta Luar Ingurumena), tokiko administrazioak eta autonomikoak, eta eskualdeko herritarrak.
- Gizarte eta lurralde berrikuntza, berrikuntza produktu eta zerbitzuetan, eta hezkuntza-berrikuntza.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Josenea Irunberrin dago eta udalez gaindiko entitate bateko (Zangozako Mankomunitatea) sukalde eta lorategietako biohondakin guztiak kudeatzen dituen ekonomia sozialeko lehen enpresa da, gai organikoaren ziklo osoa hartuta: bilketa, tratamendua eta konpostaren erabilera. Horrela, biohondakinak kudeatzen eta balorizatzen dihardu, klima-aldaketa arinduta eta ekonomia soziala eta tokikoa sortuta. Aldi berean, ereduaren eskola bat sortu da, unibertsitate titulu bat eskaintzen duena, ereduaren 252 lagun gaitu dituen. Erakusleioa izan da beste gizarte entitate batzuetarako, bai eta Kanariak, Balearrak, Galizia, Espainia, Costa Rica, Bolivia, Txina eta beste gobernu batzuetarako ere.

1.4 OHARRAK

Hasierako administrazio-trabak gorabehera, ekimena arrakastatsua izan da. Jarduera errotu da eta proba pilotua izatetik jarduera ekonomiko guztiz legeztatu eta errentagarria izatera pasatu da. Interes handia sortu du lurraldea eta bertako ekonomia dinamizatzeko tresna gisa. Horregatik, interes estrategikoko inbertsioztat jo zen Nafarroako garapenerako, eta European Rural Development Network erakundeak, berriz, esan du jardunbide egokiaren adibidea dela Europa mailan. Lan hau Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzarekin finantzatu da. Landa Garapenerako Programa 2014-2020. Nafarroako Gobernua.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Eredua 2019ko abendutik ari da jardunean eta eragin esanguratsua izan du 17 GHJ helburuetatik 14tan; bereziki, 11., 12., 8., 9., 10. 13., 15. eta 17.ean. Hondakinen bilketa eta birziklapen hobea (300 t urteko) enplegu terapeutikoa sortzen ari da (3 lagun, jendea gizarteratu, laneratu eta gaitzeko programetan), prestakuntza ere (252 lagun), Joseneako nekazaritza-lurzorua hobetuta, eta klima-aldaketa arinduta, 50 t C lurperatzen baitu urteko, eta BEG isuriak murriztuta garraioan.

2.1.2 Elkartegintza

Jarduera honetan lankidetzak estuan ari dira Josenea irabazi-asmorik gabeko gizarte eta lan elkarteak, hots, gizartegintzako enpresa aitortua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) eta bi enpresa txiki (Luar Ingurumena y Maestro Compostador). Lankidetzan ari dira, era berean, Zangoza aldeko Zerbitzuen Mankomunitatean sarturiko 17 toki entitate, Nafarroako Hondakin Partzuergoa eta Nafarroako Gobernua.

2.1.3 Jasangarritasuna

Ekimen honen bidez abiarazitako eredua, hots, biohondakinak kudeatzeko tokiko kudeaketa eredua, errotu egin da Zangozako Mankomunitatearekin egindako kontratu publikoaren bitartez, 3 lanpostu sortuta gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan ziren lagunentzat, eta gainera, nekazaritza-lurra eta klima hobetu dira, eta eragotzi egin dira hondakin gaizki kudeatuek osasunean nahiz ingurumenean eragiten dituzten gorabeherak. Gainera, ekimen pilotuari esker, araudi eta jarraibide berriak garatu dira instalazio txikietan egin beharreko konpostajeaz.



2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Hurbileko kudeaketa eredu garden horrek hondakinen kudeaketa demokratizatzen du, tokiko komunitateak ahaldunduta eta herritarren nahitaezko parte-hartzea erraztuta. Funtsezkoa da lankidetzak publiko-pribatua irabazi-asmorik gabeko entitateekin (Josenea, adibidez), eta funtsezkoa ere gizarte zein ingurumen arloko alderdiak lehenestea guztion ongia gogoan, hondakinak kudeatzeko eredu linealean aldatzeko sustatze aldera, eredu horrek emaitza eskasak sortu baititu ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari begira.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Hondakin organikoei
buruzko bioekonomia
zirkularreko proiektu
pilotua tokiko eskalan,
gizarte eta prestakuntza
arloko ikuspegiarekin**

NAFARROAKO
UNIBERTSITATE
PUBLIKOA - JOSENEA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Hondakin organikoei
buruzko bioekonomia
zirkularreko proiektu
pilotua tokiko eskalan,
gizarte eta prestakuntza
arloko ikuspegiarekin**

NAFARROAKO
UNIBERTSITATE
PUBLIKOA - JOSENEA

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Josenea gizartean bazterturik dauden pertsonak (emakumeak, gehienbat) gizarteratu eta laneratzeko enpresa bat da, enplegu arrunterako bidean. Ekimenaren bidez, Josenearen jarduerak biohondakinaren kudeaketaren arloari ekin dio, eta bere egresatuek beren enpleguarritasuna hobetu dute etengabe hazten ari den sektore estrategikoan. Proiektuaren prestakuntzetan, beste gizarte entitate batzuetako teknikariek parte hartu dute; eta horrek are gehiago indartzen du jarduerak gizartean izan dezakeen eragina.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Enpresa sozial baten bidezko kudeaketa eredu deszentralizatu hori berria eta berritzailea da udal biohondakinak kudeatzeko sektorean. Eredugarri izateko dago diseinaturia; horretarako, jendea prestatzeko programa bat dauka txertatuta, jende hori gaitze aldera eta, horrela, eredu beste leku batzuetan, ezartze edo egokitze aldera. Prestakuntza ereduak *learning by doing* metodologia berritzailea du oinarri eta, dagoeneko, 252 lagunek jaso dute.

2.2.4 Transferentziak

Proiektuak eragin nabarmena izan du hainbat mailatan. Gaur egun, antzeko proiektuak proposatu edo gauzatzen ari dira estatuko hainbat tokitan (Galizia, Balearrak, Kanariak...). Proiektua MITECOri eta Europako Batzordeari aurkeztu zaio, bai eta Txinako Gobernuako gobernu-ordezkaritza bati ere. Hori, zalantzarik gabe, lagungarria izan da administrazioen jarrera malgutzeko, eskala txikiko instalazio sinple horiek ematen dituzten aukerak aztertze aldera.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

3. EGOERAREN ANALISIA

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

Eredu erraza, sendoa, merkea eta moldakorra da, erreplika erraza eta hainbat egoeratarata egokitzeke ere erraza. Azkar ezar daiteke, eta frogatu du emaitza tekniko, sozial eta ekonomiko hobeak lor ditzakeela beste sistema zentralizatu konplexuago eta teknifikatuek baino.

Zeharkakoa da, eta gizarte eta ingurumen arloko politikak barnebiltzen ditu. Hurbi-lekoa denez, gardena eta pedagogikoa da; hortaz, motibagarria da, eta herritarren parte-hartzea eta ahaluntzea sustatzen ditu.

3.1.2 Aukerak

Era horretako ekimenak lagungarriak zaizkie udalei, legerietan ezarritako ingurumen eta gizarte helburuen betekizunean aurrera egiteko (Ekonomia Zirkularrari buruzko legeria, GJH, Tokiko Agenda 21), EBk abiarazitako European Green Deal ekimenarekin sendotuko direnak. Hori guztia dela eta, espero izatekoa da tokiko entitate aunitzek beren interesa agertzea etorkizun hurbilean jarduera mota horien gainean, araudien betekizunean aurrera jotzen den neurrian.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

Eredu sinple horietan ez da goi teknologiarik erabiltzen eta, horregatik, ez dira erakargarriak bestelako ereduarentako joera duten teknikari eta politikarientzat; hau da, oso teknifikatuak dauden eredu zentralizatuak dira, marketin hobea dutenak. Konpostajea erraza da, baina gaizki egiten bada, begi-bistako eragin kaltegarriak eragin ditzake (euliak, usainak...); horrenbestez, tokiko eredu berriek, maiz, oztopo politiko eta administratibo asko gainditu behar dituzte egiazki gauzatuko badira. Hori dela eta, ezinbestekoak dira zabalkundea eta prestakuntza.

3.2.2 Mehatxuak

Gaizki diseinatutako edo gauzatutako kudeaketa ereduen garapena, gaizki funtzionatzen dutenak eta ereduaren adibide txarrak direnak.

Hondakinak instalazio handi pribatuetan kudeatzea, udal azpikontratarik handienetako bat baita. Goi teknologia gorabehera, haien emaitza teknikoak, ekonomikoak eta sozialak, oro har, ez dira nahikoak. Sektoreko enpresek, hamarkada sail luzean, lobby sozio-ekonomiko bat sortu dute, eta horrek nekez erraztuko du low cost moldeko instalazioak ugaritzea.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018KO EKARPENA	2019KO EKARPENA	GUZTIRA
Josenea	80.000	80.000	160.000
UPNA	20.000	20.000	40.000
GUZTIRA	100.000	100.000	200.000

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Hondakin organikoei
buruzko bioekonomia
zirkularreko proiektu
pilotua tokiko eskalan,
gizarte eta prestakuntza
arloko ikuspegiarekin**

NAFARROAKO
UNIBERTSITATE
PUBLIKOA - JOSENEA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDERIK ONENAK

**A ze marroia dugun eta abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón y te lo decimos cantando**

IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA / MANCOMUNIDAD DE VALDIZARBE



MANCOMUNIDAD DE VALDIZARBE
IZARBEIBARKO MANKOMUNITATEA





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

**A ze marroia dugun eta abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón y te lo decimos cantando**

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Izarbeibarko Mankomunitatea

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

**Artaxoa, Artazu, Berbintzana, Etxarren, Zirauki, Girgillao, Larraga,
Mañeru, Mendigorria, Miranda Arga, Obanos, Gares.**

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Izarbeibarko Mankomunitatea

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2019/01/01**

Bukaera: **2020/11/30**

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**A ze marroia dugun eta
abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón
y te lo decimos cantando**

IZARBEIBARKO
MANKOMUNITATEA /
MANCOMUNIDAD DE
VALDIZARBE

HARREMANA:

Oscar Rubio Unzue
Silvia Ruiz de Larramendi

Mendigorriako errep., 1
31100 Nafarroa

Tel: 699 855 913 / 630 501 560
prevencion@mancomunidadvaldizarbe.com
medioambiente@mancomunidadvaldizarbe.com
www.mancomunidadvaldizarbe.com



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Egungo egoeran, batetik, hondakinei buruzko nafar legearekin bat, sortzen diren gai organikoen %50 bildu behar da 2020. urterako. Bestetik, gaizki kudeatu eta zabortegira eramaten den gai organikoa, bai eta horrek sortzen duen gasa (metanoa) ere, berotegi-efektua eragiten duen lehen gasa da eta klima-aldaketa ere eragiten du era kezkagarrian.

Ekimen honen bidez, egoera jakin bat aldatu nahi izan dugu: hots, gai organikoa biltzeari buruzko datuak alderantzikatu nahi izan ditugu gainerako frakzioaz (zabortegira doan frakzioa) biltzen denaren aldean.

Ekimena abiaraztean, 2018an, gai organikoaren %16 hartzen genuen eta, gainerako frakzioa, berriz, %63 zen.

1.2 JARDUKETA

Hondakin organiko gehien sortzen duen gizarteko zati horrekin lan egiten hasi ginen, hondakin horiek bereizten laguntzeko. Gure eremuko eragile guztiekin lan egiten saiatu ginen (ikastetxeak, Guraso Elkarteak, sortzaile handiak, herritarrak oro har, ostalaritza, bai eta gure eskualdeko, Nafarroako eta estatuko musika taldeekin ere). Ostalaritza guztia bisitatu genuen, bai eta gazteen etxabeak eta gai organikoaren sortzaile handiak (supermerkatuak, kanpinak, etab.) ere, eta horrekin batera, aldaketa fisikoak egin genituen gure mankomunitateko gainerako hondakinatarako edukion-tzietan (taparen mugaketa). Gure mankomunitateko ikastetxe guztietara ere jo genuen, halako jarduketa jakin bat egiteko, josteta eta jai giroko jarduketa bat, eta bideo musikal bat ere argitaratu genuen hondakin organikoaz eta klima-aldaketaz.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**A ze marroia dugun eta
abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón
y te lo decimos cantando**

IZARBEIBARKO
MANKOMUNITATEA /
MANCOMUNIDAD DE
VALDIZARBE





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**A ze marroia dugun eta
abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón
y te lo decimos cantando**

IZARBEIBARKO
MANKOMUNITATEA /
MANCOMUNIDAD DE
VALDIZARBE

1.2.1 Prozesua

Hasteko, pertsona bat kontratatu genuen, gure helmugan zeuden sektore guztiak sentsibilizatzeko eta laguntzeko. Pertsona hori atez ate joan zen, gai organikoetan zer helburu genituen azaltzeko eta bereizketa ongi egiten laguntzeko. Horrela, ikastetxe eta taldeekin elkartu ginen, gai horiei buruzko jardunaldi ireki bat jende guztiarentzat antolatzeko. Eta gizarte guztira iriste aldera, bideo musikal bat argitaratu genuen, lzerbeibarren bertan egina.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Askos ere gai organiko gehiago hartzea izan genuen helburu, hau da, %25 inguru gehiago (gure lurzoruak konpost gisa emankortzeko erabiltzen den huraxe) eta, era berean, zabortegira eramaten den gainerakoaren frakzioa %10 murriztea. Helburu horiekin batera, ontzi, paper eta kartoi bilketa %10 inguru handitu nahi izan genuen.

1.2.3 Garatutako estrategiak

Bilerak izan ditugu ikastetxe, elkarte eta Guraso Elkarrekin; bisitan joan gara ostalaritza eta dendetara, etxabe eta elkarte gastronomikoetara, etab. Halaber, Mendigorriako talde guztiak inplikatu ditugu ikastetxeetan jai bat antolatzeko, baina gure entitateko bizilagun guztiei irekia. Frakzio hori biltzeko edukiontzia erosi dira; tapa mugatukoak. Azkenik, bertako jazz musikari batengana jo genuen eta Ska-P taldearekin ere hitz egin genuen beren abesti bateko letra arras gogoraerraza aldatzen uzteko (Cannabis) eta ingurumeneko gaiak emateko.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Tlan horiek guztiak egin eta gero, datuak gure hasierako helburuak baino askos ere hobeagoak izan ziren. Izan ere, gau organikoaren bilketa %46 handitu genuen, gure asmoa %25 handitzea zenean. Gainerakoaren frakzioa %16 murriztu genuen (600 tona). Ontzi bilketa %34 handitu genuen (hasierako kalkulua %10 handitzea izan zen eta paper-kartoi, berriz, %7 (hasierako kalkulua %10). Jai hartan ehunka lagunek



parte hartu zuten. Gainera, 11.000 biztanleko mankomunitate batean, 9.100 aldiz ikusi zen "A ze marroia dugun / Tenemos un buen marrón" bideo muskala. Horrenbestez, Ska-P taldeak bere sare sozialetako milioika jarraitzaileen artean jarri zuen gure entitatea.

1.4 OHARRAK

Munta handiko asmo honen baitan, gure jarduketak bideo musikalarekin jo zuen goia. Batetik, hartan parte hartutako taldeen eskuzabaltasuna aipatu behar da, musika-estilo askotako jendea aritu baitzen (lirikoa, rocka, jaza, popa, trikitixa, ska...), eta bestetik, zabalduko letekin hainbat gai izan zituzten ardatz, hala nola kontsumo arduratsua, gai organiko biltzea, eta klima-aldaketak gure planetara erakarriko dituen ondorioak. Aipatu nahi dugu letra, hein handi batean, mankomunitateko bereko langileek egokitu zutela, puntako soinu-estudio bat alokatu genduela, eta musika arloko nahiz bideogintzako profesionalen laguntza jaso genduela. Alberto Arteta, Kutxi Romero, Ska-P eta musikagintzako beste talde garrantzitsu batzuek parte hartu zuten.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**A ze marroia dugun eta
abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón
y te lo decimos cantando**

IZARBEIBARKO
MANKOMUNITATEA /
MANCOMUNIDAD DE
VALDIZARBE

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Ostalaritza eta merkataritza arloko lokal guztiak bisitatu genituen, gazte etxabeak, elkarteak, etab. Bideoa 9.100 aldiz ikusi zen, eta gure ekimena eta Izarbeibarko Mankomunitatearen zein Nafarroaren izena milioika pertsonengana iritsi zen Ska-P taldearen sare sozialen bitartez. Horrela, hainbat tokitatzat zoriendu gintuzten: Belgika, Alemania, Mexiko edota Argentina. Gure hasierako helburuak nabarmen gainditu ziren, hala frakzio batzuen bilketan, nola gainerakoaren frakzioaren murrizketan, jauzi kualitatibo eta kuantitatibo oso garrantzitsua emanda eta hondakin-legeak ezarritako helburura hurbilduta, sortzen den gai organikoa bereizteari dagokionean.

2.1.2 Elkartegintza

Mendigorriako gizarte talde guztiak eta ikastetxe guztiak, deitu eta antolatzeke gauza izan ginen, ekimenarekin bat egin zezaten: gure gizartean genero berdintasunaren alde ari diren taldeak, beste erlijio, kultura eta herri batzuetako jendea, eta doan eramane genituen, muga ekonomikoak dituzten pertsonak izaki. Ostalaritza, gazte taldeak eta haien etxabeak, udalak. Jarduketa batzuetan, hainbat talde aritu ziren elkarrekintzan gai jakin baten inguruan, haurrak, helduak eta hirugarren adinekoak elkartuta, musika taldeak, etab.

2.1.3 Jasangarritasuna

Proiektu honetan jasotako jarduketa guztiek jasangarritasunaren hiru hankak izan nahi dituzte kontuan, hau da, ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa. Jarduketa horietan diru gutxi gastatu da, kolaborazio guztiak eskuzabaltasunez izan baitira, salbu musika-estudioaren kontratazioa, bideo-edizioa eta musika-moldaketak. Ingu- rumeneko gaiak hobetu nahi ditugu, hala nola hondakinen kudeaketa, kontsumo





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**A ze marroia dugun eta
abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón
y te lo decimos cantando**

IZARBEIBARKO
MANKOMUNITATEA /
MANCOMUNIDAD DE
VALDIZARBE

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Gure eskualdean, Izarbeibarko Mankomunitatea liderra da ingurumenari dagozkion gai orotan; bereziki, ur eta hondakin kontuetan, kontsumoan eta klima-aldaketan. Jarduketa guztiek herri guztiak dituzte kontuan, txiki-txikiak izanik ere, eta herritarrek parte hartzeko tresnak jartzen ditugu eskura; hitz batez, ingurumenarekin lotutako gizarte jardura guztien eragile eta bitartekoa gara. Erabateko da udalez gaindiko entitate batean partaide izatearen sentimendua, Izarbeibarko Mankomunitatea, alegia.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Berdintasun printzipioa proiektuaren garapenean txertatzearen aldekoa da Izarbeibarko Mankomunitatea. Bideoan parte hartu duten pertsonak nahita aukeratu ditugu parekidetasunez. Letrek, edukiek eta irudiek hizkera ez sexistaren alderdi hori hartu dute kontuan. Tailerretako bat Mankomunitateko berdintasun alorrak gauzatu zuen. Boluntario gehienak emakumezkoak izan ziren.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Proiektuan, bideo musikalaren gaia da berritzailea (oso abesti ezagun bati letra aldatu zaio ingurumeneko gaiak aipatzeko; hainbat musika-estilotan eman dute tokiko, Nafarroako eta Estatuko hainbat artistak). Eta, bestetik, berritzailea da, halaber, gainerako frakzioaren tapak mankomunitate guztian batera mugatzea eta, horrela, zaborteigira joaten den hondakina nabarmen murriztea.



2.2.4 Transferentziak

Hondakinak biltzeaz arduratzen diren entitate guztietan, gainerakoaren frakzioa izugarria da, kantitate handia sortzen da eta hori kezagarria da, bai eta zaborteigian eragiten dituzten eragin hain kaltegarriak ere. Hori ikusirik, ekimena mankomunitate baten apustua izateaz gain murrizketa arloko helburuak lortzeko, ziur aski bide hori berbera hartuko dute eredutzat Nafarroako mankomunitate gehienek, behin emaitzen datuak aztertutakoan.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

Gure entitateak eskarmentu handia du herritarrek parte-hartzea sustatzeko lanetan, bai eta ingurumen hezkuntzan ere. Gure ustez, behar bezalako legitimitatea dugu, gure proposamenek oihartzun nabarmena izan dezaten guk ordezkatzan ditugun herrietan.

3.1.2 Aukerak

Gaur egun, planeta osoan, ingurumeneko gaiek gero eta pisu handiagoa dute gure erabakietan. Beraz, batetik, gure espeziearen biziraupena dela eta, eta bestetik, erantzukizuna dela eta, gure iritziz egoera baliatu beharra dago gure eraginpeko eremu; hondakin kontuetan, batez ere.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

Horrelako ekimenek partida ekonomiko bat behar dute euskarri. Gure entitateak diru-baliabide mugatuak ditu, eta horrek, esku hartzeko ditugun aukera mugatzen ditu.

3.2.2 Mehatxuak

Une honetan, mehatxu argi bat dugu, hots, norberekoikeria eta indibidualismoa jokatzea, COVID-19ak areagotua. Horren ondorioz, gizarteak gehiago ditu gogoan irtenbide eta konponbide pertsonalak kolektiboak baino, eta guk tokiko erantzun kolektiboa bat eman nahi diogu arazo global bati.



4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2019	2020	GUZTIRA
Nafarroako Gobernua (AL21 proiektuak)	10.561		10.561
GUZTIRA	10.561		10.561

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**A ze marroia dugun eta
abesten esaten dizugu /
Tenemos un buen marrón
y te lo decimos cantando**

IZARBEIBARKO
MANKOMUNITATEA /
MANCOMUNIDAD DE
VALDIZARBE





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDERIK ONENAK

**Mugartea Sektorearen Urbanizazioa, Mutiloan:
euri-uren eta lorezaintzaren kudeaketa jasangarria,
eta biodibertsitatearen kontserbazioa**

ARANGUREN IBARREKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Mugartea Sektorearen Urbanizazioa, Mutiloan: euri-uren eta lorezaintzaren kudeaketa jasangarria, eta biodibertsitatearen kontserbazioa.

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Aranguren Ibarreko Udala

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Aranguren Ibarreko Udala eta Sadar ibai-arroan diren lurraldeak

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Aranguren Ibarreko Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2014/06/01**

Proiektua oraindik ere garatzen ari da hainbat alderdiri begira.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Mugartea Sektorearen
Urbanizazioa, Mutiloan:
euri-uren eta
lozezaintzaren kudeaketa
jasangarria, eta
biodibertsitatearen
kontserbazioa**

ARANGUREN
IBARREKO UDALA

HARREMANA:

Guiomar Santamaría Solana

Mutila plaza zk.g.
31192 Nafarroa

Tel: 948 151 382

E-Mail: medioambiente@aranguren.es

www.aranguren.es



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

2010ean, lehorreko alorrek (zereala) urbanizatzeko proiektua egin zen, Mutiloako Iturtxiki, La Cantera eta El Campamento izeneko parajeetan. Aurreikusitako antolamenduaren arabera, egoitza-eremu bat egitekoa zen, hau da, etxebizitzak eta saltokiak, bai eta berdeguneak ere: berdegune naturalizatuak, lubetak eta lorategi-tratamendurako eremuak. Azalerak, guztira, 250.000 m² ditu.

1.2 JARDUKETA

Euri-urak Sadar ibaira isurtzeak eragin zezakeen arazoaz oharturik, Udalak erabaki bat hartu zuen euri-urak biltzeko, "ohiko" instalazioaren ordez beste bat ezartzeko, hots, ur horiek laminazioaren bidez biltzeko, urbanizazio berriko isurketa eta urbanizazio gabeko lurretako isurketa berdina izan zedin; horrek, gainera, diru aurrezpen nabarmena eraginen luke eraikuntzan.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Mugartea Sektorearen
Urbanizazioa, Mutiloan:
euri-uren eta
lorenzaintzaren kudeaketa
jasangarria, eta
biodibertsitatearen
kontserbazioa**

ARANGUREN
IBARREKO UDALA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Mugartea Sektorearen
Urbanizazioa, Mutiloan:
euri-uren eta
lorenzaintzaren kudeaketa
jasangarria, eta
biodibertsitatearen
kontserbazioa**

ARANGUREN
IBARREKO UDALA



1. Diario de Navarra. 2016Ko maiatzaren 22a, igandea.
2. 44. Naturgunea 2019Ko apirila.
3. Zabalgarria: Mugartea Parkea.

Azaleraren erdia baino gehiago (127.000 m²) hiri-parke bat egiteko erabiliko zen, parke horretako lorezaintza ere jasangarritasunez kudeatzeko. Halaber, behar diren neurriak hartuko ziren fauna eta landaretza zaintzeko, eta ingurumen hezkuntza sustatzeko. Parke berezko muino baten gainean dago.

1.2.1 Prozesua

Taldean arlo askotako jendea dago: udal teknikariak, paisajismoko enpresa, obra-zuzendaritza. Sare bat diseinatu zen infiltrazioko lorategiz eta idoiez osaturik ura bukaerako idoiko kolektoreraino eramateko; idoi horrek ur-lamina iraunkor bat dauka. Eremu berde naturalizatuak diseinatu ziren, edota ingurune horretara egokitutako labore-espezieen bidez, bai eta babes akustikorako lubetak ere. Saroi bat eraiki zen, bioeraikuntzako teknikak baliatuta ekoartze zaintza egiten duten ardientzat.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Klima-aldaketa egokitzea eta zerbitzu ekosistemikoak bermatzea:

- Ez izatea uholderik, urak gainezka egitearen ondorioz.
- Alternatiba jasangarriagoak erabiltzea hirigintza-erronkei aurre egiteko.
- Azpiegitura berdea jasangarritasunez kudeatzea.
- Biodibertsitatea lehengoratu eta zaintzea.
- Jendearen bizi-kalitatea hobetzea; bereziki, zainketa ardurak dituen jendearena, kontuan harturik egoera ahulean dauden emakumeen premia espazialak eta urbanoak.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Mugartea Sektorearen
Urbanizazioa, Mutiloan:
euri-uren eta
lorenzaintzaren kudeaketa
jasangarria, eta
biodibertsitatearen
kontserbazioa**

ARANGUREN
IBARREKO UDALA

1.2.3 Garatutako estrategiak

- Klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko neurriak ezartzea.
- Naturan oinarritutako irtenbideak erabiltzea.
- Ureztatze ura eraginkortasunez eta behar den tokian erabiltzea; landaretza inguruna egokitua eta/edo basa landaretza, ekoartzaizaintza.
- Hezeguneak lehengoratzeko, faunarendako aterpe-kutxak paratzea, fruta-arbolak...
- Lotura garraio publikoaren linearekin.
- Bide-sarea eta bidegorria.
- Genero ikuspegia: kartelak, gune inklusiboak...

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Ikusi da atxikipen eta laminazio sistemak funtzionatu egiten duela. Izan ere, ekaitzak ere izan dira urbanizazioa eraiki ondoren, eta ez da ur gehiago iritsi ibaira. Horrela, ikusitakoaren arabera, ekaitz handien ondotik, idoei 24 orduz ere atxikitzen dute ura, eta idoi nagusiak poliki husten du ura.

Bestalde, ur lamina iraunkorreko idoi, orain, ahate-espezieak babesteko eta habia egiteko lekua da. Bertan ere, *Astropotamobius pallipes* izeneko karramarroa bizi da, 2018an sartutakoa. Bertan, halaber, 10 odonato espezie eroldatu dira eta ur-igel arruntak populazio nabarmena dauka. Inguruan, 78 hegazti espezie ikusi dira.

1.4 OHARRAK

Azpiegitura berdearen munta ikusirik, euri-urak kudeatzeaz haratago baitoa, proiektua etengabe ari da garatzen. Horrela, eguzki-plakak paratzen ari dira bi idoi handien artean ur mugimendu etengabea eragiteko; edo saguzarrendako habia-kutxak; ingurumen hezkuntza jendearentzat, oro har, eta ikasleentzat; etorkizunean ere, eta zuhaitz-landaretzak behar bezalako tamaina hartzen duenean, beste espezie batzuek habia-kutxak ere paratuko dira. Beraz, zientzia laborategi bat izan daiteke naturan.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

- Hiri garapen jasangarrirako estrategiak abian jartzea, integratuak eta globalak.
- Naturan oinarritutako irtenbideak erabiltzea.
- Azpiegitura berdea hobetzea.
- Lorezaintza jasangarria ezartzea.
- Kutsadura murriztea eta ingurumen osasuna hobetzea.
- Espazio publikoaren erabilera hobetzea.
- Natur baliabideen eta ingurumenaren babesa eta kontserbazioa.
- Energia eraginkortasunez erabiltzea.
- Bizi-kalitate handiagoa ematen duten lekuak lortzea hirian.
- Horri lotutako ingurumen hezkuntzako programak garatzea.

2.1.2 Elkartegintza

Hitzarmena Ilundain Fundazioarekin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin, parkeko lorezaintza mantentzeko, Mugarteako Parkea I eta II Lantegi Eskola sortzearen bidez C (2017-2018 eta 2019-2020 ikasturteak), eta era berean, Aterpeak proiektuaren bidez, inguruko hegaziak eta ugaztun txikiak kontserbatzeko.

Elkarlana Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarekin bertako karramarroaren erreserbatorio bat sortzeko (*Austropotamobius pallipes*) eta idoi nagusiko fauna inbaditzailea kudeatzeko.

Arantzadi Zientzia Elkartarekin, anfibioen eta odonatoen erroldak egiteko.

Herritar boluntarioak saroiko ardiak zaintzeko.



2.1.3 Jasangarritasuna

- **Ekonomikoa:** aurrezpena uraren gastuan, eraikuntzan, mantentze-lanetan, ongarietan...
- **Ingurumenekoa:** habitata lehengoratzeko eta biodibertsitatea zaintzeko, ura eraginkortasunez erabiltzeko, energia berriztagarria erabiltzeko...
- **Soziala:** jendearen bizi-kalitatea hobetzeko, aisiarako leku bat jarri baita pertsonen eskura, edota ariketa fisikoa egiteko, atsedean hartzeko, naturarekin harremanetan sartzeko; bereziki da ona mugitzeko zailtasunak dituen jendearentzat, dela egoera fisikoak eraginda, dela arrazoi ekonomikoek eraginda...

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Mugarte Sektorearen
Urbanizazioa, Mutiloan:
euri-uren eta
lozezaintzaren kudeaketa
jasangarria, eta
biodibertsitatearen
kontserbazioa**

ARANGUREN
IBARREKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Proiektu hau lurraldeari begiratzeko modu berri bat da: eta modu berri bat ere espazio publikoak eta urbanistikoak antolatzeke, bertan bizi diren emakume eta gizonen premia eta baldintza guztiak kontuan hartuta.

Praktika berri horrek agerian jartzen du lurraldean esku hartzeko modu berri hori kalitatez hobea eta aberatsagoa dela, eta ekitate sozialerantz jotzea lortzen duela, herritarren aniztasuna hartzen baitu kontuan eta udal baliabideak birbanatzen dituelako.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Gizonek eta emakumeek dituzten baldintzak eta beharrak kontuan hartuta diseinatu da parkea, bai eta gizartean esleituak dauden rolak ere.

Behar bezalako hiri-antolamendua jotzen dudu funtsezkotzat, egokia izanen dena zainketa lanak erosoagoak egiteko eta, batez ere, eguneroko bizitza, ingurune seguruago eta erosoagoak sortuta harremanetarako, gizakiaren bizi-erabilerak kontuan hartuta, haurtzarotik zahartzaroraino.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Mugartea Sektorea euri-uren kudeaketa jasangarria kontuan hartuz urbanizatu da, eta hori, ziurrenera, munta eta ezaugarri horietako horretako bakarra da Nafarroan, eta gainera, kontzeptu berritzaile bat dakar, hots, herritarren erabilerak eta biodibertsitatearen kontserbazioa uztartzen dituen erabilerak.

Proiektua erabat da transferiblea proiektatzen den urbanizazio berri orotara.

2.2.4 Transferentziak

Jarduketa hau hirigintza jasangarriko ereduaren ezagutza eta praktiken bilduma bat da; paisajismoa eta lorezaintza ederki uztartu baitira biodibertsitatea zaintzarekin, eta horrek aldaketak ekarri ditu berdeguneen kudeaketara, bestelako ereduak ere txertatutik, baliabideak jasangarriago erabiltzeko eta lorezaintza tradizionalen bestelako ikuspegia ezartzeko.

Sistema hori bilakatu egiten da eta esparru jarraitu bat ematen du ikasteko, denboran iraunen duten aldaketak sartzaren ondorioz.



DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Mugartea Sektorearen
Urbanizazioa, Mutiloan:
euri-uren eta
lozezaintzaren kudeaketa
jasangarria, eta
biodibertsitatearen
kontserbazioa**

ARANGUREN
IBARREKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDERIK ONENA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Egiazatu da euri-urak abikitzeko eta drainatzeko eraginkortasuna.
- Natur ikasgela bat da hiri-ingurunean.
- Anfibioen populazioak lehengoratu dira, eta biodibertsitate handia odonato eta hegaztietan.
- Bizilagunek ontzat jo dute.
- Ehuneko handia igotzen du biztanle bakoitzeko lorategi-eremuaren ratioa.
- Lorezaintzaren kudeaketa jasangarria.
- Oinezkoendako bidexka sarea eta bidegorria.
- Txakurrendako aisia eremua.

3.1.2 Aukerak

- Beste sektore batzuk urbanizatzeko proiektu transferiblea.
- Ingurumen-hezkuntzarako programa bat garatzen jarraitzeko aukera herritar sektore guztiei zuzendua, eskola-eremua barne.
- Zuhaitzak garatzea, itzal handiagoa emateko, eta hainbat animalia espeziek habia egiteko eta babesteko.
- Gastu txikiagoa mantentze-lanetan.
- Uraren mugimenduak freskura eta ongizatea ekarriko ditu.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Ingurumeneko hezitailerik gabe eta natur ikasgelarik gabe.
- Oraingoz, itzal gutxi, zuhaitzak hazi arte.



- Bestelako lorezaintza kontzeptua dakarren hiri-parkea., soropilezko belardietatik urrun, eta baliteke herritar guztiek ez ulertzea.
- Ahalegin handiagoa egin behar da jendea ingurumenean kontzientziatu eta sentsibilizatzeko.

3.2.2 Mehatxuak

- Inguruan dagoen biztanleria ugariak ekosistema ahulagoen gainean egiten duen presio neurrigabea.
 - Faunari eta landaretzari eragiten dieten gizabidearen aurkako jokamoldeak: espezia inbaditzaileak idoiak askatzea, txakurrak lokarrik gabe eramatea...
- Herritarren natur prozesu batzuk ez ulertzea.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Mugartea Sektorearen
Urbanizazioa, Mutiloan:
euri-uren eta
lorenzaintzaren kudeaketa
jasangarria, eta
biodibertsitatearen
kontserbazioa**

ARANGUREN
IBARREKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

AIPAMEN BEREZIAK

- **Sirenas Hezkuntza Proiektua**
IRUÑEKO UDALA
- **Santa Criz Eslabakoa, Arkeologia Altxorra 2016/2020**
ESLABAKO UDALA
- **Energia aurrezpena eta eraginkortasuna Erdialdean**
NAFARROAKO ERDIALDEKO TOKIKO EKINTZA TALDEA
- **Basoko Etxea, etorkizuna lantzen Berrotza eta Lana ibarrerako**
ESTEMBLO ELKARTEA
- **Kontsumo arduratsua eta hondakinen prebentzioa Iruñeko Udaleko haur eskoletan**
IRUÑEKO UDALAREN HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

AIPAMEN BEREZIA

Sirenas Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Sirenas Hezkuntza Proiektua

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Iruña / Biarritz / Donostia

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Iruñeko Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2019/09/02**

Bukaera: **2020/09/30**

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Sirenas Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA

HARREMANA:

Ana María Domínguez Silva

Uztarroze kalea zk.g.

San Pedro Monasterioa Zaharra eraikina
31014 Nafarroa

Tel: 948 420 984

a.dominguez@pamplona.es

<http://educacionambiental.pamplona.es/>





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Ez da ingurumen sentsibilizazioari buruzko lan baten aurrekaririk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ingurumen Hezkuntzaren arloan aipatutako ezein lurraldetan, Malandain balletak eskaintzen duen tresna artistikoaren bidez. "Itsaslaminak" ballet garaikideko lana plastikoek ozeanoetan eragin duten arazoari buruzko da eta lanaren inguruan hezkuntza proiektu bat sortzea erabaki zen, arazo hori ikasgeletan lantzeko eta ez soilik herritarrentzat oro har zuzendua. Hezkuntza programa bat garatzea izan zen kontua, jendea sentsibilizatzeko tresnen erabilera ahalbidetuko duena, arteak eskaintzen dituenak bezalakoak, eta ez soilik teknologiararen erabilera nerabezaroan.

1.2 JARDUKETA

Bazkideak hiru dira (Iruñeko Udala, Cristinaenea Fundazioa eta Malandain Ballet Biarritz (MBB)) eta ibilbide pedagogiko bat diseinatu zuten. Hona hemen oinarriak:

- 1. Lantegi didaktikoa:** koreografiaren bidez, ingurumeneko sentsibilizazioa gorputz adierazpenarekin konbinatuta.
- 2. Ikasleendako emanaldia Donostian:** Sirènes lana ezagutzeko eta MBBko dantzariekin solasean aritzeko.
- 3. Koreografia-tailerra:** Sirènes lana sortzeko eta interpretatzeko prozesuan arituen dantzari batek zuzendua.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Sirenas Hezkuntza
Proiektua**

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Sirenas Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA

4. Unitate didaktikoa: eskura dago ikasgelan egiteko.

5. Sentsibilizazio ekintza: ikasleek ingurumeneko arazoez garatua, ikasleak subjektu bihurtuta eta sentsibilizazioa eskola-esparruz haratago zabalduta.

1.2.1 Prozesua

Deialdi publiko bat egin zen Iruñeko, Donostiako eta Biarritzeko bigarren hezkuntzako ikastetxeentzat. 15 ikasle talde aukeratu ziren lurralde bakoitzeko eta ibilbide pedagogikoa ikastetxe bakoitzean jarri zen abian, proiektuko bazkideek jarraipen teknikoa eginda. Web bat prestatu zen ikasleen sentsibilizazio-ekintzak jasotzeko, bai eta proiektuari buruzko dokumental txiki bat ere.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

- Bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasleak kontzientziatzea hondakin plastikoen itsas ekosistemetan duten inpaktuaz.
- Plastikoen ozeanoetan eragiten duten arazoen gure ohiturekin lotura dutela erakustea.
- Diziplinak eta hizkuntzak batzea, hala nola dantza eta ingurumen-hezkuntza.
- Ikasleak dantzan sartzea, baliabide artistiko, adierazkor eta konunikatibo gisa.
- Nazionalitate, hizkuntza eta lanbide aniztasuna oinarri, ingurumen erronken inguruko elkarlana lantzea.

1.2.3 Garatutako estrategiak

- Ingurumen arazo baten inguruan lan egitea, prozesu-formularen bidez, eta ez noiz-behinka eta era isolatuan esku hartuta.
- Ikasleak beste ohitura batzuk hartzeko kudeaketan engaiatzea, sentsibilizazio-ekintzek ardatz eta eragile direla.
- Beste lurralde batzuetako profesionalen eta ikasleen arteko trukea, elkarlan eta sare kontzeptua oinarri hartuta, era globalean pentsatuz eta tokian-tokian ekinez.



1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

- Ikasleak sentsibilizatu dira hondakin plastikoen ozeanoetan eragindako arazoaz.
- Ikasleek gogotik parte hartzen dute aldaketan, sentsibilizazio-ekintzak sortuz.
- Sormena eta talde ardura garatu dira ingurumeneko erronkei begira.
- Artearen balorizazioa, lan eta sentsibilizazio tresna gisa.
- Hezkuntza proiektu berri bat sortzea, artea eta ingurumeneko hezkuntza uztartzen dituen.

1.4 OHARRAK

COVID gaitzak eragindako egoera dela eta, hezkuntza-programa lurralde bakoitzean egokitu behar izan da. Horrek atzerapena eragin du eta, 2020ko ekainean bukatu beharrean (plangintzarekin bat), 2020ko irailean amaitu da.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Proiektu honen eraginak kudeaketa jasangarri, eraginkor, arduratsu eta gardenean eragiten du:

- Hainbat agentziaren arteko koordinazioa eragin du. Haietako bakoitzaren ekintzak efektu sinergikoa izan du, esku-hartze indibidualak eraginen lukeen efektuarekin alderatuta.
- Ikasleen aukeren balioa nabarmendu du, ekintza gidatuta eta proposatu den ingurumen erronkan ere aldaketa gidatuta.
- Proiektuak truke bat eragin du lurraldeen, kulturen, hizkuntzen eta abarren artean; horrenbestez, bere idiosinkrasiaren barnean, inpaktu bat dauka gizarteratzean eta bazterkeriaren murrizketan.
- Programak genero arloko berdintasuna eta ekitatea sustatzen ditu erabakietan, bere diseinuan eta praktikan jartzeko orduan.
- Berrikuntza ekarri du diziplinen fusiora, hezkuntza proiektu sentikor, emozinal eta eragingarri bat prestatzeko.

2.1.2 Elkartegintza

Programak elkartegintza sustatzen du, eragile aunitz ari baitira:

- Iruñeko Udala.
- Donostiako Cristinaenea Fundazioa.
- Biarritzko Malandain Balleta.
- 3 lurraldeetako ikastetxeak.



2.1.3 Jasangarritasuna

- Proiektuak berez jasangarritasuna sustatzen du, ingurumeneko sentsibilizazioa bultzatzen baitu hondakin plastikoaren inguruko arazoaz eta ohiturak aldatu beharraz, plastikoak murrizteko eta hobeki kudeatzeko.
- Proiektua jasangarritasunaren ikuspegitik sortu da, eta koherentziaz jokatu da ekimena garatzean, hala erabili diren materialetan, nola ikastetxeetan garatutako unitate didaktikoan, bai eta proiektuaren gainerako etapetan ere.
- Entitateen arteko koordinazioa eta elkarlanak, kudeaketa sistema eraginkorragoak eta arduratsuagoak sustatzen ditu, baliabideak eraginkortasun handiagoaz erabiltzen baitira; giza baliabideak, teknikoak, ekonomikoak eta naturalak.
- COVID gaitzak eragindako egoera aukera gisa abiatu da proiektuaren jasangarritasuna hobetzeko, bilera birtualak eginez; beraz, haren karbono azterna murriztu da.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Sirenas Hezkuntza
Proiektua**

IRUÑEKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

- Ikasleek aldagakaren lidergoa hartu dute beren gain, ibilbide pedagogikoaren etapa guztien ondotik.
- Proiektua lagungarria da truke sozialerako eta kulturalerako, lurraldeen, bazkideen, ikastetxeen eta herritarren artean sustatu baita.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektu pedagogikoaren garapenak genero berdintasuna eta gizarteratzea izan ditu oinarri. Izan ere, koreografia tailerrek eta Itsaslaminak lanak berak eskaintzen dituzten aukerei esker, beste hizkuntza batzuen bitartez landu daiteke, ikaskuntza esanguratsuaren indargarri; dibertsitate funtzionalaren kasuan, bereziki. Gainera, dantzaren bidez, aukera bat ematen da ohiko hezkuntzan zailtasunak dituzten ikasleentzat (ikasmahaitik urruntzen da eta ohiko irakurketa-idazketatik).

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Proiektua berez da berritzailea, arte eszenikoen aukerak eta ingurumen hezkuntza uztartu dituelako, ikaskuntza esanguratsua sustatuta, eta horrek ingurumen sentibilizazio handiagoa dakar. Bizi eta sortu izan dutena transmititzen dieten ikasleek familiei; beraz, horrek efektu biderkatzailea dauka.

2.2.4 Transferentziak

Unitate didaktikoa ikastetxe orotara transferitu daiteke eta, nolanahi ere, proiektua berez, entitate orok egin dezake, ballet garaikidea edo beste arte garaikide bat xer-tatuta.



DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Sirenas Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Elkarlana eta koordinazioa hainbat lurralde, hizkuntza eta diziplinatako entitateen artean.
- Ikasleak ardatz diren sentsibilizazio ekintzak prestatzea.
- Prozesuen emaitzak lurraldeen artean trukatzeko.
- Estrategien eta hezkuntza baliabideen berrikuntza eta dibertsifikazioa.
- Euroeskualdeak eta hedabideek ontzat baloratu dute (finantza-kaudimena eta komunikaziorako ahalmena).


3.1.2 Aukerak

- Ildo pedagogiko berriak sortzea "Planeta Dantzan" proiektuaren barnean, dantza eta hezkuntza ingurumena lortzen jarraitzeko. - 20-21 ikasturte honetan beste koreografia bat eta beste gai bat landuko dira. Lan, ibilbide eta baliabide didaktiko sorta bat sortu nahi da, beste lurralde batzuetan emateko modukoak.
- Hezkuntza proiektua finkatu da eta dantza-saioak lurralde bakoitzean eman dira; horrela, ikasleen eraginari, lurralde bakoitzeko herritarren eragina gehitu behar zaio.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Proiektuaren gauzapena diru-laguntzen mende dago, Malandain Balletaren emandak diren kostuak direla eta. Gainera, proiektua garatu da, ikastetxei kosturik eragin gabe.
- Hezkuntza programa oso landua dago, eta bere ezaugarriak begira, kalitatea eskaintzen eta lehenesten du. Publiko kopuru handiei arreta emateak zailtasun logistikoak dakartza, bai eta konpromisoa ere.



3.2.2 Mehatxuak

- Kanpo finantzaziorik ez.
- Entitate laguntzaileen interesik eza.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018	2019	2020	GUZTIRA
Ayto. Pamplona	12.000	14.000	15.000	41.000
GUZTIRA	12.000	14.000	15.000	41.000

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Sirenas Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

AIPAMEN BEREZIA

Santa Criz Eslabakoa, Arkeologia Altxorra 2016/2020

ESLABAKO UDALA



Ayuntamiento
de Eslava





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Santa Criz Eslabakoa, Arkeologia Altxorra 2016/2020

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Eslaba. Zangozerria/Mendi Beherea

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Tokiko proiektu bat da, baina haren berehalako eragina, emaitzak, proiektzioak eta ukipenak eskualde mailakoak dira; Nafarroako kultur, pedagogia eta turismo arloan eragiten du. (Bai eta Aragoiko Cinco Villas hurbiletan ere). Gainera, ikerketa zientifikoari dagokionez, nazioarteko proiektzioa dauka.

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Eslabako Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2016** Aztarnategia eta haren ingurunea Kultur Intereseko Ondasun izendatu ziren.

Bukaera: **2020** VESTA Programaren bukaera 2016/2020, Nafarroako Gobernuak Kultur eta Gizarte Interesekotzat aitortua, MECNA zigiluaren bidez.

Beste data interesgarri batzuk:

2017: Arkeologia aztarnategia aurkitu izanaren mendeurrenaren egitaraua.

2019: Erakusketaren inaugurazioa: "Santa Criz Eslabakoa. Erromako islak Baskoien lurraldean".

2020: Hitzarmen sinadura. Sinatzaileak; Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia, eta Eslabako Udala. Santa Crizen, lanak egiteko eta erakusketa iraunkorra apailatzeko.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Santa Criz Eslabakoa, Arkeologia Altxorra 2016/2020

ESLABAKO UDALA

HARREMANA:

Ignacio Barber Zulet (Alkatea)

Inmaculada k., 11
31494 Iruña

Tel: 948 73 30 12 / 626 71 96 18

E-Mail: ayto.eslava@cniebla.com

www.santacruzdeeslava.com





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

20 urtez, eta arkeologia-indusketak egiteko hainbat kanpainatan, ez zen jarduerarik egin ondarea interpretatu, hedatu edo animatzeko; jendearendako zabalik egonda ere, ez ziren aurkikuntza garrantzitsuak jendaurrean azaltzen, eta oso lan gutxi egin ziren zabalkunderako eta ikerkuntza zientifikorako. 2016, aztarnategia Kultur Intereko Ondasun izendatu zen, eta hura inflexio-puntua izan zen.

1.2 JARDUKETA

“VESTA 2016-2020”. Santa Criz Eslabakoa arkeologia-aztarnategia ikertu eta dinamizatzeko ekimena.

VESTA hitza akrostiko bat da; alde batetik, huraxe osatzen duten siglek jardueraren asmo nagusia aipatzen dute: “Visitar Eslava: Santa Criz, Tesoro Arqueológico”, hau da, Bisitatu Eslaba: Santa Criz, Arkeologia Altxorra; eta bestetik, “Vesta” erromatarren

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA

mitologian sukaldearen, arkitekturaren eta etxearen jainkosa da, edo hobeki erranik, etxeei beroa eta bizia ematen dizkien suarena. Mendez mende, betirako su bat egon zen izekita Vestaren Tenpluan, erromatar foroan. Dionisio Halikarnasokoaren arabera, erromatarrek sinesten zuten su hori erabat lotua zegoela hiriaren patuarekin, eta itzaltzen bazen, hondamendiaren aierutzat jotzen zen.

1.2.1 Prozesua

VESTA programa diseinatu eta MECNA zigilua eskuratu zen; halaber, aliantzak eta sinergiak sortu, bazkide zientifikoak eta teknikoak lortu, diruak erakarri eta proposamen zehatzak ezarri ziren.

VESTA 2016/2020n aurreikusitako ekintza ildoak:

Arkeologia-ikerketak

- Indusketa.
- Inbentarioa.
- Katalogazioa.
- Aurkikuntzen deskribapena.
- Emaizta zientifikoen zabalkundea.

Arkeologia aztarnak zaindu eta babestea

- Museoa.
- Auzolandegiak.

Harrera, laguntza eta ikaskuntza, aztarnategian

- Bisita gidatuak.
- Harrera zentroa.
- Pakete turistikoak.

Animazioa eta zabalkundea

- Eslabako Santa Crizko maskota aurkitzeko lehiaketa.
- Solasaldiak.

- Animazio filma: Eslabako bizimoldea Kristo aurreko I. mendean.
- Eslabako erromatar jaia.

Komunikazioa eta publizitatea

- Merchandising.
- Argitalpenak argitaratzea.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Honatz ekimenaren helburu nagusia: "Eslabako eta Mendi Behereko garapen sozioekonomikoan laguntzea, aztarnategiak berak eta indusketetan agertutako aurkikuntzek zientziari, pedagogiari, turismoari eta kulturari begira duten balioa nabarmentzeko".

1.2.3 Garatutako estrategiak

Abian jarritako estrategiek ardatz hauek izan dituzte:

- Ekimenaren protagonistak: aliantzak teknikoak, politikoak eta herritarren artekoak sortuta.
- Lan egiteko modua: zorroztasun zientifikoa eta ikerketa serioa gozamenarekin eta zirrarearekin uztartuta.
- Gastu ekonomia: uneoro hartu behar izan da kontuan entitate sustatzailearen apaltasuna, Eslabako Udala; hots, 120 bizilaguneko udalerritik, oso bitarteko ekonomiko gutxi dituen.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Santa Crizko Erromatar Hiriaren aztarnategia eta "Erromako islak baskoien lurraldean" erakusketa zirkuitu akademiko eta zientifikoetan kokatu eta nabarmendu dira. Eslaba aipatua da orain kultur eta pedagogia giroetan. Eslaba, aztarnategia eta erakusketa Foru Komunitateko produktu turistikoaren artean nabarmendu dira, egiazko mugarri bat izan baitira.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA

1.4 OHARRAK

San Crizko aztarnategia Eslaba udalerriaren hegoaldean kokaturik dago. 1917an aurkitua, 1995etik aitzina indusketa kanpainak egin dira. 2015 eta 2016 artean, ingurunea egokitzeko eta seinaleak paratzeko lanak egin ziren. Abuztuan, Nafarroako Gobernuak Kultur Intereseko Ondasun izendatu zuen eta arkeologia-gunea irailean inauguratu zen instituzionalki. Data haietan, Udala plan estrategiko bat lantzen hasi zen baliabide historiko eta kultural horren balioa nabarmentzeko.

Santa Crizek sekulako balioa du eta nekez azaldu daiteke hitz hutsez, eta ez bakarrik beren udal dermioan daukaten Eslabako bizilagunentzat, eskualdean bizi direnentzat edota nafar guztientzat. Izan ere, Santa Criz bezalako aztarnategi bat gizadi guztiaren ondarea da. Hona hemen mugarrietako batzuk aztarnategia Kultur Intereseko Ondasun izendatzeko:

- 52/2015 EBAZPENA, maiatzaren 15ekoa, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiak emana. Horren bidez espediente ireki zen Santa Crizko erro-matar hiria kultur intereseko ondasun deklaratzeko.
- Ondasuna inskribaturik gelditu zen Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Kultur Intereseko Ondasunen Erregistro Orokorrean, 28.021 zenbakiarekin.
- Nafarroako Kultura Kontseiluko Ondare Batzordeak Kultur Intereseko Ondasun izendatzearen aldeko txostena eman zuen, 20216ko ekainaren 8an.
- Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearekin bat, Kultur Intereseko Ondasun izendatzea Nafarroako Gobernuari dagokio, eta erabakien forma dauka, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari Buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 12. artikularekin bat.
- Erabaki hori 20216ko abuztuaren 24an hartu eta irailaren 6ko 172. NAOen eman zen argitara.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

VESTA 2016/2020ren baitan egindako jarduketek eragin handia izan dute gizartean, hezkuntzan eta kulturean. Hori baloratzeko bidea ematen diguten emaitza batzuk eka-
rri ditugu hona.

Ondare-baliabidera hurbildutako jendea

- Zenbat lagunek parte hartu zuten 2017/18ko jarduera pedagogikoetan: 210 parte-
hartzailer izan ziren.
- Aztarnategian, 2017an, egindako bisita gidatuak: 1.675 lagun.
- 2019ko uztailetik 2020ko otsailera (hilabete hartan jarduerak bertan behera utzi
baitziren, COVID-19aren ondorioz), 443 lagunek egin zuten bisita gidatua aztarna-
tegira eta erakusketara.

Honatx emaitza kultural batzuk

- Animazio film bat egin da, 2018ko otsailean aurkeztua, Erromatar Hiriaren distira
imajinatzen laguntzen diguna:
<https://youtu.be/IL4ZQ4bAu9c>
- Bitartean, San Crizko aztarnategian kontzertu bat antolatu da, gaualdi bat izarrak
ikusteko, eta bi antzezlan.
- Tailerren eta beste jarduera batzuen bidez parte hartu da Europako Ondare Jar-
dunaldietan, 2016az geroztik.

Emaitza zientifiko eta dibulgaziozko batzuk:

• Liburuak

- (2020): "Hiri txiki hispaniar-erromatarak. Hiri ahulak? Tarraconense hispania-
rreko hainbat kasu. aztergai". Carretero, A., eta Pepí, C. (arg.), Actualidad de la
Investigación Arqueológica en España I (2018-2019), Madril, 505.-523. or.

- (2019): "Santa Criz Eslabakoa, Erromako islak Baskoien lurralñidean". Nafarroako
Gobernua, Iruña (106 or.). ISBN: 978-84-235-3532-3. Aipamenak Nafarroako
Unibertsitateko Arkeologia Koadernoetan, 28, 2020, 223.-225. or. Aipamena
Gerión-en, 38-1, 2020, 398.-400. or.
- (2019): "Eslabako Santa Crizko erromatar epigrafia (Eslaba, Nafarroa)". Fratelli
Lega Editori, Faenza (187 or.). ISBN: 978-88-7594-140-6. Aipamena: Docu-
menta et Instrumenta-n, 18, 2020, 255.-256. or.

• Liburuetakako kapituluak

- (2020): "3D epigrafia: erromatar idazkunak digitalizazioaren aukeral Epigrafia Digi-
talen baitan". Revilla, V., Aguilera, A., Pons, L., eta García Sánchez, M. (argk.):
Ex Baetica Romam. Omenaldia José Remesal Rodríguezi, Bartzelona, 975.-
1011. or.

• Aldizkarietako artikulak

- (2020): "From the stratigraphic record to the cultural and tourism management
of archaeological sites: challenges and university contributions". Journal of Tou-
rism and Heritage Research, 3-3, 34.-50. or.
- (2020): "Eslabako Santa Crizko arkitektura publikoa (Nafarroa, conuentus Cae-
saraugustanus), foroko kriptoportikoa eta erantsitako biltegia". SPAL, 29-1, 213.-
242. or.
- (2019): "3D fotogrametria digitalaren erabilera ikerketa epigrafikoan eta emai-
tzak gizarteratzeko: Eslabako Santa Crizko Museo Birtualaren kasua (Nafarroa)".
Cuadernos del Marqués de San Adrián, 11, 107.-128. or.
- (2018): "Ohitura epigrafikoa antzinako baskoien artean: Eslabako Santa Criz,
paradigma gisa", Príncipe de Viana, 1007.-1026. or.
- (2018): "Fora Vasconiae. Zentro zibikoak conventus Caesaraugustanus-aren
mugetan. Eslabako Santa Crizko kasua". Trabajos de Arqueología Navarra, 30,
125.-128. or.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA

• Webguneak

- Eslabako Santa Crizko Museo Birtuala: <https://sketchfab.com/santacruzmv>
- Eslabako Santa Crizko Pedagogia Proiektua: <https://www.unav.edu/web/facultadde-filosofia-y-letras/santa-criz-de-eslava/proyecto-educativo/introduccion>

• Oihartzunak hedabideetan (prentsa idatzia)

- 2017/08/12 "Aztarna anonimoen hiria Nafarroan". Diario de Navarra. www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/sanguesa-merindad/2017/08/12/la-ciudad-lasruinas-anonimas-navarra-545859-1010.html
- 2017/09/13 "Erromatar ondareak Ledean senideturik" Diario de Navarra. www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/sanguesa-merindad/2017/09/13/hermanados-porpatrimonio-romano-550646-1010.html
- 2017/09/27 "Eslabak laguntza eskatu du Santa Crizen zentro museografiko bat egiteko". Diario de Navarra. www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/sanguesa-merindad/2017/09/27/eslava-pideapoyos-para-centro-museografico-santa-criz-553318-1010.html
- 2017/09/28 "Nafarroako Unibertsitateak eta Eslabak Santa Crizko erromatar hiriaren zabalkundea sustatuko dute". Pamplona Actual. www.pamplonaactual.com/la-universidad-navarra-eslava-promoveran-la-divulgacion-la-ciudadromana-santa-criz/
- 2017/09/28 "Nafarroako Unibertsitateak eta Eslabak Santa Crizko erromatar hiriaren zabalkundea sustatuko dute". Navarra.com. www.navarra.elespanol.com/articulo/sociedad/universidad-eslava-santa-criz-divulgacion/20170928123032144352.html
- 2017/09/28 "Nafarroako Unibertsitateak eta Eslabak Santa Crizko erromatar hiriaren zabalkundea eta dinamizazioa sustatuko dituzte". Navarra Información. www.navarrainformacion.es/2017/09/28/la-universidad-navarra-ayuntamiento-eslavapromoveran-la-divulgacion-dinamizacion-la-ciudad-romana-santa-criz/



1996. Bigarren indusketa kanpaina.



2018. Zangozako Luis Gil ikastetxeko haurrak, Eslabako Santa Crizen.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Santa Criz Eslabakoa, Arkeologia Altxorra 2016/2020

ESLABAKO UDALA

- 2017/09/29 "Santa Crizko erromatar hiriaren zabalkundea sustatuko dute". Diario de Noticias.
www.noticiasdenavarra.com/2017/09/29/ocio-y-cultura/cultura/promueven-la-divulgacionde-la-ciudad-romana-de-santa-criz
- 2017/09/29 "Bisita turistikoak eta bilera zientifikoak Santa Crizen mendeurrenean". Diario de Noticias.
www.noticiasdenavarra.com/2017/09/29/vecinos/comarcas/visitas-turisticas-y-reunionescientificas-en-el-centenario-de-santa-criz
- 2017/10/12 "Erromatar ondareak Ledean senideturik". Diario de Navarra.
- 2017/10/24 Santa Crizko erromatar aztarnategiaren aurkezpena, Nafarroako turismorako baliabide".
www.sanguesaylabajamontana.blogspot.com.es/2017/10/24102017-presen-tacion-delyacimiento.html
- 2017/11/13 "Nazioarteko topaketa bat Santa Crizen, Antzinatasun Klasikoaz eta Arkeologiaz".
www.sanguesaylabajamontana.blogspot.com.es/2017/11/santa-criz-acoge-un-encuentro.html
- 2017/11/13 "Aditu europarrak Nafarroako Unibertsitatean erromatar hirien jasangarritasunaz eztabaidan". Navarra Información.
www.navarrainformacion.es/2017/11/13/expertos-europeos-debaten-la-universidadnavarra-la-sostenibilidad-las-ciudades-romanas/
- 2017/11/24 "Eslabako Santa Crizko aztarnategia bisitariei deika". Diario de Navarra.
<http://www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/sanguesa-merindad/2017/11/19/santa-criz-llamalos-visitantes-562673-1010.html>
- 2018/01/27 Cederna Garalur 72 dinamizazio proiektutan ari da. Diario Vasco.
- 2018/02/08 "UNEDeko bost proiektuk jaso dute La Caixaren eta CANen beka, 12.000 euroekin". Diario de Noticias.
www.noticiasdenavarra.com/2018/02/08/vecinos/tudela-y-ribera/cinco-proyectos-de-launed-becados-con-12000-euros-por-la-caixa-y-can
- 2018/03/09 "Eslabako Santa Crizen aurrerapausoak zabalkundeari begira". Diario de Navarra.
www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/sanguesa-merindad/2018/03/09/santa-crizeslava-nuevos-pasos-difusion-580540-1010.html
- 2018/04/19 Zangozako merindadeko hamarnaka familiek ... "biziberritu dute" Navarra.com.
- 2018/04/21 Zangozako merindadeak Santa Criz erromatar hiria biziberritu du Diario de Navarra.
www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/sanguesa-merindad/2018/04/22/la-merindadsanguesa-recrea-ciudad-romana-santa-criz-587925-1010.html
- 2018/05/18 "Eslabako Santa Crizko ondarea sareetan eskura". Noticias de Navarra.
- 2018/06/17 MECNA proiektuak aurkezteko II. jardunaldia Navarra Información. (prentsa oharra).
- 2018/07/28 Antzinako Nafarroa, tokiko kultur dibertsitatea... Diario de Navarra.
- 2018/08/15 Santa Criz Eslabakoa, erromatar hiririk monumentalena... Navarra.com.
- 2018/09/20 "Sekulako esperientzia izan da... Noticias de Navarra.
- 2018/10/06 "Santa Criz: erromatar baskoien artean". Noticias de Navarra.
- 2018/10/07 "Zergatik ari gara abian jartzen Mendi beheko Kultur Ondarea Artatzeko Estrategia?"
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA

- 2018/12/11 "Abenduak 11, proiektu berri baten hasiera Eslabako Santa Crizko Erromatar Hiria ikertzeko".
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/02/04 Zangoza, solasaldia: "Xabierren Lurreko erromatar hiri bati bizia ematea: Santa Criz Eslabakoa".
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/02/13 UNEDeko 22 irakaslek eta 76 ikaslek...
Noticias de Navarra.
- 2019/02/15 Eslava, "Ciudad Romana de Santa Criz de Eslava" ikus-entzunez-koaren estreinaldia.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/02/18 Iraganeko mezuak erromatar foroan lurperaturik...
ABC.es
- 2019/02/25 "Santa Criz Eslabakoa 3Dn biziberriturik". Diario de Navarra.
- 2019/03/01 "Bisita birtuala Eslabako Santa Crizko erromatar hirira".
EiTB Euskal Irrati Telebista Publikoa.
- 2019/03/09 Hedabideek Eslabako Santa Crizko erromatar hirian pausatu dute arreta.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/03/19 "Eslabak zure laguntza behar du Santa Crizko erromatar hiriari buruzko lehen erakusketari azken bultzada emateko".
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/03/20 Hasia da udaberri-udako denboraldia Eslabako Santa Crizko erromatar hirian. Bisita gidatua.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/03/20 Eslabako Santa Crizek Youtube kanala estreinatu du.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/04/24 Bisita gidatua Eslabako Santa Crizko erromatar hirira.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/



- 2019/04/14 Aste Santua Mendi Beherean. Jarduera agenda laburra.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/04/09 Bisita gidatua Eslabako Santa Crizko erromatar hirira.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/04/09 Bisita gidatua Eslabako Santa Crizko erromatar hirira.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA

- 2019/04/08 Iruñeko UNEDeko ikerketa proiektu bat Eslabako Santa Crizi eskainia.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/05/05 Bisita gidatua aztarnategira eta "Epigrafía Romana de Santa Criz de Eslava" liburuaren aurkezpena Eslabako Udaletxean.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/05/09 Hiri erromatar bat baskoien lurraldean... ABC.es.
- 2019/05/10 Eslaban liburu bat aurkeztu du...
Diario de Navarra.
- 2019/05/11 "Epigrafía romana de Santa Criz de Eslava".
Noticias de Navarra.
- 2019/05/23 "Eslabako Santa Criz, harrien xuxurla".
Diario de Navarra.
- 2019/05/27 Argitalpen berriak Eslabako Santa Crizko epigrafiaz.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/05/29 "Trabajos de Arqueología Navarra 30: Eslabako Santa Crizi buruzko argitalpen berria".
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/06/10 "Eslaba eta Santa Crizko bitxi arkeologikoak ardatz ENTERARTEN".
- 06/2019. www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/06/14 "Eslabako Santa Criz, erromatar hiri baten islak baskoien lurraldean" erakusketa laster zabalik.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/06/17 Bisita gidatuak Eslabako Santa Criz erromatar hirira.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/06/25 Astebete barru "Eslabako Santa Criz, erromatar hiri baten islak baskoien lurraldean" erakusketa jendearendako zabalik".
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/07/02 "Santa Crizko altxorra gero eta ageriago".
Diario de Navarra.
- 2019/07/02 Santa Crizen jendaurreko aurkezpena:...
Navarra.com.
- 2019/07/02 Santa Crizko erakusketa zabalik Eslaban.
Noticias de Navarra.
- 2019/07/03 2014-2020 PDR bidez eta Cederna Garalurrek kudeatua, FEA-
DER eta Nafarroako Gobernuaren laguntza "Eslabako Santa Criz, erromatar hiri
baten islak baskoien lurraldean" erakusketarentzat: aurrekariak, deskribapena,
lehen saioa bizilagunentzat, inaugurazioa eta abiatzea.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/07/09 "Eslabako Santa Criz, erromatar hiri baten islak baskoien lurral-
dean" erakusketaren inaugurazioa prentsa erregionalean.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/07/10 Eslabako Santa Criz, arkeologia aztarnategi erromatarra...
Noticias de Navarra.
- 2019/07/19 'Trabajos de Arqueología Navarra...
Diario de Navarra.
- 2019/09/10 Izena emateko epea bukatu da Sociedad de Estudios Históricos
de Navarra elkarteak Eslabako Santa Criz ezagutzeko antolatu duen bisitarako.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/09/10 Pentsatu al duzu etortzea Eslabako Santa Criz ezagutzera, iraillean?
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2020/09/20 Bihar, bisitaldia Eslabako Santa Criz erromatar hiriko aztarnate-
gira eta erakusketara.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/09/22 Eslaba. Harri kontalariak. Erromatar hiriaren aztarnategia + Santa
Krizi buruzko arkeologia erakusketa + Ibilaldi megalitikoak. Europako Ondare
Jardunaldiak Nafarroan 2019.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA

- 2019/10/03. Eslabako Santa Crizko aztarnategia...
Diario de Navarra.
- 2019/10/09 Eslaba laguntza eskean Parlamentuan...
Diario de Navarra.
- 2019/11/22 Zatoz "Luna Cenicienta" ezagutzera Eslabako Santa Crizera.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/11/23 NUPeko irakasle bat Kaioko biltzar batean...
Europa Press.
- 2019/11/27 Javier Andreu Pintado irakaslearen ikasgaiak Eslabako Santa Crizi buruz.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2019/11/28 Europako Ondare Jardunaldien balantze ikusgarria Mendi Beherean.
www.patrimonioculturalbajamontana.blogspot.com/
- 2020/01/12 "Santa Crizko arkeologia aztarnategiaren altxorrak".
Diario de Navarra.
www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/2020/01/12/tesoros-del-yacimiento-arqueologico-santa-criz-676675-300.html
- 2020/08/06 "Nafarroak 80 arte eta aisia jarduera baino gehiago aurkeztu ditu kultura eta turismoa bultzatzeko". Noticias de Navarra.
www.noticiasdenavarra.com/cultura/2020/08/06/navarra-presenta-80-actividades-artisticas/1068358.html
- 2020/08/12 "Eslabako Santa Crizko aztarnategia". Diario de Navarra.
www.diariodenavarra.es/noticias/vivir/turismo/conocer-navarra/2020/08/12/el-yacimiento-santa-criz-eslava-698751-3201.html
- 2020/08/17 "Con los pies en las nubes" se cita con la danza contemporánea". Noticias de Navarra.
www.noticiasdenavarra.com/cultura/2020/08/18/ciclo-pies-nubes-cita-danza/1071206.html



2.1.2 Elkartegintza

Santa Crizko Erromatar Hiriaren aztarnategia dinamizatzeko eta haren balioa nabarmentzeko izaniko prozesuek aliantza eta sinergia sorta zabal-zabal barnebiltzen dute:

- **Publikoak/Publikoak:** Eslabako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren (bereziki) arteko akordio eta lanen bidez, Vianako Printzea Erakundea/Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Ondare Historikoaren Zuzendaritzarekin; baina, era berean, Mendi Behereko toki entitate guztien sostengua eta Xabierren Lurra Turismo Partzuegoarena; Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren bermea eta FEADER Funtzaren (PDR 214/2020), bai eta Nafarroako Parlamentuarena ere. Atal honetan, nabarmendu behar dira beste herri senide batzuekin egindako harremanak, hala nola Ledearrekin (Nafarroa) eta Layanarekin (Aragoiko Cinco Villas), haietan ere erromatartzearen monumentu garrantzitsuak baitira.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA

- **Publikoak/Pribatuak:** Nabarmen gailentzen dira Nafarroako Unibertsitatearekin egindako akordioak eta hitzarmenak; halakorik ezean, ezinezkoa izanen zen ekimenak izaniko emaitza eta eraginera iristea. Dena den, bestelako aliantza ugariak ere aipatu behar dira, hots, bizilagunen ondare partikularra utzi baita erakusketa-rako; elkarlana Cederna Garalur Elkartarekin ekimen guztia garatze aldera; lankidetzat “Amigos de Eslava” toki elkartearekin jarduerak antolatzeke; Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntza finantzarioa...

2.1.3 Jasangarritasuna

- **Soziala:** Eslabako bizilagunen konfiantza, enpatia eta begikotasuna hazi egin dira proiektuarekiko, aurreko 20 urtean arkeologia-indusketa hutsa izan zenean. Elkarte berri bat sortu da, Amigos de Eslava, toki ondarearen inguruko ekimen osagarriak egiteko eta asko ikasi da herrian dagoen Arkeologia Altxorretik.

- **Ekonomikoa:** Lanpostu bat sortu da aztarnategira eta erakusketara egiten diren bisita interpretatuen gida izateko; taberna soziala berri eta bisitariak hartzeko gunea jarri da, eta otorduak eta zerbitzua eskaintzen dizkie herria hainbat ordutarako bisitatzen dutenei; turismo eskaintza berri bat sortu da eskualdean, jarduera gehiago egiteko aukera ematen duena; argudio berriak ematen dira hurbileko herrietan ostatu hartzeko, hala nola Lergan, Galipentzun, Aiesan eta Oibarren; errotu egin dira Udalak Olcairum arkeologia enpresa espezializatuarekin dituen harremanak; ekintzailtza berrien sorrera bultzatu da; Oibarko Iker Iberok, adibidez, 3DNavarra enpresa abiarazi du, proiektuan parte hartu izanaren ondorioz.

- **Ingurumenekoa:** aztarnategia ezarria dagoen natur ingurunea antolatu da (jarduketa gehiago egiten ari dira) eta lokal bat zaharberritu da (Olio-errota Kooperatibo zaharra) herriaren erdian erakusketa jartzeko.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Prozesu honetan, lidergoa Eslabako Udalak izan du bere gain. Dena dela, elkarlanean proiektua da, eta hartan ari den alde bakoitzak ardura batzuk hartu ditu bere gain, bai eta ezinbesteko lanak ere:

- Udala: proiektuaren arduradun nagusia, ekimenaren ordezkari instituzionala da denetarikoko foro eta uneetan.
- Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoaren Zuzendaritza: Udalak egindako esku-hartzeak onartu eta baliozkotzen ditu, eta jarduketek aztarnategiaren KIO izaera babestea zaintzen du.
- Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Kutxa Fundazioa, proiektuari diruz laguntzen dioten mezenasak, udal jarduketa bideragarria izan dadin.
- Cederna Garalurreko Enplegu eta Garapen Agentzia Zangozerrian, Udalari laguntza eta aholku ematen dizkiona.
- Nafarroako Unibertsitateak ikerketa eta zabalkunde zientifikorako lan guztia zuzentzen du, eta interpretazio, komunikazio eta turismo eta kultur arloko informazio lanen koordinatzailea da.
- Eta enpresak, Olcairum bereziki. Izan ere, Santa Crizko aztarnategiari buruz dituen ezagutzak eta esperientzia ezinbestekoak izan dira dinamizazio lan orori ekiteko.

Talde horrek guztiak lan izugarria egin du koordinaziopean, egokiro eta eraginkortasunez, eta bi urte eta erdian doi, emaitza nabarmena zehatz eta harrigarriak izan ditu, eragin nabarmena eraginez arlo zientifikoa, sozialean, hedabideetan, aztarnategirako, bertako altxorretarako, Eslabarako eta, bereziki, bizilagunendako, komunitate gisa indarturik atera baitira.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektu honetan ahaleginik handiena egin duten pertsonen artean, hau da, politikari, zientzialari eta teknikarien artean, emakumeak talde eragilearen % 54 dira. Proiektuaren erabiltzaile eta onuradunei dagokienez, ez dago inolako bazterkeriarik generoak eraginda.

Inklusioa ekimenaren erronketako bat da: 2020ren amaieran, Irisgarritasun Unibertsalerako Plan zehatz bat egon da taxutua, Ilunion eta ONCE erakundeekin elkarlanean prestatzen ari dena. Plan zehatza hala arkeologia aztarnategiaz nola erakusketa aretoaz eta hurrenez hurreneko edukiez. Horren haritik, hasieratik pentsatu zen erakusketak irisgarria izan behar zuela mugitzeko zailtasunak dituen jendearentzat.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Ekimenaren alderdirik berritzaileen artean, hauek dira nabarmentzekoak:

- Tokiko proiektua da, oso biztanle gutxikoa (120 bizilagun doi), eta udla aurrekontua oso txikia da.
- Sostengu instituzionala, Vianako Printzea-Kultura Zuzendaritza Nagusiarena, Nafarroako Gobernuarena eta Nafarroako Parlamentuko Kultura batzordearena.
- Eraginak eta emaitzek izugarri gainditu dute tokiko eskala.
- Sortu diren aliantzen eta sinergien kalitatea eta kopurua.
- Herritarren konplizitatea, harrera eta sostengua.
- Enpresen eta entitateen jarrera eta ekarpena, kontratuzko harremanaz harata proiektua bere egin dutelako: Muraria, Olcairum, 3D Navarra, etc.
- Eskualdeko gainerakoaren sostengua: alkateak, ikastetxeak, Turismo Bulegoa, Zangoza aldeko Zerbitzuen Mankomunitatea.

Horrek guztiak prozesu berri bat sortu du, Kultur Intereseko Ondasun bikainaren balioa nabarmentzeko aukera eman duena, hots, Santa Crizko Hiri Erromatarra. Horrez gain, Eslaba Nafarroako mapa pedagogikoan, zientifikoan, turistikoan eta kulturean kokatua dago orain.



Jakina, Santa Crizkoa bezalako arkeologia aztarnategia paregabea da; beraz, jarduera eta ekintza zehatzak, beharbada, ez dira guztiz esportagarriak izanen, baina, hemen abiarazitako aldagai, faktore eta metodologia aunitz beste lurralde batzuetara ere eraman daitezke.

2.2.4 Transferentziak

Proiektuaren osagai bereizgarrien artean dago produktuak sortu dituela metatzen joan diren ezagutzak transferitzeko modukoak: artikulua zientifikoak eta kazetaritza-koak, libururak eta bideoak, Museo Birtuala, etab. Horra hor erabilitako formula batzuk. Haietako batzuk arestian aipatu ditugu ekimen honen eragiaz mintzatzean.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Ohi ez bezalako baliabide bat izatea eskura, Eslabako Santa Crizko Erromatar Hiriak sekulako balioa baitu; hori jakitea eta indarrez eta gogoz aritzea gunea sustatu eta optimizatuko duen proiektuaren alde.
- Giza talde prestua izatea eskura, guztiak konprometituak: profesionalak, teknikariak, pertsonak.
- Aukera ekonomiko guztiak baliatzea.
- Teknikarien eta politikarien sostengua jasotzea; bereziki, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentua.
- Proiektuak etorkizuna du, abiatu baizik ez du egin: orain arte, hiri misteriosu honek gordea daukanaren %2 baizik ez da induskatu eta aztertu.

3.1.2 Aukerak

- Interes orokorra (publikoarena, esparru akademikoa, zientifikoa) Nafarroako ondare kulturalaren, artistikoaren eta historikoaren alde.
- Laguntza publikoak eta pribatuak jasotzeko deialdiak izatea horrelako proiektueta-rako.
- Ondarearen aldeko lana eskualdean. Hori agerian dago Mendi beheko Ondarea Artatzeko Estrategian. Horren barnean, VESTA 2016/2020 programa da bereziki esanguratsua.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Bereko bitarteko gutxi izatea ekimena abiarazteko.
- Zailtasuna eta ahalegina laguntza ekonomikoak lortzeko; denborazkoak dira, buro-krazia izugarria behar da eta ahalegin handia ere bai.

- Bitarteko teknikorik eta ekonomikorik ez izatea: Eslabak, bere txikian eta bere landa-izaeran, hainbat arazo ditu eta, horren ondorioz, ekimena geldo doa: baliabiderik eza; zerbitzu gutxi; udal idazkaritza zerbitzua asteen bitan dago; sekulako arazoak internet bidezko estaldurarako; ez dago garraio publikorik beste herrietara joateko...
- Proiektu honen talde eragilea ahalegin etengabea ari da, eta horrek ondorioak izan ditzake.

3.2.2 Mehatxuak

- Ez lortzea bitarteko ekonomikorik lortutakoari jarraipena emateko.
- Ez lortzea baimenik, edo onespenik eta on-ikusirik proiektua are gehiago hazteko (adibidez, indusketa lanei segida ematea).
- Eskualdean diren arazoak: zahartzea, zahartze neurrigabea, maskulinizazioa eta biztanle galera.
- Ez lortzea laguntza ekonomikorik eskualdeak Mendi Behereko Ondarea Artatzeko Estrategia abiarazteko, inguruaren suspertze sozioekonomikoari begira.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2016	2017	2018	2019	2020	GUZTIRA
Eslabako Udala*	20.000	20.000	20.000	35.000	10.000	105.000
PDR 2014/2020						
(Nafarroako G. eta FEADER)			32.408	47.400		79.808
Nafarroako Kutxa Fund.	10.000		8.000			18.000
Vianako Printzea Erank.*				21.000	80.000	101.000
GUZTIRA	30.000	20.000	60.408	103.400	90.000	303.808

*Ekarpen zenbatetsiak dira, jarduketak batzuk partida orokorretan sartuak baitaude. Gainera, ekarpen batzuk jenerotan izan dira, eta zaila da hori zenbatzea.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Santa Criz Eslabakoa,
Arkeologia Altxorra
2016/2020**

ESLABAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

AIPAMEN BEREZIA

Energia aurrezpena eta eraginkortasuna Erdialdean

NAFARROAKO ERDIALDEKO TOKIKO EKINTZA TALDEA





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Energia aurrezpena eta eraginkortasuna Erdialdean

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Nafarroako Erdialdea

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Nafarroako Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldearen jarduketa eremua. Honatx udalerriak: Adios, Añorbe, Artaxoa, Artazu, Barasoain, Beire, Berbintzana, Biurrun-Olkotz, Caparroso, Zarrakaztelu, Eneritz, Garinoain, Girgillao, Larraga, Legarda, Leotz, Melida, Mendigorria, Miranda Arga, Murillo el Cuende, Murillo el Fruto, Muruzabal, Obanos, Erriberri, Oloritz, Orisoain, Pitillas, Gares, Puiu, San Martin Unx, Santakara, Tafalla, Tebas/Muru-Artederreta, Tirapu, Uxue, Untzue eta Uterga.

Guztira, 37 udalerri dira eta 39.042 biztanle: 19.069 emakumezko eta 19.973 gizon.

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Nafarroako Erdialdeko Tokiko Ekintza Taldea (GAL Erdialdea)

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2018/11/15**

Bukaera: **2020/10/31**

Beste data interesgarri batzuk:

2018/11/23, proiektua Garesen aurkeztu da

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Energia aurrezpena eta eraginkortasuna Erdialdean

NAFARROAKO ERDIALDEKO
TOKIKO EKINTZA TALDEA

HARREMANA:

Cristina Bayona Pérez (Gerentzia)

Las Pozas, 13, behea
31390 Erriberri

Tel: 948 740 739

E-Mail: consorcio@navarramedia.org

www.navarramedia.es





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Herritargoa: Energiaren gaia korapilatsua denez, herritarrek ez dute behar bezalako informaziorik eta, gainera, mesfidantza agertzen dute enpresa merkaturatzaile elektrikoen inguruan; era berean, herritarren % 15 pobrezia energetikoan bizi da. Jende gehienaren etxebizitzek energia-eskari handia behar dute.

Toki entitateak: Lurraldeko entitate gehienek tamaina txikia da eta ez dute langilerik trantsizio energetikoak dakartzan aldaketei ekiteko; gehienetan, argiteriak eta erai-kinak ez dira eraginkorrak edota hobekuntza handiak egin daitezke energiaren kontratazioan eta berriztagarrietan.

Enpresa Txikiak eta Ertainak (ETEak): ETE gehienek tamaina txikia da eta ez dute behar adina bitartekorik beren arlo energetikoan arreta pausatzeko.

1.2 JARDUKETA

Ikuspegi estrategikoko ekintza berritzaile eta zabal bat burutu beharrak sortu du proiektua, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak lurraldean bultzatzeko. Proiektuak toki entitateen, herritarren eta ETEen arloan dihardu. Hainbat jarduketa-lerro ditu jendea sentsibilizatu eta gaitzeko, komunikazio eta prestakuntza arloko ekintzen bidez. Laguntza teknikorako zerbitzua eskaintzen duenez, GAL erreferentziatzeko entitatea da lurraldean. Zehazki, TEDER erakundearekin egina dagoen hitzarmenaren bidez, transferitzen da ezagutza.

Jarduketa nabarmenak: Energia kudeatzeko plataforma; Erdialdeko eguzki-mapa; Gares Energia Taldea; biomasa batera erauztea, ETEentzat egindako hobekuntza azterlanak, eta familiendako aholkularitza.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Energia aurrezpena
eta eraginkortasuna
Erdialdean**

NAFARROAKO ERDIALDEKO
TOKIKO EKINTZA TALDEA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Energia aurrezpena eta eraginkortasuna Erdialdean

NAFARROAKO ERDIALDEKO
TOKIKO EKINTZA TALDEA

1.2.1 Prozesua

- Jendea sentsibilizatzeko ekintzak egitea, argitalpen eta solasaldien bidez, toki entitateak, ETEak eta herritarrek proiektuari lotzeko.
- Proiektuaren laguntza teknikoen kontratazio publikorako espedienteak egitea.
- 15 udalerritan, energia kudeatzeko sistema ezartzea, Erdialdeko eguzki-mapa egitea, eta biomasa batera kudeatzeko espedienteak egitea.
- Prestakuntza toki entitate eta ETEendako langileentzat, eta aholkularitza pertsonalizatua herritarrentzat.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

- Toki Entitateak, ETEak eta herritarrek kontsumo energetikoaren gainean sentsibilizatzeko.
- Tokiko baliabideen aprobetxamendua erraztea eta berriztagarrien ekoizpena aurraraztea.
- Herritarren ahalduntzea sustatzea baliabide berriztagarrien kudeaketan.
- Toki entitateetako langileak hainbat gaitan prestatzea, hala nola energiaren aurrezpenean, eraginkortasunean eta pobrezia energetikoaren prebentzioan.
- Udalek energia aurrezteko neurriak identifikatu eta lehenestea.
- ETEak eraginkortasun energetikoan gaitzea.
- Energia arloko jardunbide onei ikusgaitasuna ematea.

1.2.3 Garatutako estrategiak

- Sentsibilizazioa, aurrez aurreko jardunaldien bidez, eta hedabide idatzi, irrati eta sare sozialen bidez.
- Toki entitate eta ETEetako langileak prestakuntza bidez gaitzea.
- Energia kudeatzeko sistema 15 udalerritan ezartzea, kontsumoak zenbatzeko eta hobekuntzak proposatzeko.
- Erdialdeko eguzki-mapa garatzea eguzki-ekoizpen ahalmena zenbat den jakiteko.
- Laguntza teknikoak emateko zerbitzua, Toki Entitateen eta ETEen arloa hobetzeko azterlanak egite aldera eta herritarrei arreta pertsonalizatua emate aldera.

Activamos nuestros propios recursos



Consume productos de cercanía



Comprar productos de cercanía y de temporada es la mejor manera de evitar el consumo de energía y la contaminación que provoca el transporte de mercancías.

Evita el consumo **innecesario** desenchufando los aparatos eléctricos



Los electrodomésticos tienen un pequeño consumo cuando no funcionan. Si colocas una regleta, puedes apagarlos con facilidad. Un televisor enchufado puede consumir 30 euros al año sin estar encendido.

Ciudadanía activa:
el motor de la transición energética



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

- Sentsibilizazio jarduerak, 70.000 lagun arterainoko irismenarekin. Bonu sozialari eta etxeko aurrezpenari buruzko gidak, webean eskuragai. 92 pertsonaartatu dira; 66 emakume eta 26 gizon.
- Toki Entitateetako 43 lagun prestaturik energiaren gaian: 19 emakume eta 24 gizon. Online ikastaro iraunkorra ETEentzat aurrezpenean eta eraginkortasunean.
- Energia kudeatzeko sistema, 302 kontsumo punturekin eta 15 udalerrirekin. 50etik gora hobekuntza-txosten egin dira.
- Eguzki-mapa eskura, estalkietan edo herrilurretako lursailetan dagoen potentziala jakiteko.
- Ahalduntze energetikorako Gares Energia taldea sortu da.
- Biomasa erauzteko espediente bat, 6 udalerrik eta entitate pribatu batek parte hartuta.
- 5 jardunbide egokiri ikusgaitasuna eman zaie prentsan eta sare sozialetan.

1.4 OHARRAK

Proiektua bi gertakari nabarmenekin batera egin behar izan da: batetik, Erdialdean izaniko uholdeekin batera (2019ko uztaila) eta, bestetik, COVID-19ak eragindako krisiarekin batera, 2020ko martxotik aitzina. Bi gertakari horien ondorioz, proiektuko ekintza batzuk nekez egin dira; ETEentzako ekintzak, batez ere.

2020an, proiektua egoerara egokitu da, zerbitzu batzuk berrosatuta, aurrez aurreko modalitatetik onlinea pasatuta. Etxeei faktura elektrikoan egin zaien arreta uste baino askoz ere handiagoa izan da, martxotik aurrera online egin bada ere. Bestalde, bideokonferentziaz egindako prestakuntza-ekintzetan oso partaidetza emaitza onak izan dira.

Honako esteka honetan proiektuaren baliabideak daude:

<https://navarramedia.es/project/ahorro-energia/>

Activamos
nuestros propios recursos



Evita los grifos
abiertos **inútilmente**

No dejes los grifos abiertos inútilmente: consumes agua y energía para calentarla de manera innecesaria. Puedes colocar difusores de grifo que cuestan muy poco y te ayudan a reducir el consumo.



Mantén a punto
la maquinaria

Un buen mantenimiento de las máquinas asegura un ahorro energético gracias al mejor funcionamiento de las mismas.

Ciudadanía activa:
el motor de la transición energética



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Eraginik nabarmenena berotegi-efektuko gasen murrizketa da, energia gutxiago kontsumitzeari esker eta energia berriztagarriak ekoizteari esker. Proiektuak bultzaturik, inbertsioak egin dira toki entitateetan eta ETEetan, energia gutxiago kontsumitzeko eta/edo energia berriztagarriak ezartzeko; inbertsioen ondorioz, entitateek dirua aurrezten dute.

Herritarrekiko lanari esker, jendeak ikasi du nola kontsumitu energia gutxiago, nola jaitsi energiaren kostuak edota nola kontratatu bonu soziala eta nola lagundu pobrezia energetikoaren arriskua murrizten.

Zehazki, proiektua honakoetarako da lagungarria: kutsadura murrizteko eta ingurumen osasuna hobetzeko; ekoizpen eta kontsumo zikloak hobetzeko, baliabide berriztagarriak ezarri; ingurumena babesteko; energia eraginkortasun handiagoz erabili eta ekoizteko; kudeaketa administratiboaren eraginkortasuna areagotzeko, SIE plataforma ezarri; klima-aldaketa eragiten duten isuriak arintzen ditu, pobrezia energetikoa murrizten du eta, ondorioz, gizarte bazterketa; politika publikoaren ekintza eta aldaketa inspiratu eta sustatzen ditu, eta ardura ere bultzatzen du.

2.1.2 Elkartegintza

Proiektua Nafarroako Erdialdeko Toki Ekintzako Taldeak egin du. Taldean kide dira Toki Entitateak, Elkartek, Organismoak, irabazi-asmorik gabeko Fundazio eta Entitate Pribatuak, guztiak ere Nafarroako Erdialdean garrantzi berezia dutenak; beraz, entitateak berak elkartegintza maila handia du.

Proiektuaren garapenean, buru-belarri lan egin da Erdialdeko Enpresen Elkartarekin eta gure lurraldeko hainbat merkataritza elkarterekin (Comolite, Ascota, Gares), betiere helburu nagusi hau gogoan hartuta: Erdialdeko enpresa eta negozioa txikiak erakartzea, proiektuan parte har dezaten.

Erdialdeko Energia Kudeatzeko Sistema ezartze aldera, 15 udalerriko talde bat sortu da; guztiak plataforman dira kide eta haien arteko sinergiak sortu dira hobekuntza energetikorako. Era berean, solasaldiek eta prestakuntzek hainbat toki entitatetako langileak bildu dituzte, haien arteko elkarlana sustatuta.

Ekintza pilotu gisa, espediente bat garatu zen oihaneko biomasa baliatzeko; biomasa elkarrekin mugiaraztea kudeatzeko esperientzia gisa, energia xede harturik. Zehazki, 6 udal aritu dira batera, bai eta Artaxoako Corralizas y Electra elkarte pribatua ere. Berezi aipatu behar da Energia Aurrezpena eta Eraginkortasuna Erdialdean proiektuak Gares Energiako talde eragilea sortzeko egindako ahalegina, herritarrek ahalduz aldera, energia-baliabide berriztagarrien toki gobernanzako eredu bilatuaren prozesu parte-hartzaileen bitartez. Gares Energía proiektua aitortu egin zuten Germinador Social sarietako 2017ko 5 sarituen artean eta, 2019an, herritarren proiekturik bozkatuena izan zen Gizarte Berrikuntzarako Proiektuak Sarietan.

2.1.3 Jasangarritasuna

Proiektuaren ardatz nagusia jasangarritasuna da, helburuak lurraldea jasangarriagoa egitera bideratuak baitaude. Xedea sentsibilizatzea da eta klima-aldaketa aurrean gaitzen du, sektore publikoak, pribatuak eta herritarrek, oro har, engaiatuta.

Proiektuaren garapenak energiaren kontsumo murrizketan eragiten du, bai eta energia berriztagarrien sustapenean ere. Ikuspuntu sozialetik, energiaren mundua zer den ez dakien jendearengana iristen da, eta baliabide gutxiak familiei laguntzen zaie beren gastu energetikoei aurre egiten.

Proiektuak eskualde mailako estrategia dakar eta erabat errepikagarria da, toki entitateei energia gaitan euskarria emateko. SIE energia kudeaketarako plataforma eskualde mailan ezartzeak eraginkorrak egiten ditu udal arloko lan tekniko eta administratiboak, eta energia arloko kontularitza analitikoak egiteko aukera ematen du.

Proiektuak Agenda 2030eko GJH hauetan eragiten du: Pobreziaren amaiera, pobrezia energetikoa murriztearen ondorioz. Osasuna eta ongizatea, isuriak murriztearen ondorioz. Energia eskuragarria eta ez kutsagarria, energia berriztagarrien sustapenak

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Energia aurrezpena
eta eraginkortasuna
Erdialdean**

NAFARROAKO ERDIALDEKO
TOKIKO EKINTZA TALDEA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Energia aurrezpena eta eraginkortasuna Erdialdean

NAFARROAKO ERDIALDEKO
TOKIKO EKINTZA TALDEA

eraginda. Hiri eta komunitate jasangarriak, toki entitateen konpromisoak eraginda. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, energia berriztagarriak sustatzearen ondorioz. Klimaren aldeko ekintza, klima-aldaketa arintzeak eraginda. Aliantzak helburuak lortzeko, udalak Alkateen Itunari atxiki dakizkion bultzatuta.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Erdialdeko GAL erakundea da proiektuaren gidaria, eta orain, entitatea erreferentzia da Toki Entitateentzako energiaren gaian. Proiektuaren ekintzak lagungarriak dira klima-aldaketaren aurrean kontzientzia pizteko.

Proiektuak gizarte eta lurralde dibertsitatea hartu du kontuan; horrela, bonu sozialaren gida hiru hizkuntzatan egin da; gaztelaniaz, euskaraz eta arabieraz, alegia. Proiektuan prestatu diren materialak www.navarramedia.es webean daude eskura, proiektua bera errazago transferitzeko eta beste nonbaiten errepikatzen.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektuko ekintzak berdintasunez zuzendu zaizkie emakumeei eta gizonei. Genero ikuspegia hartu da kontuan proiektuaren kontratazio guztietan. 2019ko Energia eta Toki Entitateak jardunaldian, emakume teknikariei eta kudeatzaileei ikusgaitasuna ematea izan zen ardatz, bai eta energiaren sektorean egiten duten lana nabarmentzea ere. Proiektuak pobrezia energetikoa jorratu du eta eskualdeko gizarte zerbitzuekin lan egin du, gizarteaz bazterturik gelditzeko arriskuan edo pobrezia energetikoan dagoen jendeari lagunduta.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Honatz elementu berritzaileak: batetik, energia kudeatzeko sistema, eskualdeko 302 kontsumo-gune monitorizatzen dituen, eta bestetik, eguzki-mapa, eguzki-energia sortzeko ahalmena jakiteko aukera ematen duena lurraldeko edozein estalkitan edo lursail komunaletan.



Entorno Valdizarbe 134. 2020ko apirila.



Entorno Valdizarbe 135. 2020ko ekaina.

Material idatzia eta ikus-entzunezkoak erabili dira egindako ekintzak dokumentatzeko, eta horrek proiektua beste leku batzuetan errepikatzea sustatzen du. Erabat transferigarria eta errepikagarria da; izan ere, hala gaiak nola xede diren publikoak berdinak dira lurralde nazionalen.

2.2.4 Transferentziak

Proiektuaren transferentzia nagusia hitzarmen bat da, TEDER elkarteak eta Erdialdeko GAL erakundeak egindakoa, hots, TEDER elkarteak ezagutzak transferitu dizkio beste erakundeari, elkarteak esperientzia zabala baitu lan esparru horretan.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Herritarren parte-hartze handia proiektuan; eragin nabarmena izan du sare sozialetan.
- Lurraldeko toki entitateen kohesioa eta konpromiso politikoa errotzea.
- Elkartegintza maila handia eskualdean.
- Eguzki-maparen ezarpena eta energia kudeatzeko plataforma tresna egokiak dira inbertsioak eraginkortasunean eta berriztagarrietan sustatzeko.
- Gares Energia proiektuaren heldutasuna, beste udalerri batzuetan errepikatu beharreko adibide gisa.

3.1.2 Aukerak

- Hobekuntza energetikorako potentzial handia toki entitateetan eta negozio txikietan.
- Egungo testuingurua oso aldekoa da eraginkortasun eta/edo berriztagarri arloko proiektuak garatzeko.
- Klima-aldaketak gero eta indar handiagoa dauka; herritarrak eta sektoreak gaitzen ditu.
- Hainbat proiektu gauzatzeko aukera Europa, estatu eta Nafarroa mailan, klima-aldaketaaren aurka hainbat mailatan borrokatzeko.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- ETE gehienek ez dute astirik horrelako proiektuetan engaiatzeko.
- Herritarren zati bat mesfidatia da energia arloko gomendioen aurrean.
- Entitateetako politikari aldaketak interesik eza eragin dezake.

3.2.2 Mehatxuak

- Diru baliabiderik edo laguntzarik ezak inbertsioak zailtzen ditu.
- Egoera sozioekonomikoa oso ahula da bai klima-aldaketen efektuen aurrean, bai osasun pandemien aurrean.
- Etengabe azterlanetan lan egiten bada eta aldaketa garrantzitsuak egiten ez badira, proiektuan diharduten aldean agortzea eragin dezake.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018 EKARPENA	GUZTIRA
FEADER	70.470,33	70.470,33
Nafarroako Gobernua	37.945,56	37.945,56
GUZTIRA	108.415,89	108.415,89

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Energia aurrezpena
eta eraginkortasuna
Erdialdean**

NAFARROAKO ERDIALDEKO
TOKIKO EKINTZA TALDEA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

AIPAMEN BEREZIA

Basoko Etxea, etorkizuna lantzen Berrotza eta Lana ibarrerako

ESTEMBLO ELKARTEA



La casa del bosque

Contribuye al desarrollo y calidad del bosque de arbolado





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Basoko Etxea, etorkizuna lantzen Berrotza eta Lana ibarrerako

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Acedoko Kontzejua / Mendazako Barrutia / Berrotza ibarra

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Berrotza ibarra

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Estemblo elkarte

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2018/06/01**

Beste data interesgarri batzuk:

Proiektuak iraupena du denboran eta Estemblo Elkartearen borondatea da urte askoan irautea. Izan ere, elkarteak sortu zenetik, irmotasuna eta jarraitasuna funtsezkoak izan dira elkartearen beraren jasangarritasunerako eta ibarrak dinamizatzeko lanetarako. Basoko Etxea 2018an sortu zenetik, eta hartatik eratorritako proiektuak 2019an eta 2020an abiarazi zirenetik, lana areagotu da eta are gehiago areagotuko da.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Basoko Etxea, etorkizuna
lantzen Berrotza eta
Lana ibarrerako**

ESTEMBLO ELKARTEA

HARREMANA:

María Asunción Fernández Díaz

Plaza Central, zk.g. Acedo
31282 Nafarroa

Tel: 619 32 68 62
estemblo@lacasadelbosque.info
<http://www.lacasadelbosque.info/>





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Orain dela 36 urte baino gehiago, Estemblo inguru hau dinamizatzeko lanetan hasi ginen, bazterrak bizirik iraun nahiak bultzaturik. Giza talde guztietan bezalaxe, zaila da hain denbora luzean egonkortasunari eta aurrerabide erregularrari eustea; horrenbestez, gogoia berritu eta lana areagotu beharra genuen, larria baitzen benetan hala despokatzea, nola bizitasunik eza, dela demografian, dela gizartean, dela ekonomian. Duela hiru urte “Basoko Etxea” sortzea proposatu genuen, elkartean bazkide eta boluntario berriak sartu baitziren. Nafarroako artadirik zabalena ezagutu eta zaintzeko zentro bat da, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emaniko diru-laguntza bati esker abiarazi genuen. Zentro horretan oinarriturik, bestelako ideiak garatzea izan zen asmoa, betiere era komunitarioan, eta Sare Lanaren prozedura eta estrategiak baliatuta.

1.2 JARDUKETA

Acedo izeneko herriak 115 biztanle ditu eta 2018an abiarazitako ekimena garatzen ari gara: “Basoko Etxea”. Artadia ezagutu, zaindu eta bere balioa eta potentziala nabarmentzeko gune bat da, ahaleginak batzeko ekimen aproposa baita, bai ongi kontserbatzeko, bai ingurumen balioak transmititzeko.

Prozesua tinko doa aurrera, ekintza komunitarioen bidez. Elkarrekin ikasteko prozesu bat da gure landa ingurune baliosari buruz eta huraxe zaindu beharraz kontzientzia-tzeko. 2020 honetan, egoera den bezalakoa izanik ere, ingurua dinamizatzen jarraitzen dugu. Zehazki, hainbat proiektu garatzen ari gara paisaia hobetzeko, ingurumen hezkuntza sustatzeko eta despokatzearen aurka borrokatzeko, bai Berrotzan bai Lana Ibarrean.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Basoko Etxea, etorkizuna
lantzen Berrotza eta
Lana ibarrerako**

ESTEMBLO ELKARTEA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Basoko Etxea, etorkizuna
lantzen Berrotza eta
Lana ibarrerako**

ESTEMBLO ELKARTEA

1.2.1 Prozesua

- **2018.** Basoko Etxea sortu zen, herritarrek parte hartuta, interpretaziozko ibilaldi, elkarrizketa, bilera eta abarren bidez.
- **2019.** Ekintza areagotu zen: ingurumen hezkuntza Basoko Etxean eta basoan, ikas-tetxeekin, elkarteekin; zaintza plana, udalarekin eta kontzejuekin; Berrotza eta Lana Ibarrean hedatzea, tailerrekin, argitalpenarekin eta erakusketarekin.
- **2020.** Acedoren eta bertako basoaren artean dagoen belardi bat paisaiaren aldetik leheneratu zen era komunitarioan paisaiari begira.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

- Tinko egitea aurrera, dela ingurumen hezkuntzan, dela gure inguruko natur, paisaia eta kultur ondarearen zainketan.
- Inguruan duen erakarpene areagotzea gazte jendea erakartzeko.
- Nafarroako oreka demografikoa sustatzea.
- Inguru hau ezagutzera ematea, arras ezezaguna baita.
- Nekazaritza kultura berreskuratu eta erakustea.
- Naturaren eta pertsonen zaintzari lotutako aukerak etorkizunerantz proiektatzea.
- Pertsona guztien inklusioa eta gizarte kohesioa lortzea.

1.2.3 Garatutako estrategiak

- Diziplinarteko proiektua da, pertsona talde zabal baten borondatezko engaiamendu jarraitua bermatzen duena.
- Proiektua eta haren lorpena jakinaraztea: webgunea, bideoak, elkarrizketak, sare sozialak. Hori guztia, pertsonak engaiatzen segitzeko.
- Sare Lana, inguru eta sektoreetako entitateekin: Nafarroako Gobernu basozaintza eta teknikariak, udalak eta kontzejak, Gorosti elkarte, Teder eta Explora Sarea.
- Nafarroako Gobernu hainbat deialdiren bidez finantzaketa lortzea.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Basoko Etxea, etorkizuna
lantzen Berrotza eta
Lana ibarrerako**

ESTEMBLO ELKARTEA

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Estemblo Elkartea, partaidetza komunitarioaren bidez, berrogei urtean aritu da kultura sustatzen eta areagotzen.

Gure inguruan, ordea, biztanleriak gainbehera egin du, bizitasuna galdu da, eta gure lana bultzatu eta biziberritzea beharrezkoa zela iritzi diogu. Hori Basoko Etxea sortuz eta bi ibarretara hedatuz erdietsi da.

Herritarrek, orain, ilusio eta motibazio handiagoa erakusten dute ekintzak elkarrekin egiteko, etorkizun itxaropentsuaren aurrean. Proiektuak bultzatu eta haien jarraipena egiteko batzorde egonkor, parekide eta belaunaldi arteko bat sortu eta errotu da. Boluntarioen partaidetza areagotu da lan komunitarioetan.

Elkarrekintza eta konfiantza handiagoa da elkartearen, Mendazako barrutiko udalaren eta kontzejuen artean, eta sare lana.

1.4 OHARRAK

Gurea bezalako inguru hain baztertuan eta ahaztuan ekimen bat taxutu izana da gure elkartearen indarraren seinalea. Elkartea sare bat osatzen joan da Acedon eta Berrotza nahiz Lana ibarretan, eta eragin handia izan du hiru urte honetan. Izan ere, denbora tarte horretan, elkarri loturiko hainbat proiektu egin dira bata bestearen atzetik, jendea nekazaritzaren eta Naturaren kulturen hezteko, landa ingurune depri-mitu bat garatzeko, bai demografiaren bai ekonomiaren aldetik, eta jendeak pixkanaka galdu duen autoestimua berreskuratzeko. Hori guztia, Foru Komunitate honetako artadirik handiena ardatz hartuta; gure herrialdeko handienetako bat ere bada.

Proiektua lagungarria da Agenda 2030eko hainbat helburu lortzeko: 2, 3, 4, 5, 10, 7 eta 17.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Plangintza eta parte-hartze komunitarioa erabakiak hartzeko

Basoko Etxea sortu eta hari lotutako jarduerak antolatzen direnetik, boluntario talde zabal batekin ari gara lanean; beren ideiak ematen dituzte, beren laguntza. Beraz, betiko lan moldea eguneratu da; auzolana, alegia.

Natur baliabideak eta ingurumena babestu eta zaintzea

Basoko Etxea basoa ezagutu, zaindu eta haren balioa nabarmentzeko zentro bat da. Era berean, hainbat pauso eman dira haren ezagutza jendearen artean zabaltzeko eta artadia zaintzeko, hainbat jardueraren bidez: lan tradizionalak berreskuratuz eta haien balioa nabarmenduz, lurraldea zaintzeko plan bat garatuz eta, duela gutxiago, Dérula zelaia ingurumen eta paisaiaren aldetik leheneratzeko. Herrian eta basoaren artean dago, hain zuzen.

Leku historiko eta kulturalik garrantzitsuenak babestea

Acedoko Kultur Zentroa hobetzen eta babesten jarraitu dugu. 150 lagunendako zine-toki historiko bat dago (Estemblo elkarteak eraitspenetik salbatutakoa) eta, haren osagarri, Basoko Etxea izeneko zentroa sortu da, hots, areto bat ikus-entzunezkoak emateko, eta beste bat, erakusketa ibiltari eta tailerretarako; guztiak ere leku xumeak baina ederrak dira.

Gizarteratzea, eta bazterketa murriztea

Elkarteak egiten dituen jarduera guztiak eta, bereziki, 2018an hasitako proiektu honen baitan, jende guztiari eskatzen dio laguntza inolako bereizketarik gabe. Herri txikiz osaturiko landa-ingurune oso sakabanatu honetan, funtsezkoa da hiriburutik baztertuta eta urrun sentitzen den jendea biltzea (hiriburuan kultur eta gizarte ekitaldi gehienak egiten baitira).



Lidergoa zertarako eta ekintza eta aldaketa inspiratzeko, politika publikoen arloan aldaketak sartuta

Proiektu honen bidez, elkarteak sare lanerako eta komunitatea engaiatzeko prozesu bat gidatu du; horren inguruan, kontzejuak, udalak eta hainbat eratako entitateak bildu dira; hori ona izan da inguru oso urrun eta ezezagun honetan jasangarritasuna bultzatzeko, dela ingurumenekoa, gizartekoa eta demografikoa; eta Nafarroako Gobernuaren arreta ere bereganatu du gure metodologia eta estrategia berritzaileen gainean.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Basoko Etxea, etorkizuna
lantzen Berrotza eta
Lana ibarrerako**

ESTEMBLO ELKARTEA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Basoko Etxea, etorkizuna lantzen Berrotza eta Lana ibarrerako

ESTEMBLO ELKARTEA

Erantzukizuna eta gardentasuna sustatzea

Elkarteak bultzatutako eta bultzatzen dituen proiektuek pertsona guztien erantzukidetasuna dute xede, hala ingurumenaren zainketan nola kultur eta ondare arloko balioen babesean, bai eta Basoko Etxearen eta jarduera ugarien antolaketan eta kudeaketan ere. Horrelako ekitaldiak antolatzen direnean, zabal jakinarazten da, bileren, sare sozialen eta bestelako komunikazio bideen bitartez, eta azkenean, urtero, ekitaldi bat egiten da sarean sarturik dauden pertsona eta erakunde guztiei gonbit eginda.

Berdintasuna eta gizarte ekitatea sustatzea

Estemblo elkartearen printzipioetako bat izan da ekimenean diharduten pertsona guztiei hizpidea eta botoa ematea proiektu eta ekimenetatik eratorritako erabakiak hartzeko. 2018az geroztik, Basoko Etxea eta hartatik eratorritako ekintzak abian jarri zirela eta, gure ahotsa eta eskariak helarazten dizkiegu erakunde publikoei laguntza eskatzeko, hori behar beharrezko baita gure Komunitatean ekitate eta berdintasun handiagoa erdieste aldera.

2.1.2 Elkartegintza

1. Toki entitateak

Acedo, Asarta, Mendaza eta Ubagoko kontzejuak, Mendazako Barrutiko Udala, eta Berrotza nahiz Lana ibarretako gainerako udalak eta kontzejuak.

2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak

Naparbideak, Teder, Acedoko Telekluba, Zerynthia, Elkartea, Berdesia Elkartea, Red Explora, Río Ubagua Elkartea, Iruñeko Nekazaritzako Basozaintza IT...

3. Erakunde zientifikoak

Gorosti Zientzia Elkartea.

Gure elkarteak muntako ekintzak garatu ditu duela lau hamarkadetatik hona, eta Nafarroako zaharrenetako bat da. Elkarreak, gainera, elkartegintza sustatu izan du gure inguruan, eta gure estatutuak eta laguntza eman dizkiegu elkarlan eskatu digu-



tenei. Era berean, Nafarroako Gobernuarekin eta hainbat kontzeju eta udalekin ari gara lankidetzan; erakunde zientifikoekin, hala nola Gorosti Elkarrearekin, eta era askotako elkarteekin, orain Artadia proiektuaren inguruan. Arestian azaldu ditugu.

2.1.3 Jasangarritasuna

- Errria daitezkeen politika sozialak eta/edo estrategia sektorialak eskualde edo toki mailan.

Landa ingurunean berrogei urtez irautea eta ekintzetan, boluntarioetan eta indarrean gora egitea; horra jasangarritasunerako bermerik handiena hiriburutik urrun dagoen gure lurraldean, eta horren ondorioz, hirigintzatik eta laguntza garrantzitsuetatik urrun ere ba baitago.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Basoko Etxea, etorkizuna lantzen Berrotza eta Lana ibarrerako

ESTEMBLO ELKARTEA

- Kudeaketa sistema eraginkorrak, gardenak eta arduratsuak, giza, teknika, finantza eta natur arloko baliabideak eraginkortasun handiagoz erabil ditzaten. Boluntariotza jasangarritasunaren funtsetako bat da eta, pixkanaka, gora egin du, bai eta foroetan eta beste jarduera batzuetan (kultura, ingurumena) parte hartu duten herritarrek ere, aurrera eginda ekintzetan eta lan intentsitatean, finantzaketa oso urria izanagatik ere.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

- Lidergo inspiratzailea.
- Pertsonak sendotzea.
- Dibertsitatea onartzea eta harrera egitea.
- Transferentziarako aukerak.
- Toki baldintzetara egokitutako neurriak.

Egiten diren toki jarduera guztiak Estemblok gidatzen ditu; ingurura zabaldu da, 15 herritara baino gehiagotara eta Toki Entitateak bultzatzen ditu.

45 boluntario inguru aritzen dira lanean hainbat mailatan eta haiek ere gure inguruari ahotsa ematen diote. Autoestimua handitu egiten da landa-ingurune sakabanatu honetan.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Jarduera guztietan, haurrak, gazteak eta helduak bertaratzen dira, eta jende guztiari ematen diogu ahotsa eta parte hartzeko aukera inor bazterrean utzi gabe. Eta adinekoak ere ekimenera hurbiltze aldera, hainbat estrategia egiten ditugu, hala nola familiaz familia deitu, ahoz ahoko estrategia, kartelak, etab. Lidergoa emakumeei dagokie, baina borondatezko partaidetza eta bultzada batzordeak parekideak dira.



2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Aldaketa handia eragin dugu: jendez hutsik eta sakabanatua dagoen inguru bat dinamizatze, eta artadiaren inguruan, ahaleginak batzea, baso hori batasun eta etorkizun faktorea baita.

Era berean, sare lana berrikuntza da baina gutxi erabilia bai ekintzetan bai entitateetan, alimaleko ahalegina egin behar izaten baita erabateko eraginkortasunez eta efikaziaz egiteko.

2.2.4 Transferentziak

- Eragin ukigarria, ideia bat edo hainbat transferitu izanaren ondorioz. Kolaborazioak gero eta gehiago dira eta kalitatez gero eta hobeagoak; kezak eta ideiak belaunaldien artean trukatzeko dira.
- Aldaketak politketan edo praktketan. Gazteak gehiago engaiatzen dira, eta adura handiagoa ematen zaie.
- Transferentziaren jasangarritasuna, prozesu baten osagai gisa. Boluntario kopurua handia baita Acedoko biztanleriaren aldean, belaunaldien artean transmititzen da, sare lanean bermaturik.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Handiena 40 urteko jarraikitasuna izan da, zereginean beti erne eta tinko, eta Berrotza eta Lana ibarretako 16 herrietara zabaldu izana.
- Horrek, pixkanaka sortu duen autoestimua; hau da, daukaguna baloratzeko aukera eman digu, bai eta jende guztiari ezagutzera emateko parada ere.
- Jardueretan lankidetzan ari den boluntario kopurua.
- Beren bizilekua esnatzen eta motibazioan, bultzadan eta etorkizunerako itxaropenean aurrera jotzen ari dela ikusteak bizilagunengan sortu duen bizipoza.
- Lurraldea bera eta bertako balioak ingurumenari zein kulturari begira.

3.1.2 Aukerak

Orain, Covid gaitzaren ondorioz, herrietan bizitzea lehenesten da gehiago, eta bizitasun eta ilusio handiagoa dago, naturarekiko irrika handiagoa.

Basoa oso erakargarria da ingurumeneko basozaintzarekin batera egiten diren hainbat ekintzatarako.

Kontzejuak eta udalak interes berdinen inguruan batu direnez, elkarren arteko eza-gutza sustatu da, bai eta ibar eta herrien arteko elkartasuna ere. Jendeak, gainera, orain barneratu du batu egin behar dela helburu berdinak lortzeko.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Biztanle gutxiako herriak dira; horrenbestez, zaila da despopulatzeari aurre egitea eta demografian aurrera jotzea.
- Etxe-jabe batzuek ez dute beren etxebizitza saldu nahi; ondorioz, beste pertsona batzuek ez dute hain ondasun urri hori eskuratzeko aukerarik.

- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren prekarietatea; lur hedadura handiagoak erosi eta landu behar dira, bai eta azienda gehiago erosi eta gobernatu ere. Lan estentsiboak desagertzeko arriskua.
- Ez dago belaunaldien arteko txandaketarik. Lurrak entitateen edo enpresen eskutara joateko arriskua.

3.2.2 Mehatxuak

- Herriak hutsik eta abandonatuak gelditzea.
- Berrotza eta Lana ibarren gainbehera demografikoa.
- Inguru honetako ondare immaterialaren eta nekazaritza kulturaren galera.
- Gure inguruan funtsezkoak izan diren nekazaritza, abeltzaintza eta ikazkintza bazter uztea. Laguntzarik badago, pixkanaka suspertu litezke.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018	2019	2020	GUZTIRA
Nafarroako Gobernua	5.000	13.000	26.000	44.000
Mendazako Barrutiko Udala		1.500	600	2.100
Acedoko Kontzejua		1.800		1.800
GUZTIRA	5.000	16.300	26.600	47.900

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Basoko Etxea, etorkizuna
lantzen Berrotza eta
Lana ibarrerako**

ESTEMBLO ELKARTEA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

AIPAMEN BEREZIA

Kontsumo arduratsua eta hondakinen prebentzioa Iruñeko Udaleko haur eskoletan

IRUÑEKO UDALAREN HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOA





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

**Kontsumo arduratsua eta hondakinen
prebentzioa Iruñeko Udaleko haur eskoletan**

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Iruña

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Iruña. 11 haur eskola

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Iruñeko udalaren haur eskolen organismo autonomoa

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2019/09/01**

Bukaera: **2020/12/31**

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Kontsumo arduratsua
eta hondakinen
prebentzioa Iruñeko
Udaleko haur eskoletan**

IRUÑEKO UDALAREN
HAUR ESKOLEN
ERAKUNDE AUTONOMOA

HARREMANA:

Juan Ramón Rábade Iraizoz

Oliveto kondearen kalea, 4-3.
31002 Nafarroa

Tel: 948 420 098 / 628 810 507

j.rabade@pamplona.es

www.pamplona.es



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Organismo autonomoak Iruñeko 11 haur eskolen jarduera kudeatzen du, hala hezkuntza, nola langileak, garbiketa-zerbitzua eta erosketak.

Administrazio publikoetako erosketa irizpideak hornigaien kontu ekonomikoetan eta kalitatezkoetan oinarritu ohi dira, alderdi sozialak eta ingurumenekoak edo bestelako ezaugarriak baloratu gabe, hala nola ahalik eta hondakin gutxien sortzea edota ekoizpen moldea.

Ohiko elikagaiak erosten ziren, ontzien itzulketa baloratu gabe; janaria prestatzen zen, kontuan hartu gabe koipe edo azukre neurrigabeak osasunean duen ondorioa, edota hondakinen ekoizpena, bizitza-zikloaren analisirik gabeko produktuak erosteagatik.



1.2 JARDUKETA

Jarduketak 4 ildo izan ditu:

- Ekoizpen ekologikoko eta hurbiltasuneko elikagaiak erostea.
- Osasungarriak ez diren prozesuak ezabatzea, janaria prestatzeko eta elikagaiak kontserbatzeko moldean.
- Ingurumeneko irizpideak erabiltzea, garbigarriak eta elikagaiak erosteko.
- Hondakinen balorizazioa eta hondakinak murrizteko plana.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Kontsumo arduratsua
eta hondakinen
prebentzioa Iruñeko
Udaleko haur eskoletan**

IRUÑEKO UDALAREN
HAUR ESKOLEN
ERAKUNDE AUTONOMOA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Kontsumo arduratsua
eta hondakinen
prebentzioa Iruñeko
Udaleko haur eskoletan**

IRUÑEKO UDALAREN
HAUR ESKOLEN
ERAKUNDE AUTONOMOA

1.2.1 Prozesua

Haur eskolak elikagaiez hornitzeko plegua prestatzea. INTIA, CPAEN eta Menjadors Ecologics erakundeekin elkarlanean, elikagai taldeak erosteko irizpideak zehaztu ziren, elikagaiak ekoizteko modua barne, elikagaien segurtasunaz gain, jatorri ekologikoa ere bermatzeko.

Haur eskolak garbigarritz hornitzeko plegua prestatzea, garbiketa modurik eraginkorrenak aztertu eta gero, dela produktuen kalitateari eta erabilerari begira, dela ontzien tamainari, dosifikazioari eta itzulketari begira.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

- Elikadura osasungarria eta segurua.
- Lortutako emaitzak langileei jakinaraztea.
- Egindako aldaketen berri familiei ematea.
- Elikagai hondakinak murriztea.
- Garbigarrien ontzi kopurua urritzea.
- Garbigarrien erabilera arrazionalizatzea.
- Garbiketa taldearen lan baldintzak hobetzea.
- Hondakin gutxiago sortzea.

1.2.3 Garatutako estrategiak

- Ingurumen eta gizarte arloko irizpideak eskoletako prozesuetan txertatzea, eskaintza ekonomikoaren balioa ahalik eta gehien gutxitzeko, beste irizpide batzuen aldean: kalitatea, ekoizpen ekologikoa, hondakinen murrizketa, hurbiltasuneko erosketa.
- Eskolako prozesuetan, ekonomia zirkularreko irizpideak txertatzea.
- Janaria prestatzeko moduan, osasun arloko irizpideak txertatzea.
- Hondakinak biltzeko irlak seinaleztatzea.
- Hondakinen balorazioa eta prebentzio plana.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Kontsumo arduratsua
eta hondakinen
prebentzioa Iruñeko
Udaleko haur eskoletan**

IRUÑEKO UDALAREN
HAUR ESKOLEN
ERAKUNDE AUTONOMOA

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

- Familietan ohitura osasungarriak sustatu dira, udal programaren bidez.
- Nekazaritza ekologikoak ekoiztutako produktuak Haur Eskoletako sukaldeetan.
- Elikagai hondakinak murriztu dira, frutak eta barazkiak azalarekin kontsumitzearen ondorioz.
- Sukalde hondakinak murriztu dira, frijigailuak ezabatu baitira eta, janaria frijitu ordez, egosi eta erre egiten baita.
- Filmak eta plastikozko erretiluak kendu dira, eta haien ordez, tapaderak eta labeko erretilu metalikoak erabiltzen dira.
- Plastikozko hondakinak murriztu dira; izan ere, erabilera bakarreko gauzen ordez (altxagarriak, erabilera bakarreko jogurtak), material berrerabilgarriak erabiltzen dira.
- Lehengai eresia aprobeztatu eta zentzuz erabiltzeari buruzko ezagutza, hondakinen aldean.
- Lan karga jaitsi da, garbiketa-prozesuak aldatu izanaren ondorioz; garbiketa-sistema laua (2021).
- Garbigarrien erabilera arrazionalizatzea, dosifikatzaile bidez aplikatzearen ondorioz.

1.4 OHARRAK

Hondakinen prebentzio-plana egiteko dago 11 eskoletatik 7tan, alarma-egoerak beharturik geldiarazi baitzen. Hiruhileko honetan zehar berrelduko diogu edota hurrengo urteko lehen hiruhilekoan, pandemiaren berragerpen une hau pasatzean eta ikasleen egokitzapenaren ondotik.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Kontsumo arduratsua
eta hondakinen
prebentzioa Iruñeko
Udaleko haur eskoletan**

IRUÑEKO UDALAREN
HAUR ESKOLEN
ERAKUNDE AUTONOMOIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

- Elikaduran, ohitura osasungarriak sustatzea.
- Kutsadura murriztea eta ingurumen osasuna hobetzea.
- Zaborrak hobeki bildu, birziklatu eta berrerabiltzea.
- Ekoizpen eta kontsumo ziklo hobeak, baliabide berriztaezinak ordeztuta edo murriztuta barne.
- Natur baliabideen eta ingurumenaren babesa eta kontserbazioa.

2.1.2 Elkartegintza

- Haur Eskolen organismo autonomoa.
- Udaleko 21 agenda zerbitzua.
- INTIA.
- CPAEN.

2.1.3 Jasangarritasuna

- Lege-esparruak.
- Estrategi sektorial errepikagarria.
- Kudeaketa-sistema eraginkorra.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

- Lidergoa, politika publikoan aldaketak egiteko, erosketari dagokionez.
- Komunitatea indartzea.
- Transferentziarako aukera.
- Egokia toki baldintzatarako.



2.2.2 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Elikagai ekologikoak erostea eta elikagai hondakinak kontrolatzea borondatezko ekimena da, ekimen transferigarria eta hezigarria, Haur Eskolek ikasleen alde abiarazia. Familiei ere jakinarazten zaie; beraz, efektu biderkatzailea du.

2.2.3 Transferentziak

Erosketa irizpideak beste administrazio batzuetara ere alda daitezke.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / AIPAMEN BEREZIA

3. EGOERAREN ANALISIAK:

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Eraitza biderkatzailea da, 11 haur eskoletan eta familietan burutzen delako.
- Udal langileen inplikazioa helburuak lortzeko.
- Kudeaketa udal langileen bidez, azpikontratarik gabe.
- Zuzendaritzaren engaiamendua.

3.1.2 Aukerak

- Erosketa irizpideak beste udal plegu batzuetara aldatzea.
- Haurren ikaskuntza, hondakinak bereizi beharra eramanen baitute etxera.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Hezitzaileen eta garbitzaileen borondatearekiko mendekotasuna hondakinak bereizteko eta hondakin frakzioak bere lekura eramateko.
- Aldaketen kontrako erreakzioa lan-prozesuetan.

3.2.2 Mehatxuak

- COVID krisiak erakarritako osasun irizpideak. Izan ere, erabilera bakarreko produktua gehiago erabiltzea eragin baitu, berrerabilgarrien aldean eta ordeztu dira.
- Produktu ekologikoen kostua ohikoen aldean eta nekazaritza-merkatuek eskaririkiko duten mendekotasuna.



4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018	2019	2020	GUZTIRA
Haur esk. org. autonomia	16.706	134.865,27	121.708,3	273.279,57
Caraso Fundazioa	0	8.000,00	24.000,0	32.000,00
GUZTIRA	16.706	142.865,27	145.708,3	305.279,57

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Kontsumo arduratsua
eta hondakin
prebentzioa Iruñeko
Udaleko haur eskoletan**

IRUÑEKO UDALAREN
HAUR ESKOLEN
ERAKUNDE AUTONOMOA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIAK

- **Iruñeko Udalaren “Bizieskola” programa Ikasleendako eta helduendako**
IRUÑEKO UDALA
- **Iruñeko hiri-baratzeen sarea (komunitarioak, aisiakoak eta sozialak)**
IRUÑEKO UDALA
- **Eskoletako Baratze Ekologikoak Hezkuntza Proiektua**
IRUÑEKO UDALA
- **Lorategi bat auzolanean Zangozarako**
ARDASKA ELKARTEA ETA ZANGOZAKO UDALA
- **Arga ibaiko Areatzea meandroaren lehengoratze hidraulikoa eta ingurumenari nahiz paisaiari begira (Uharte). Iruñerria**
IRUÑERRRIKO MANKOMUNITATEA / IRUÑERRRIKO ZERBITZUAK, S.A.
- **“Convivium Yesa 2019”: Komunitatea osasunez, sormenez eta berdintasunez bizitzeko bilerak**
ESAKO UDALA
- **Konpromiso ttikien aldeko kanpaina**
ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA
- **Ekonomia Zirkularra & Hiri Biodibertsitatea Bizikidetza Arduratsu baterako “CATHOTEL”**
LLOBREGATS
- **Zahartze aktiboa Ledean**
LEDEAKO UDALA
- **Berriozar, zaintza ardatz**
BERRIOZARKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Iruñeko Udalaren “Bizieskola” programa Ikasleendako eta helduendako

IRUÑEKO UDALA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala



BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Iruñeko Udalaren “Bizieskola” programa Ikasleendako eta helduendako

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Iruñeko Udalerria

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Iruñeko udal-barrutia

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Iruñeko Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2017/09/01**

Bukaera: **2020/12/31**

Beste data interesgarri batzuk:

Ikasturtea: “Bizieskola, helduendako”.

Udaberria eta udazkena: “Bizieskola, helduendako”.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko Udalaren
“Bizieskola” programa
Ikasleendako eta
helduendako**

IRUÑEKO UDALA

HARREMANA:

María Isabel Gómez Jiménez

Armada etorbidea 2. 9. solairua.
31002 Nafarroa

Tel: 948 42 09 95 / 628 21 64 29

m.gomez@pamplona.es

www.pamplona.es



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Atzeman da ez dagoela prestakuntza praktikorik bizikletaz ibiltzeko, hala 12 eta 16 urte arteko ikasleengan, nola helduengan, eta era berean, ez dakitela nola ibili hirian segurtasunez eta joan-etorri mota guztietarako ezarri diren arauak beteta. Programaren bi adarrek bizieskolan parte hartzen dutenen autonomia eta gaitasunak handitu nahi ditu, mugikortasun autonomoa, segurua eta garraiobide osasungarri eta ez-kutsagarrietan garatzeko aukera gehiago izan dezaten.

1.2 JARDUKETA

“Bizieskola” programak bi adar ditu: “Bizikleta Eskolan” eta “Bizikleta Helduendako”, hasieran “Emakumeendako Bizieskola” izan zena.

“Bizikleta Eskolan” udalerriko ikastetxe guztiei eskaintzen zaie, gaztelaniz eta euskaraz, ikasturte osoan, irailetik ekainera. 12 eta 16 urte arteko ikasleentzat da (lehen hezkuntzako 6. Maila - BDHko 4. maila).

“Bizieskola Helduentzat” programa “Emakumeendako Bizieskola” gisa hasi zen eta udaberriko nahiz udazkeneko hiruhilekoetan eskaintzen ditu ikastaroak; udazkeneko, Mugikortasunaren Europako Astearekin batera. Programak 3 maila progresibo ditu, bukaeran parte-hartzaileek behar adinako gaitasuna izan dezaten bere kabuz eta segurtasunez bizikletaz ibiltzeko.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko Udalaren
“Bizieskola” programa
ikasleendako eta
helduendako**

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko Udalaren
“Bizieskola” programa
Ikasleendako eta
helduendako**

IRUÑEKO UDALA

1.2.1 Prozesua

“Bizikleta Eskolan” programa 3 saiotan dago antolatua:

- “Ezagutu bizikleta”, ikastetxeko ikasgelan: Bizikleta, zirkulazio segurua eta errespetuzkoa, eta babes indibidualarekin.
- “Gidatu bizikleta”, ikastetxeko jostalekuan: Bizikleta zirkuitu itxian menderatzea.
- “Ibili bizikletaz”, ikastetxetik kanpo. Praktika babestua.

“Bizieskola Helduentzat”, 3 mailatan dago antolatua:

- “Hastapena”, hasiberrientzat.
- “Trebezia”, kontrol handiagoa behar dutenentzat.
- “Zirkulazioa”, ingurune errealean.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Helburuen artean, azpimarratzekoa da lehen hezkuntzako 6. mailatik DBHko 4. mailara bitarteko ikasleak gaitzea, ikastetxera segurtasunez, autonomiaz eta konfiantzaz joateko.

Gainera, haurtzaroan bizikletaz ibiltzen ikasi ez zuten helduek, edota segurtasunez ibiltzeko ezagutzak sendotu beharrean dauden helduek, bizikletaz pixkanaka era seguruan eta babestuan ibiltzea.

Gehienak emakumezkoak izanik ere, programak bizikleta indartu nahi du haien mugikortasun autonomoaren eragiteko.

1.2.3 Garatutako estrategiak

Udalak 2017ko irailean abiarazi zuen programa, laguntza tekniko bat kontratatuz (2017-18 ikasturtea). 2019ko abuztuan, esparru-akordio bat atera zuen lizitaziora bi ikasturterako (19-20 eta 20-21), luzagarria. Horrek programari segida ematea ahalbidetzen du eta behar bezalako aurrekontua bideratzea ikasle berriak hartzeko eta helduendako ikastaroak aldizka antolatzeko.

Mailakako ikaskuntza ona da bizikleta eguneroko garraiobide gisa gero eta gehiago erabiltzeko, adin goiztiarretatik hasita.



1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Hona hemen “Bizikleta Eskolan” programako adierazleak, ikasturte bakoitzerako:

- 2017-18. 18 ikastetxek parte hartu dute eta 50 ikasgela-talderekin lan egin da. 3 saioak egin dituzte eta 1.126 ikaslek jaso dute prestakuntza.
- 2018-19. 15 ikastetxe eta 64 ikasgela-talde izan dira, eta 1.384 ikaslek jaso dute prestakuntza.
- 2019-20. 16 ikastetxek, 61 ikasgela-taldek eta 1.224 ikaslek parte hartu dute (ikasgela-talde batzuek ez dute prestakuntza bururaino egin, pandemiaren eraginez).
- 2020-21. 15 ikastetxek eman dute izena. 53 ikasgela-talde baino gehiago dira. Lana irailean hasi da.

Hona hemen “Bizieskola Helduendako” ekimeneko adierazleak:

2017an, 38 emakume. 2018an, 75 emakume. 2019an, 110 heldu. 2020an, 152 lagun. (%90 emakumeak).



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

- Kutsadura murriztea eta ingurumeneko osasuna hobetzea.
“Bizieskola” programa bizikletaren erabilera sustatzera bideratua dago, eguneroko hiri garraiobide gisa. Ez da hezkuntza-programa hutsa, eta ikasleak ikastetxeetara autoz ez joatea du xede, bizikletaz beren kasa joan daitezen; horrela, autoaren ordezkari bizikleta erabiltzeko aldaketa sustatu nahi da bai orainean (helduak) bai etorkizunean (ikasleak).
- Hiri-garapenerako estrategia integratu eta globalak formulatu eta praktikan jartzea.
“Bizieskola” bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko politikaren hiru hankatako bat da, mugikortasun osasungarria eta isuri kutsagarririk gabea; horrekin batera, azpiegitura garatzea eta bizikletak aparkatzeko ekipamenduak ere garatzea.
- Genero berdintasuna eta ekitatea erabakiak hartzeko, baliabideak banatzeko, eta programak diseinatu eta praktikan jartzeko.
“Bizieskola helduendako” programa, gaur egun, emakume eta gizonendako dago zabalik, baina hasieran, emakumeendako eskola gisa pentsatu zen, emakumeen bizikleta bidezko mugikortasun autonomia sustatze aldera. Programa garatzeko kontratatua dagoen enpresen aldi baterako elkartearen ari den taldeetako bat Bizikume da, hots, emakume prestatzailen kooperatiba bat da eta emakumeen txirrindularitza elkarte bat.
- Gizarteratzea eta bazterketa murriztea.
Esparru-akordioan, ezarrita dago prestakuntza-saioak desgaitasuna duten pertsonen egiak beharra; eta ikasleendako prestakuntza-programa prestakuntza bereziko ikastetxeei eskaini zaie.
Programak aurreikusia du ikasle eta heldu parte-hartzaileek bizikletarik ez izatea eskura prestakuntza jasotzeko, eta Udalak bizikletak jartzen ditu.



- Berdintasuna eta ekitate soziala sustatzea.
Bizikleta garraiobide eskuragarria eta osasungarria da; beraz, haren erabilera sustatzea berdintasunaren eta ekitate sozialaren alde lan egitea da garraiobideen eta mugikortasun autonomoaren erabilerari dagokionez.

2.1.2 Elkartegintza

- Irabazi-asmorik gabeko entitateak: kooperatibak, korporazioak, fundazioak, federazioak eta elkarteak.
Bizikume taldearen eta Iru Ziklo Kooperatiba Sozialaren esku-hartzea bai prestakuntzan bai zabalkundean (dena den, harremana akordio-esparruaren bitartez ezarria dago, laguntza tekniko kontratatuta gisa).
- Bestelako elkarteak.
Bestelako elkarte horiek, nagusiki, udalerrian kokaturiko ikastetxeak dira eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuarekin (udal programa bada ere, lankidetzan aritzen dira eta badira sinergiak; adibidez, programan ari diren ikasgeletako irakasleen prestakuntzan, Iruñeko ILZk antolatua).

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko Udalaren
“Bizieskola” programa
Ikasleendako eta
helduendako**

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko Udalaren
“Bizieskola” programa
ikasleendako eta
helduendako**

IRUÑEKO UDALA

2.1.3 Jasangarritasuna

Erreplikatzeko moduko eskualde edo toki mailako gizarte politikak eta/edo estrategia sektorialak.

“Bizieskola” programa bizikleta sustatzeko politikaren baitan dago, eta ekintza hori gure udalerrian erreplikatu eta zabaldu daiteke, bai eta beste udalerrri batzuetan ere. Iruñeko Udalak Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Estrategia bat garatzen du, Go Green Pamplona markapean, isuririk gabeko mugikortasuna sustatzeko ekintzak txertatzeko.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

- Pertsonak, bizilagunak eta komunitateak sendotzea eta haien ekarpenak txertatzea. Bizikletaz mugikortasun autonomia lortzeak huraxe erabiltzen duten pertsonak indartzen ditu, bai eta komunitate osoa ere, ingurumenari eta gizarteari onurak dakarzikelako.
- Transferentziarako, egokitzapenerako eta errepligarritasunerako aukerak. Programa osoa erreplikatu daiteke, hala ikasleentzat nola helduentzat, jende gehiago joan dadin bizikletaz bere egunerokoan.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

“Bizikleta Eskolan” programak denetarikoko ikastetxeak artatzen ditu eta, era berean, aurreikusten du programa egokitzea eta laguntza berariazkoa ematea premia bereziak dituzten ikasleei eta errefortzua edo arreta behar dutenei. Gainera, bizikletak jartzen ditu erabiltzaileen eskura, jende guztiak ez baitu horrelakorik. Helduendako programa, hasieran, emakumeendako soilik izan zen. Gaur egun, emakume eta gizonentzat da, baina parte-hartzaile gehienak emakumeak dira (%90 emakumeak eta %10 gizonak).



2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Prestakuntza-programa asko ez daude mugikortasun jasangarriari eta haren sustapenari lotuta. “Bizieskola” Espainiako beste herri batzuetan garatu da eta, haie-tatik, metodologiaren zati bat ekarri da, baina haren ezarpen sistematikoa berritzailea da (Iruñean, inoiz-edo antolatu izan da aurretik).

Unea aldekoa da, mugikortasun osasungarri eta ez kutsagarria bultzatzen ari den honetan, eta ekintza ederki erreplikatu daiteke.

2.2.4 Transferentziak

Transferentzia udalerrri barnean egin da ikastetxe batzuetatik beste batzuetara. Ez da beste toki entitateetara eraman.

Hein batean erabili da Nafarroaz kanpoko beste herri batzuetan baliatutako metodo-logia; beraz, lankidetzarik izan da hirien eta hainbat autonomia erkidegoren artean.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

3. IKASITAKOAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Esparru-akordioa, Tokiko Gobernu batzarrean onetsia eta lizitatu, programa urtero ziurtatze aldera.
- Aurrekontu-zuzkidura.
- Laguntza tekniko aldi baterako enpresa elkartean; kooperatiba bat da, Zaragozan antzeko bizieskola programa bat landu duena; hau da, oinarrizko metodologia probatua eta baliozkotua izan da.

3.1.2 Aukerak

- Bizieskola, bizikleta sustatzeko udal politika integralaren baitan eta, horren barnean, bidegorri-sarea zabaltzeko eta aparkaleku seguruak ugaritzea.
- Gero eta ikastetxe gehiagok dute interesa programan, prestakuntza garrantzitsua baita ikasleentzat, ikastetxeetan sartzeko irisgarritasun jasangarria sustatzen duelako eta bere kabuz joaten diren ikasleen segurtasuna bermatzen duelako. Era berean, gero eta heldu gehiagok dute bizikleta erabiltzeko interesa.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Profesional gutxi da gauza programa kudeatzeko eta ikastetxeetan egon daitekeen eskariari erantzuteko.
- Ez dago behar adina irakaslerik ikastetxeetan planteatzen den berariazko prestakuntzan engaiatzen denik, programa hazi dadin, ikastetxeetako giza baliabideak ugaritzeari esker.
- Ikastetxe guztiek ez dituzte ingurune seguruak bizikletaz joateko; beraz, karrikarako proposatzen den saioa ez da beti egin erraza.

3.2.2 Mehatxuak

Programa bakana da Nafarroan eta aukera gutxi dago hiri-bizikleta erabiltzera bideratutako beste prestakuntza-jarduera batzuk egiteko; horren ondorioz, zailtasunak dira egun programa kudeatzen duten enpresei eusteko.

Era berean, horren ondorioz, udala enpresa horien menpe dago, eta enpresa horiek inoiz-edo zailtasunak izan ditzakete zerbitzu kontratatua egokiro emateko.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018	2019	2020	GUZTIRA
Iruñeko Udala	53.000	65.000	45.000	163.000
GUZTIRA	53.000	65.000	45.000	163.000

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko Udalaren
“Bizieskola” programa
Ikasleendako eta
helduendako**

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Iruñeko hiri-baratzeen sarea (komunitarioak, aisiakoak eta sozialak)

IRUÑEKO UDALA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala



BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko hiri-baratzeen
sarea (komunitarioak,
aisiakoak eta sozialak)**

IRUÑEKO UDALA

HARREMANA:

Marina Jiménez Díez

Uztarroze kalea zk.g.
San Pedro Monasterioa Zaharra eraikina
31014 Nafarroa

Tel: 948 42 09 92
agenda21@pamplona.es
m.jimenez@pamplona.es

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Iruñeko hiri-baratzeen sarea (komunitarioak, aisiakoak eta sozialak).

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Iruñeko udal-barrutia

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Iruña eta inguruak

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Iruñeko Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2017/02/11**

Bukaera: Baratzeak abian jarri dira eta iraupen mugagabea dute,
Elkarteek eta gizabanakoek halaxe eskatzen badute.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Iruñean, betidanik izan dira baratzeak, eta orain, Arantzadin eta Magdalenan baizik ez. Dena den, denboraren joanean, gero eta eskari gehiago egin dira Iruñeko barnealdeetan baratzeak paratzeko.

Udal jabetzapeko lekuak dira, berezko erabilerarik ez zutenak; batzuk obren betegarrria zuten edo barnealdeko plazak ziren edo eremuak.

Lekuak auzo-elkarte batzuek eskatu dituzte baratze komunitarioak jartzeko. Udalak, gainera, leku handi bat dauka Etxabakoitz auzoan, gizabanakoendako eta elkartendako baratzeak egiteko.

1.2 JARDUKETA

Baratze komunitarioei dagokienez, Udalak lurra moldatu, hesitu eta ureztatzeko sistema prestatzen du. Gehienak, lana errazteko baratze-mailak dira. Udalak behar den dirua ematen du tresnak eta lanabesak erosteko, baratze-mailak egiteko eta lurra, konposta eta landarea eskuratzeko. Elkarteko kideek baratze-mailak egin, laboreak abian jarri eta lana antolatzen dute.

Aisiako eta gizarte moldeko udal baratzeetan, Udalak lurra moldatu, lursail bakoitzean ureztaketa jarri eta 40 euroko alokairua kobratzen du urteko 50 metro karratuko lursailetan eta, 60 eurokoa, 75 metro karratuko lursailetan. Gizarte eta ingurumen arloko elkartentzat, doakoa

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko hiri-baratzeen
sarea (komunitarioak,
aisiakoak eta sozialak)**

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko hiri-baratzeen
sarea (komunitarioak,
aisiakoak eta sozialak)**

IRUÑEKO UDALA

1.2.1 Prozesua

Auzoko elkarteek (baratze komunitarioak) Agenda 21eko Zerbitzuarekin jartzen dira harremanetan eta, azalpenak emateko bileren ondotik, lekua kudeatzeko proiektu bat aurkezteko eskatzen zaie. Aurkezten diren proiektuak baloratu eta auzoko beharretara hobekien egokitzen den entitateari lagatzen zaio.

Udalak aisia baratzeen lursailak egokitzen ditu eta zozketaz eskaintzen dira. Elkartei dagokienez, alokairua doakoa da, baina txosten bat aurkeztu behar dute.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Baratze komunitarioek inguru degradatuei balioa ematen diete eta, horri esker, erreferentzia berria dira auzoan (kulturala, soziala, ingurumenekoa, etab.). Horrela, hainbat leku leheneratzen dira, hala nola plaza itxiak, obrak egin izan diren tokiak, landare erruderalak hazten diren bazterrak, etab. Gainera, pertsonen arteko bizikidetza sustatzeko helburua dute eta, horrez gain, bultzatu egin nahi dute belaunaldien arteko harremana, elikagai ekologikoen ekoizpena eta zero kilometroko ekoizpena ere bai. Aisia eta gizarte moldeko udal baratzeen helburua antzekoa da.

1.2.3 Garatutako estrategiak

- Zero kilometroa: Udalak Milango Ituna sinatu zuen 2016an (hurbiltasuneko elikagaiak ekoiztu eta elikadura burujabetasuna). Baratze komunitario eta partikularretan (aisia, sozialak) ekoizten dena ingurunean kontsumitu behar da.
- Elikadura osasungarria eta segurua: Udal baratze guztiek ekoizpen ekologikoa egin beharra daukate nahitaez.
- Bazterturik dauden pertsonen elikadura: Produktuak Elikagai Bankurako eta talde ahulendako.
- Belaunaldien arteko lankidetzak.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko hiri-baratzeen
sarea (komunitarioak,
aisiakoak eta sozialak)**

IRUÑEKO UDALA

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Baratze mota horiek abian jartzeak ondorio hauek izan ditu:

- Aurretik erabilera zehatzik ez duten inguruak leheneratu dira eta estetikoki hobetu (hesiak, lorontzi loreak, zuhaixkak eta laboreak).
- Lekua auzoarendako aprobetxatzea: jarlekuak, bizikletak aparkatzeko euskarriak, piknik-mahaiak, paperontziak, habia-kutxak, etab.
- Konpostontziak, baratzean sortzen diren hondakinak berreskuratzeko eta, horrela, lurrera itzultzen dira.
- Leku horietan parte hartzen dutenek elkar ezagutzen dute, esperientziak partekatzen dituzte eta koordinatzen ikasten dute. Hainbat adinetako pertsonak direnez, ezagutzak belaunaldien artean trukatzeko dira.
- Elikagaiak beharrean daudenen artean banatzeko bideetan parte hartzea.

1.4 OHARRAK

Hiri-baratze komunitarioak auzoetako topaguneak dira eta harremanetan daude Guraso Elkartekin, ikastetxeekin eta leku hori jarduerak egiteko eskatzen duten beste elkarte batzuekin, hala nola Down Syndromearen Elkartea, Mundu Bat, Tasubinsa, haur ludotekak, etab.

Pandemia bitartean, elkartek elikagaiak udal aterpetzei eta elikagaiak banatzeko auzoetako sareei eman zizkieten.

Aisia eta gizarte moldeko udal baratzeetan, 8 lursail doan utzi zaizkie irabazi-asmorik gabeko elkarteei, haiek landu ditzaten; Elikagai Bankuari, Nuevo Futuro edo Berriztu elkarteei, hain zuzen.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Leku degradatuak leheneratzea eta pertsonen erabiltzea (Adibidea: Alde Zaharreko baratzea erreferentzia da orain, baita pasealekua ere.

Urtero, baratzeetako elkarteek txosten bat aurkezten dute aurreko urtean zer jarduera egin eta zer labore landatu dituzten azaltzeko.

Hiriko baratze komunitarioak albiste dira. Izan ere, urtea zehar, hedabideetan agertzen dira (prentsa idatzia, irratia, telebista eta internet).

Baliabide naturalak erabiltzeko modu jasangarria dira, ez baitira produktu kimikoak erabiltzen; gainera, laboreak modu jakin batez elkartzen eta txandakatzen dira izurrien eragina murrizteko eta, gainera, biodibertsitatea areagotzen laguntzen dute (intsektu polinizatzaileak eta beste; hegaztiak, hala nola kaskabeltzak, txantxangorriak, buz-tangorriak, etab.) Berdintasuna sustatzen dute, pertsona guztiek berdintasunez parte hartzen baitute jardueren antolaketan; bestalde, organo erabakitzaileretan, badira emakumeak nahiz gizonak. Baratze komunitarioen twitterrek eta facebookek ardura, elikadura burujabetza eta kudeaketa jasangarria sustatzen dituzte.

2.1.2 Elkartegintza

Hiri-baratze komunitarioak kudeatzeko, irabazi-asmorik gabeko elkartea izan behar da (Nafarroako Gobernuko erregistro ofizialean alta emanda). Pertsona taldeak elkartzen dira (zenbaitetan, aurrez elkar ezagutu gabe) baratze bat abian jartzeko helburuarekin. Gainera, elkarteak baratze sarea batean dira partaide; horrenbestez, informazioa ematen diote elkarri, bai eta materialak eta landareak ere.

Hona hemen nor ari diren baratzeetan: Agenda 21eko zerbitzua, baratze elkarteak (5), betiere udal lorategiekin koordinaturik, Hiri Kontserbazioa, auzoko Polizia Komunitarioa eta bestelako zerbitzuak. Beste elkarte batzuek Agenda 21eko zerbitzura edo baratze elkarteetara jotzen dute, baratzeetan parte hartzeko eta bisitatzeko (Erretiratu Elkarteak, Elkarkide Fundazioa, Berritzu Fundazioa, Padre Meni Psikogeriatrikoa, auzo-unitateak, etab.).

Elkarteek aisia eta gizarte moldeko udal baratzeetan parte hartzen duten lurra lantzeko; era berean, pleguen idazketan parte hartu dute, bai eta baratzeak abian jartzen ere: Etxabakoizko Auzo Elkarte, Jazar elkartea, auzoko parrokia, Elikagai Bankua, Erretiratu Elkarte, Etxabakoitz Bizirik elkartea, etab.

2.1.3 Jasangarritasuna

Hiri-baratze komunitarioek ez dituzte erabiltzen produktu kimikoak eta sortzen diren hondakinak kudeatzeaz arduratzen dira eta, halaber, bereizi egiten dituzte, hondakinei buruzko 14/2018 foru legearen arabera. Gainera, baratzeetan sortzen diren hondakin berde guztiak hantxe bertan konpostatzen dira. Udalak tresnak, lanabesak, zurak eta plastiko birziklatua ematen dizkie baratze-mailak egiteko, baina elkarteek beste material batzuk berrerabiltzen dituzte, hala nola paletak, leihoak (berotegiak), kutxak, lorontziak, etab.

Hiri-baratzeetatik hurbil, bizikleta-aparkalekuak paratu dira mugikortasun jasangarria sustatzeko aldera.

Elkarteek haziak trukatzeko dituzte eta, horrela, hurbiltasuneko nekazaritza sustatzen da, tokiko aldaerak erabiltzen dituen eta ingurura egokituak. Horrela ere ez da landarea erosteko mugitu beharra.

Aisia eta gizarte moldeko udal baratzeak zero hondakineko eremua dira, eta landare-hondarrak batera konpostatzen dira leku berean.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Iruñeko hiri-baratzeen sarea (komunitarioak, aisiakoak eta sozialak)

IRUÑEKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko hiri-baratzeen
sarea (komunitarioak,
aisiakoak eta sozialak)**

IRUÑEKO UDALA

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Hiri-baratzeak kudeatzen dituzten elkarteak auzoaren eta Udalaren arteko zubiak dira, eta Udalari zuzentzen zaizkio beren eskaerak egiteko eta beren iritziak emateko. Badakite zer-nolako beharrak dituzten auzoek, eta politikan, ingurumenean, gizartean eta kulturaren diren aldaketaren parte dira, eta udal erabakietan eragiten dute.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Baratzeetan berdintasunez parte hartzen dute emakumeek eta gizonek. Elkarrekin hainbat taldetan daude antolatuta (talde eragilea, komunikazioa, laboreak, jarduerak, etab.); kide batzuek zuzendaritzan dihardute eta elkartearen bozemaileak dira Udalarrekiko harremanetarako. Postu horietan badira emakumeak eta gizonak.

Udal kartel guztiak elebitan daude eta hizkuntza inklusiboan idatziak. Baratzeetan hainbat giza taldek parte hartzen dute, hala nola desgaitasun funtzionaleko pertsonen, etorkinen, tratatu txarrak jasotako emakumeek, auzo-unitateek, etab.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Hiriek betidanik baratzeak izan badituzte ere, egun hiri-baratzeak gauza berria dira eta halako landa-eredu bat sustatzen dute hiriaren erdian. Etxabakoizko aisia eta gizarte baratzeak abian jartzeko, Berriozar, Noain, Aranguren eta Eguesekin hitz egin da, haien eredua eskala handiagoan transferitzeko.

2.2.4 Transferentziak

Beste udalerrri batzuetako esperientziak ezagutu dira eta, horren ondorioz, gure baratze-eredua erdi tamainako udalerrietara nahiz handiagoetara transferitu daiteke.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

Nekazaritza ekologikoak balio erantsia ematen dio elikagaiak ekoizteari; balio hori oso estimatua da gaur egun eta lagungarria da elikadura osasungarria, osasuntsua eta hurbiltasunekoak bermatzeko.

Hiri-baratzeek bizilagunen arteko harremanak sustatzen dituzte eta, haiei esker, eza-gutzak trukatzeko dira eta auzoak auzo bereko eta beste auzo batzuetako jendearentzat irekitzen dira.

Ura eta materialak eraginkortasunez eta jasangarritasunez kontsumitzen dira, elkar-tuen adostasunaren ondorioz.

3.1.2 Aukerak

Baratzeetan ari ez diren pertsonak, auzokoak nahiz bertakoak ez izan, baratzeetara hurbiltzen dira ikusminak bultzaturik eta gozatzen dituzte.

Iruñeko baratzeak elkarren arteko harremanetan dabilta, baita beste udalerrri batzuetako baratzeekin ere, informazioa, esperientziak eta landareak trukatuta.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

Zenbaitetan, mendekotasun handiegia dago pertsona batzuekiko eta, pertsona horiek luzaroan ezin badute baratzeaz arduratu, ondorioak izaten dira. Baratzeen jarraipena sustatu behar da, mendekotasun hori alde batera utzita, talde eragileak berrituta. Baratzeak udal jabetzapean daude eta usufruktuan ematen dira 4-5 urterako. Horrek kezka eta antsietatea eragiten ditu.

3.2.2 Mehatxuak

Pertsona batzuek ez dira baratzeen aldekoak eta, zenbaitetan, ez arrazoitu gabeko kexak jasotzen dira.

Zenbaitetan, lapurretak eta bandalismoa izaten dira. Ekintza horien atzean daudenekin solasean saiatzen da afera konpontzen.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018	2019	2020	GUZTIRA
Iruñeko Udala	23.789	28.374	93.134	145.297
GUZTIRA	23.789	28.374	93.134	145.297

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Iruñeko hiri-baratzeen
sarea (komunitarioak,
aisiakoak eta sozialak)**

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Eskoletako Baratze Ekologikoak Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Eskoletako Baratze Ekologikoak Hezkuntza Proiektua


IRUÑEKO UDALA

HARREMANA:

Ana María Domínguez Silva

Uztarroze kalea zk.g.
San Pedro Monasterioa Zaharra eraikina
31014 Nafarroa

Tel: 948 420 984
a.dominguez@pamplona.es
<http://educacionambiental.pamplona.es/>



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Eskoletako Baratze Ekologikoak Hezkuntza Proiektua

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Iruña

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Iruña

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Iruñeko Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2019/09/02**

Bukaera: **2020/09/30**



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Eskola-baratzea lantzeko proiektua garatu baino lehen, ohartu ginen ikastetxe askok ordurako bazutela baliabide hori eta baliabide gehiago jasotzeko interesa zutela (giza baliabideak, baliabide materialak, ekonomikoak eta/edo pedagogikoak); beste batzuek eskola-baratzea ezartzeko interesa zuten, baina ez zuten baliabiderik horretarako, eta beste batzuek abian jarria zuten, baina baliabideak behar zituzten beren ikastetxeetan berrabiatzeko. Eskola-baratzea baliabide egokia da ingurumen-hezkuntza ikastetxeetan txertatzeko; beraz, eskola-baratzea lantzeko hezkuntza-proiektu baten beharra atzeman zen, baratzeak sortzea ahalbidetzeko edota aurretik zeudenak berrabiatzeko, ikastetxeek hainbat jarduketa-esparrutan erabil zitzen.

1.2 JARDUKETA

Ekimenean parte hartu nahi duten ikastetxeei proposatzen zaien ibilbide pedagogikoak 3 ikasturteetako konpromisoa dauka:

- **1. Urtea. Hasiera:** Irakasle guztiak prestatzea. Irakasleen artean lan talde bat osatzeta. Udalak jarraipena egiten dio. Eskola-baratzea sortzea edo aurretik daudenak hobetzea. Baratzearen egokitzapen kurrikularra ikasgelan. Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzea. Eskolara Baratzearen Urteko Topaketan parte hartzea.
- **2. eta 3. Urteak, sendotzea:** batzuetan gehiago, besteetan gutxiago, laguntza ematen zaie ikastetxeei, eta ikastetxeek beren konpromisoak betetzen jarraitzen dute bai prestakuntzan, bai lan taldearen funtzionamenduan, bai curriculumak ikasgelan aplikatzeari dagokionez, etab.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Eskoletako Baratze
Ekologikoak Hezkuntza
Proiektua**

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Eskoletako Baratzek Ekologikoak Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA

1.2.1 Prozesua

Deialdi publiko bat prestatu zen Iruñeko lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetarako, betiere instalazioak Iruñeko Udalaren eskumenean dauden haietarako. 2019-2020 ikasturtean, 7 ikastetxeri egin zaie jarraipena. Batzuk aurrerago zebiltzan proiektuan, eta beste batzuk, berriz, atzerago: Ikastetxe bat lehen urtean; 4 ikastetxe bigarren urtean, eta 2 ikastetxe, hirugarren urtean.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

- Ikasleen eta ingurunearen artean lotura onuragarria sustatzea, hori ingurumen-hezkuntzaren oinarria baita.
- Baratzek era askotako ezagutzak ikasteko ikasgela baten gisara eskaintzea.
- Ikaskuntza esanguratsua sustatzea, eskola-baratzearen inguruko esperientzien eta bizipenen bidez.
- Esperientziak eta balioak partekatzea, hau da, giza balioak, etikoak, ingurumenekoak eta osasungarriak.
- Hezkuntza-komunitate guztiaren parte-hartzea sustatzea.
- Patioak atsegin bihurtzea eta naturalizatzea.
- Elikadura osasungarria eta hurbiltasunekoa sustatzea.

1.2.3 Garatutako estrategiak

- Ikaskuntza esanguratsua: eskola-baratzearen inguruko lana, prozesuen bidez, eta ez, ordea, noizbehinkako esku-hartze isolatuen bidez.
- Ikastetxeetako jostalekuak atsegin egitea, eskola-baratzek paratuz.
- Teoriatik praktikara: esperientzian oinarritutako lana, zuzenekoa, hainbat kontzepturen inguruan: zero kilometro, elikadura osasungarria eta ekologikoa eta ekonomia zirkularra.
- Hezkuntza-komunitatea: baratzek eskola tresnaren inguruko elkarlana.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

- Eskola-baratzek bat sortzea, ikastetxeetan atzeman diren beharretan oinarriturik.
- Ikastetxeetan abandonaturik dauden eskola-baratzek berrabiatzea, udal baliabideak erabiliz (giza baliabideak, materialak, ekonomikoak eta/edo pedagogikoak).
- Eskola-baratzeari buruzko unitate didaktiko bat sortzea, proiektuan parte hartzen duten ikasleek erkatua eta osatua.
- Eskola-baratzeken inguruko prozesu komunitarioak abiatu edo berrabiatzea.
- Ikasleek beren esperientzia bidez eta era aktiboan parte hartzea baratzek sortu eta mantentzeko prozesuan, curriculumarekin bat.
- Proiektuan ari diren ikasleen eta irakasleen arteko topagune bat sortzea esperientziak trukatzeko eta prozesuak indartu eta sustatzeko.

1.4 OHARRAK

COVID19ak eragindako egoera dela eta, hezkuntza-programaren etapak egokitu behar izan dira 2019-2020 ikasturteko azken etapetan. Urte berri honetarako, ez da beste ikastetxerik hasi. Izan ere, baliabideak egungo ikastetxeetara bideratzea erabaki da eskola-baratzearen inguruko kontingentzia planei begira.

Argibideak: <http://educacionambiental.pamplona.es/comunidad-educativa/programa-de-huerta-escolar-ecologico>



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Eskoletako Baratzek Ekologikoak Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Proiektu honen eraginak kudeaketa jasangarri, eraginkor, arduratsu eta gardenean eragiten du:

- Ikastetxeetako baratzeak hobetu ditu, bai eta udal baliabideen kudeaketa ere, eta ondorioz, hiri-eremuak berritu eta birgaitu dira.
- Plangintzaren inguruko erabakiek irakasle guztien arteko koordinazioa eragin du, udal taldeek lagunduta.
- Proiektuko eragileen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetu da, eta haietako bakoitzaren lanak efektu sinergikoa eragin du, esku-hartze indibidualak eragingo lukeen efektuaren aldean.
- Programak genero arloko berdintasuna eta ekitatea sustatzen ditu erabakietan, haien diseinuan eta praktikan jartzeko.
- Ikastetxeetako hondakinak hobeki bildu, birziklatu eta berrerabili dira.
- Espazio publikoaren erabilera hobe eragin du, eta ekoizpen nahiz kontsumo zikloen hobekuntza ikastetxeen barnean.
- Osasun psikologikoaren, sozialaren eta ingurumenekoaren hobekuntza garatu du eskola-baratzearen ekintzaren inguruan.

2.1.2 Elkartegintza

Programak elkartegintza sustatzen du, eragile aunitz ari baitira:

- Iruñeko Udala.
- Iruñeko udalerriko haur eta lehen hezkuntzako 7 ikastetxeetako irakasleen, ikasle, familien eta irakaskuntzaz bestelako langileak.
- Ikastetxeetatik hurbileko elkartek eta taldeak.



Sanduzelai Ikastetxea.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Iruñerriko Mankomunitatea.
- Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua.

2.1.3 Jasangarritasuna

- Proiektuak berez jasangarritasuna sustatzen du; izan ere, ingurumeneko sentsibilizazioa bultzatzen du baratzearen inguruan landu daitezkeen ingurumeneko alderdi guztiei buruz: elikadura osasungarria eta ekologikoa, hondakinen kudeaketa eta ekonomia zirkularra; zero kilometroko energia kontsumoa eta elikadura, etab., eta ohiturak aldatu beharra eta aldaketa hori esperientzietan oinarriturik egin beharra.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Eskoletako Baratz Ekologikoak Hezkuntza Proiektua

IRUÑEKO UDALA

- Proiektua jasangarritasunaren inguruan pentsatua dago eta, haren garapenean, koherentzia sustatu da, hala erabiltzen diren materialetan, nola ikastetxeetarako prestatu eta garatu den unitate didaktikoan, ikastetxeko hondakinen kudeaketan eta hezkuntza-proiektuaren gainontzeko etapetan.
- Entitateen arteko koordinazio eta elkarlanak, kudeaketa sistema eraginkorrak eta arduratsuak sustatzen ditu, baliabideak eraginkortasun handiagoaz erabiltzen baitira; giza baliabideak, teknikoak, ekonomikoak eta naturalak.
- Eskola-baratzeari abian jartzeak osasun psikologikoa, soziala eta ingurumenekoa hobetzen du, eskola-inguruneak jasangarriagoak eginda.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

- Ikastetxeak, udalak jarraipena eginik, bere gain hartzen du proiektuaren gidaritza ibilbide pedagogikoaren etapa guztietan.
- Proiektua lagungarria da truke sozial eta kulturalerako, lotura sustatzen baitu beste belaunaldi batzuekin eta beste kultura batzuetako praktikekin.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Proiektu pedagogikoaren garapenak genero berdintasuna eta gizarteratzea izan ditu oinarri. Eskaintzen dituen aukerek (berezik, dibertsitate funtzionalaren kasuan) ikas-kuntza esanguratsua ahalbidetzen du, esperientzietan eta zentzumenetan oinarriturik.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Proiektua berez da berritzailea. Izan ere, udal entitateak, baliabide material eta ekonomikoen bidez laguntzeaz gain, giza baliabideak, prestakuntzazkoak eta pedagogikoak ematen ditu proiektuaren etapetan zehar. Ikastetxe bakoitzean, laguntza Ad hoc ematen da.



Sanduzelai ikastetxea.

Ikaskuntza esanguratsua sustatzeaz gain, ingurumeneko sentsibilizazio handiagoa eragiten du. Hezkuntza komunitateak bizi izandako hori eta sortutako hori transmititzen dizkie herritarrei; horrexegatik du efektu biderkatzailea.

2.2.4 Transferentziak

Ikastetxe bakoitzaren esperientzia transferigarria da. Transferentzia Eskola Baratzaren Topakateren bitartez sustatzen da, baina baita ikasturte osoan zehar ere, beste tresna batzuen bidez. Unitate didaktikoa edozein ikastetxetara transferitu daiteke eta, nolahi ere, proiektua berez eta metodologia edozein entitatek erreproduzitu ditzake.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Entitateen arteko elkarlana eta koordinazioa (udal eta eskualde mailakoak, unibertsitateak, etab.).
- Prozesuek hezkuntza-komunitate guztia eta haren ingurunea barnebiltzen dituzte.
- Ikaskuntza esanguratsua, esperientzien bidezkoa, hiri-arloa naturarekin lotzen duena.
- Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren prestakuntza-akreditazioa.

3.1.2 Aukerak

- Eskola-baratzeen sare bat egituratzea Iruñeko Udalean.
- Iruñeko sarea egituratzea eskola-baratzeen beste sare nazional batzuekin.
- Garapen komunitarioko prozesuen garapena eskola-baratzeen inguruan.
- Ingurumen-hezkuntza eskola-baratzearen bidez txertatzea.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Irakasleen plantillako zati nabarmen bat urtero aldatzen da.
- Zailtasunak dira haurrek parte-hartze handiagoa izan dezaten eskola-baratzearen erabakien ingurua, ikastetxeetako metodologiak oinarri harturik.

3.2.2 Mehatxuak

- Ez da udal baliabiderik iristen ikastetxeetara, hau da, giza baliabideak, materialak, ekonomikoak, etab.



Amaiur Ikastola.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018	2019	2020	GUZTIRA
Iruñeko Udala	3.000	7.000	8.000	18.000
GUZTIRA	3.000	7.000	8.000	18.000

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Eskoletako Baratze
Ekologikoak Hezkuntza
Proiektua**

IRUÑEKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Lortegi bat auzolanean Zangozarako

ARDASKA ELKARTEA ETA ZANGOZAKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Lorategi bat auzolanean Zangozarako

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Udalerri konposatua

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Proiektua toki esparrukoa da. Esku-hartze eremua: Cantolagua pasealekua.

Lorategia 2020ko ekainean bukatu zen, espazio publiko batean dago, Aragoiren ibaiertzean dagoen Cantolagua Pasealekuaren (Kontserbazio Bereziko Eremua da), eta Osasun etxearen eta San Vicente de Paul zaharrendako udal egoitzaren artean.

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Ardaska Elkarte eta Zangozako Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2019/10**

Bukaera: Lorategiak zaindurik dirau, bai eta talde sentimenduak ere.

Beste data interesgarri batzuk:

20/06/27: Lorategia landatzea.

20/10/04: Inaugurazioa. Bisita gidatua lorategiak zer intsektu erakartzen dituen jakiteko. Harriak margotzeko haur tailerra.

Bi jarduerak bi boluntarioren kargura daude.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Lorategi bat auzolanean Zangozarako

ARDASKA ELKARTEA ETA
ZANGOZAKO UDALA

HARREMANA:

Susana Garralda Pérez

Kale Nagusia, 31
31400 Nafarroa

Tel: 948 87 00 05 / 630 14 17 84
sgarralda@sanguesa.es
www.sanguesa.es





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Zangoza hiri txiki bat da eta ez du 5.000 biztanlerik.

Jarduera tasa eta enplegu indizea Nafarroako onenetakoak dira, baina, demografiari begira, arazoak ditu, hala nola biztanleria galera, zahartzea eta maskulinizazioa; gabezia horiek hainbat bide baliatuz zuzendu behar dira, bai eta herriaren harrera gaitasuna, hirigintza, itxura eta paisaia hobetuz ere.

Ez du bizikidetza arloko arazo larririk, baina azkenaldian, bandalismorik izan da hiriko altzari eta apaingarrien aurka; horrek esan nahiko luke pertsona edo talde batzuen-gan nolabaiteko deserrotze sentimendua dagoela.

Azkenik, adierazi behar da udalaren kezken artean dagoela klima-aldaketaren aurka borrokatzea tokiko eskalan bertan (izan ere, Zangozako Udala Klimaren eta Energia-ren aldeko Alkateen Itunari atxikitako lehenetariko toki entitatea izan zen Nafarroan),

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Lorategi bat auzolanean
Zangozarako**

ARDASKA ELKARTEA ETA
ZANGOZAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Lorategi bat auzolanean Zangozarako

ARDASKA ELKARTEA ETA
ZANGOZAKO UDALA

erabat sinetsita baitago hau bezalako jarduketak lagungarriak direla arazo larri horretaz ohartarazteko eta atea zabaltzen dietela klima-aldaketa aurre egiteko borrokaren aldeko jarrera proaktiboagoei.

1.2 JARDUKETA

2019An, jarduera prestatzeko lehen fasea egin zen eta, horren baitan, bi saio:

- Proiektuaren aurkezpena eta boluntarioen izena jasotzea.
- Mintegiak bisitatzea eta landareak ugaritzeko tailer bat, ereintzari eta aldxkak egiteari buruzko oinarriko ideiak azaltzeko. Landare hori, hasiera batean, 2020ko udaberriko landaketan erabiliko zen.

2020An, hasierako asmaren arabera, saio guztiak era presentzialean egitekoak ziren, baina prestaketa eta diseinuko hasierako fase barruko jarduera batzuk telematikoki eta komunikazio-teknologiak aplikatuz egin behar izan dira (whatsApp bidez), COVID19aren osasun krisiak martxotik maiatzera eragindako murrizketen ondorioz. Denboraldi hartan, eduki hauek landu eta jarduketa hauek egin ziren:

- Hainbat gauzari buruzko gogoeta egiteko lan saioa: lorezaintza, hiri eraldakuntzak eskaintzen dituen aukerez, nondik gatozen (berdeguneak), nekazariak al gara gu lorazainok?, klima-aldaketa eta hiriak, beste landare batzuk, lorezaintza ulertzeko beste modu bat, orain European egiten ari diren beste lorategi batzuk ezagutzea.
- Lorategia egiteko lekua aukeratu eta aztertzea; ikusi tokia eta zer aukera eskaintzen dituen; lekuak zer esaten digun ikustea; zer gauza bururatzen zaizkigun, etab.
- **Prestakuntza jardunaldiak:**
 - Landare bizikorak eta lastodunak ezagutzeko, bai eta gure lurraldera egokitzearen duten gaitasuna ere; beste esperientzia batzuk aztertzen jarraituta: zertarako erabiltzen ari diren egun European landare horiek.
 - Lur mota guztiak ezagutzea, bai eta medeapenak eta ongarriak ere, konpostaren garrantzia, jorratearen eta inausketaren garrantzia, ureztatze-sistemak, oinarriko ideiak, etab.

• Lorategia diseinatu eta sortzea:

- Ideia-zaparrada eta proposamen trukea, lekuak, inguruek eta erabilerekin zer eskaintzen zuten zehazten hasteko. Taldeak bere irudimena utzi zuen dantzan, eta amets egin zuen koloreekin, bolumenekin, ehundurekin. Jaramon egin zuten gure burutaziei, aztertu eta eztabaidatu zituen... harik eta dena zehazten joan arte: hau da, motiboa, forma, koloreak, haien antolaera, nola mailakatu behar ziren urtaroen bidez, non jarri mugimendua, etab.
- Ideia lantzea: marratuz, ezabatuz. Zerbait topatu arte. Taxutu, eskalan jarri, landarea xehetasunez kalkulatu, plana lurrera jaitsi, esku hartu beharreko espazioa markatu.
- Lurra prestatu eta landaketa egitea: Lurraren hasierako prestaketa, eta gero, huraxe medeatzeko lanak eta landaketa.
- Jarraipena egitea: udako hilabeteetan, boluntarioen txandak antolatuta ziren jorra egiteko, ureztaketa begiratzeko, landarearen hazkuntza ikusteko eta lorategia bere osoan nola garatzen ari zen atzemateko.
- Gure lorategia, ekosistema berri gisa: bi saio egin ziren, lorategia sortzeko faseetan lan egin duten boluntarioekin, zertarako eta...:
 1. Lorategira zer intsektu erakarri ditugun jakiteko.
 2. Gure lorategiko landareak identifikatzeko: landatu ditugun landareen izenak ezarri eta gure lorategietan dabilen intsektuen izenak identifikatu.
- Erabilitako landareei buruzko ezagutza partekatzea. Panel bat zegoen, informazio galduta. Bada, panel hori baliatuko dugu lorategiaren argazki bat paratzeko eta erabili ditugun landareen izenak idazteko.

Urriaren hasieran, lorategia bere ederrean zegoela, ofizialki inauguratu genuen. Egun hartan, inguru hori formalki eman zitzaion Udaleko Lorategi Zerbitzuari, mantendu dezan; eta herriari ere eman zitzaion, goza dezan.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Lorategi bat auzolanean Zangozarako

ARDASKA ELKARTEA ETA
ZANGOZAKO UDALA

1.2.1 Prozesua

2018ko maiatzetik 2019ko erditsura arte, Zangozako Agenda 21eko Toki Plana berritzeko prozesuan, Ardaska Elkarteko kideek ideia bat eman zioten Udalari hiria edertzeko proiektu bat elkarlanean lantzeko; proiektu egokia, gainera, klima-aldaketa-aren aurka herrian bertan borrokatzen ikasteko eta ekarpen eredugarria izateko. Horrek, aldi berean, halako eraldakuntza pedagogiko zuzena eraginen zuen parte-hartzaileengan, eta zeharka, herritar guztiengan.

Horrela, Udalak ideia bere egin eta hiria edertzeko ekintza bultzatu zuen, herritarrekin elkarlanean burutua, eta hiriaren itxura hobetzen lagundu duena.

Proiektuaren ideien eta dinamizazioaren arduraduna Juanmari Artazkoz izan da, nekazaritza ingeniari teknikoa eta paisajista, eta Fulgen Sutil, hau da, Sustrai Mintegietako arduraduna. Biek ere, Ardaska Elkartearen bidez, ideia hori garatu eta gauzatzea proposatu zioten Zangozako Udalari.

Hiriko inguru degradatu bat leheneratu, lorategi bihurtu eta pasealekua egiteko proposamena elkarlanean egin da fase guztietan Zangozako Udalaren eta Ardaska ingurumenaren aldeko elkartearen artean.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Ikuspegi soziala kontuan harturik, ekimenaren bidez hau guztia lortu nahi izan da:

1. Herriko bizilagunen artean bizimodu osasuntsua sustatzea.
2. Bizilagunen arteko elkarlana eta errotzea sustatzea, belaunaldien arteko harreman berdinzaleak sendotuz.
3. Hirian leku eta denbora atseginagoak erdiesten saiatzea, behar diren ekintza eta jarduketak sortuta, Zangozako bizimoldea erosoagoa eta atseginagoa izateko.
4. Zangozako karrikak, plazak, lorategiak eta bideak harreman leku naturala, topagunea eta bizikidetza tokia izatea adin guztietako jendearentzat.
5. Hiriko espazio publikoak eta guztion lekuak zaindu eta babesteko ohiturak sortzea eta jendea hezte.



1.2.3 Garatutako estrategiak

Jarduera sorta bat egin da, eta guztiek ere herriaren erdialdean inguru bat elkarlanean lorategi bihurtzea izan dute helburu. Ekimenak leku bat eraldatu nahi izan du jendea ere eraldatzeko eta Zangozako Udalak proposatu du, hiru asmo edo xede bateragarri eta osagarriekin:

1. Proiektu jasagarri bat sustatzea, herritarrekin batera.

Lorategi loretsu bat egitea, intsektuz betea, oinarritzko hiru irizpide kontuan hartuta:

- Ur kontsumo apala eta mantentze-lan gutxikoa.
- Ikuspegi ekologikoarekin bat egitea haren planteamendua, gauzapena eta ondoko mantentze-lana. Zero kilometrokoa landare apaingarriendako.
- Era askotako landareak, loraketa luze eta ederrekoak, denetariko intsektu polinizatzaileak, txoriak, etab. Erakartzeko.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Lorategi bat auzolanean Zangozarako

ARDASKA ELKARTEA ETA ZANGOZAKO UDALA

2. Espazio publiko bat leheneratzea harremanetarako, atsedeen hartzeko, aisiarako, bazterrak begiesteko, irakurtzeko, haurrari bularra emateko, etab. Azken buruan, bizitza karrikara jaitea, lorezaintza auzokideen arteko harremanak sustatzeko tresnatako erabiliz, zertarako eta parte hartzen dutenen artean harremanak sortu, indartu eta sakontzeko.
3. Lorezaintzak gurea bezalako hiri txikietan eskaintzen dizkigun aukerez gogoeta egiten ikastea (udala, herritarrak, gizarte erakundeak...).
 - Gure hiriguneko paisaiak jasangarritasunez aberatsen eta edertzen saiatzea, geure baliabideak erabiliz eta tokiko garapenerako irizpideak baliatuz.
 - Landareekiko zaletasuna eta gustua areagotzea, bai eta landareak ugaltu eta lantzearekikoa ere; eta era berean, are gehiago jakitea lorategira datozen in-tsektu polinizatzaileez eta txoriez.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Herriak lorategi-espazio berri bat dauka paseorako jendearen eskura. Zorion mezu asko jaso dira. Lorategia Cantolagua pasealekutik ikusten da edota Osasun Etxetik eta inguruan mantendu den erdi aroko harresi tarte baten ondoan dago.

Ardaska elkarteak lankidetzan aritu da Udalarekin eta elkarteko kideek gehien eska-tutako proiektu bat gauzatu du.

Udalak proiektu pedagogiko bat egin du, elkarlanean eta partaidetzan oinarritua, bere Agenda 21en baitan, klima-aldaketaaren aurkako tokiko borrokarekin bat eta 2030 Agendaren GJHei jarraikiz.

1.4 OHARRAK

Parte-hartzaileen borondatea hartu da aintzat heldu den urtean beste edizio bat egi-teko.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Hona hemen proiektuaren emaitza ukigarriak:

- Espazioa: herriko eremu degradatu bat honetu da.
- Denbora: saiatu gara behar bezalako landareak eta loreak aukeratzen, lorategia urte osoan loretan eta proiektua ere urte osoan bizirik izateko.
- Pertsonak: boluntario lanerako talde bat osatu da, udalez kanpoko jendea, proiektu komun honetan eskuzabaltasunez aritu direnak. Belaunaldien arteko harremanak sortu dira taldekideen artean, batzuek ez baitzuten elkar ezagutzen eta askotariko adinekoak dira, 25 urtetik 70 eta gehiagora bitarte.
- Prozesu pedagogikoa: parte-hartzaileen lorezaintza trebetasunak hobetu dituzten ekintza pedagogikoak ezarri dira, baina era berean, haien trebetasun sozialak hobetu dira, eta ideia eta ezagutza berriak ikasi dituzte aisia osasungarriagoa, sortzaileagoa eta aktiboagoa egiteko.
- Partaidetzazko prozesua: lankidetzazko proiektu publiko-pribatu bat egin da.

2.1.2 Elkartegintza

Ezaugarri hau ekimenaren gakoetako bat da; Udalaren eta Ardaska Elkartearen arteko lankidetzarik eta harremanik gabe, ez zen aurrera aterako Cantolagua Pasealekuko Lorategia; ezta pertsonen mobilizazioa ere; ezta helburuak bete ere. Udalak lorategirako lekua utzi zuen proiekturako; udak brigadaren lana hainbat lanetarako, hala nola lurren oinarritzko prestaketarako edota ureztaketarako ur hartzeko; prestakuntza jasotzeko lokalak, eta dirua proiektuko zuzendariei ordaintzeko, bai eta prestakuntza-ekintzak ordaintzeko ere, eta materiala eta landare apaingarriak eros- teko.

Ardaska Elkartek hasierako ideia izateaz gain, proiektu teknikoa landu, ondu eta Udalari jakinarazi zion; prestakuntza-ekintzak antolatu zituen; halaber, lorategia disei- natzeaz, landatzeaz eta sortzeaz arduratu ziren pretsonak animatu zituen. Ardaskaren eta Udalaren arteko sinergietatik sortua da Zangozako Cantolagua Pase- alekuko lorategia.

2.1.3 Jasangarritasuna

Agenda 2030 ezarritako jomugei dagokienez, ekimenak Garapen Jasangarriko bi Helbururi erantzuten die:

- Bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea adin guztietako jende guztia- rendako.
- Ekosistema lur- tarren erabilera jasangarria babestu, leheneratu eta sustatzea; desertifikazioari aurre egitea eta lurraren degradazioa eten eta leheneratzea, eta dibertsitate biologikoaren galera geldiaraztea.

Horren haritik, eta proiektuaren hasieratik, argi zegoen ekimenak onura anitz ekar- zitzakeela, gizarteari nahiz ekonomiari begira: herriaren konponketa eta hobekuntza estetiko- a eragiten duen gauza orok onura ekonomikoa dakar zuzenean edo zeharka; adibidez, turismoari begira, Zangozak Donejakue Bideko erromesak hartzeko duen gaitasuna, edo bizitzeko, erosketak egiteko edo bertan kokatzeko herri erakargarri baten irudia. Baina, batez ere, Udalak herritarrekin besoz beso lan egiteko aukera ikusi zuen eta, aukera ere, pertsonak ingurumen- hezkuntzako ekintza baten bidez eraldatzeko, Guztion Ongirantz bideratuko gaituen pedagogia sozialaren lehen urrats gisa.

Baina, inon sumatzen bada argien ekimenaren jasangarritasuna, ingurumenaren arloan da:

- Prestaketa guztia, hau da, lorategia landatu eta mantentzea, kontsumo apalekoa da erregai fosilei dagokienez. Apaltasunez bada ere, Zangozako Lorategia Auzola- nean ekimena lagungarria da biosferaren berotegi- efektua ahalik eta gehien gutxitzeko; eta horren haritik, esan genezake karbono maila apaleko ekonomia sus- tatzen duela.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Lorategi bat auzolanean
Zangozarako**

ARDASKA ELKARTEA ETA
ZANGOZAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Lorategi bat auzolanean Zangozarako

ARDASKA ELKARTEA ETA ZANGOZAKO UDALA

- Lorategia sortzeko fasean sortutako hondakin guztiak birziklatu dira.
- Tantz tantako ureztaketa-sistema bat ezarri da, landareen hazkuntza eta garapena bermatzen dituen, baina oso ur gutxi kontsumitzen du (bestelako ureztaketa-sistemek eraginaren luketenaren %75).
- Lurrera eta klimatologiara egokitutako landareak aukeratu dira, behin lorategia garatutakoan, ahalik eta erresistentziarik handiena izan dezaten eta ur gehiegi kontsumitu behar izan ez dezaten.
- Era berean, aztertu eta hausnartu da zein izan daitezkeen inguruko dibertsitatea birsortzen lagundu dezaketen landareak. Arrazoi hori dela-eta ematen zaio hain garrantzi handia prestakuntza-programa guztiari.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Cantolagua Pasealekuko Lorategia Auzolanean ekimena gizarte erronka bati aurre egiteko modu bat da: tokiko gobernantza hobetzea, eta halako espazioak eratzea lankidetzarako, elkarlanerako eta erabakiak batera hartzeko, Udalaren eta Ardaska elkartearen antolatutako herritarren artean, Udala udal erakunde nagusia baita. Azken buruan, Udalak, horrela, ez ditu soilik abiarazten hiria hobetzeko ekintzak "bizilagunentzat", baizik eta, era berean, "bizilagunekin batera" eraikitzen du hiria.

Espazioan bertan lan egiteko egunak arinaldian hasi ziren eta egun egokiak izan dira atari zabalera ateratzeko eta sormenezko proiektu bat lantzeko; egokiak ere, eskuz eta toki jendetsu batean lan egiteko; bertan gelditu eta landareez edo landareak toki itxietan baino leku seguruagoetan zaintzeko moduz galdetzen duten paseatzaileekin hitz egiteko, etab.

Keinu txiki bat iduri dezake, baina aukera asko ditu bere baitan politika sozial parte-katua aurrera egiteko: Zangoza Hiriko lurraldea okupatu eta banatzeko proposamen ezberdina da; erabilera berriak eta ezberdinak ireki ditu espazio hondatu baterako;



sormenezko aisiarako jarduera osasungarriak sortu eta ahalbidetzen ditu; partaide-tzan oinarritua dago, eta belaunaldien artekoa da; kliman eragin kaltegarria duen natur baliabideen degradazioa prebenitu eta eragozten du; kontuan hartzen du landare apaingarrien klimaren ezaugarrien aprobeitxamendu eta egokitzapen hobea; edertasuna eta harmonia sortzen ditu...

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Jarduketa irekia egon da parte hartu nahi izan duen jende guztiari, adinean eta generoan bereizketarik egin gabe, eta inolako mugarik gabe.

Aipatu behar da lorategiaren diseinuan eta sorreran, parte-hartzaileen %36 60 uretik gorakoak izan direla; eta gainera, fidelenak eta tinkoenak izan dira bertaratzeko eta lan egiteko.

Adinekoak lorazain lanetan aritzea eragingarria, akuilagarria eta etsenplua izan da jende gaztearentzat. Oso onuragarria eta eredugarria da irudi hori, hots, adineko jen-



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Lorategi bat auzolanean Zangozarako

ARDASKA ELKARTEA ETA ZANGOZAKO UDALA

dea lanean eta ekinean ikustea hiriaren itxura hobetzeko asmoz; izan ere, fidelak izan dira, ez dute jardueretan huts egin; beraz, gutiz eredugarri.

Lorategia ideiatzen eta egiten aritutakoen %70 emakumezkoak izan dira.

Lorategia Auzolanean Cantolaguako Pasealekuan "genero berdintasunaren" aldeko etsenplua izan da. Izan ere, hala prestakuntza-ekintzek nola lorategia egiteko ekin-
tzeek inspirazio iturri hauek izan dituzte:

- Jende guztiak dauka dena egiteko gaitasuna; hori ez dago ez sexuaren, ez adinaren mendean.
- Pertsona bakoitzak trebetasun edo ezagutza bat izan dezake, eta hori aberatsagoa eta onuragarriagoa izanen da, partekatzen badugu.
- Denok ditugu mugak, hau da, gizonok eta emakumeok, haurrok eta helduok. Elkarrekin, osagarriak gara eta gauza ederragoak, interesgarriagoak eta ilusionagarriagoak egiten ditugu.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Proiektu honen berrikuntzarik sakonenak zerikusia du sustatzaileen artean harremanak egiteko molde berriarekin: elkarlan publikoa/pribatua. Horregatik, abian den aldaketa soziala ez dagokio soilik azalari, hau da, Zangoza Hiriaren eraldakuntza estetikoari. Hori aldaketaren kanpoaldeko itxura da.

Horrez gain, proposamena aldaketa sakonago baten keinu bat da, ikur bat, gobernatzeko moldearekin eta Hiria egiteko moduarekin zerikusia duena: azken buruan, gobernantza ereitea da, hau da, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko harreman orekatuko gobernu garapen ekonomiko, sozial eta instituzional egonkorra lortzeko, ilusioa loratzea eragiteko eta ongizatearen fruituak biltzeko, bizilagunak Zangozan bertan sustraituta, auzolanean landatutako loreak lur elkorretan errotu diren bezala, lorategi ekologiko, jasangarri eta bizitzaz beteriko bat itxuratzeko.

2.2.4 Transferentziak

Jendeak jarduera aberasgarriak egiteko erabiltzen duen denbora hori da aisia aktiboa, hau da, jarduera aberasgarriak dira beraientzat eta onuradunak berak inplikatzeko eta aritzen dira. Atari zabaleko lorategi bat egitea bat dator erabat onura osasungarri eta garrantzitsuak dakartzaten jarduera mota horiekin: ariketa fisikoa den heinean, jarduera neurritsua da eta guztien eskura dago; lurra eta landareak ukitzea, natura-
rekin harremana, horrek guztiak ere halako ongizate eta gogobetetasun maila bat ematen dio jarduerari; eta lorezaintza auzolanean egitea, beste batzuekin batera, oso estimulagarria eta aberasgarria da hartan ari direnentzat.

Lorategia Zangozarako auzolanean sortu, diseinatu eta horretan ikastea lagungarria da hartan ari direnek bizimodu osasungarria izateko; eguneroko portaera eta jarrera horiek onak baitira gorputza eta burua sasoiaren egokitasunez mantentzen laguntzeko. Nabarmendu behar da onura horiek ez direla soilik gelditzen egindako eta partekatutako jardueran: hau da, hartan aritutako guztiek irakaspenak eskuratu dituzte, eta ikasitako guztia beste leku batzuetan egin daitezke eta beste pertsona batzuekin ere, ikasitakoa ohitura bihurtzea sustatuta.

Era berean, behin parte-hartzaileek lorategia sortuta eta beraiena dela sentituta, oso egokia da lorategira joatea, nola hazi, eraldatu eta aldatzen den ikusteko; eta horrela, batetik, ariketa fisikoa egiteko beste modu batzuk sustatzeko, oinez ibiltzea, adibidez; eta bestetik, herrian sustraitua egotearen sentimendua sustatzen da.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Udalaren jarrera herritarrek eskatutako ekimena jasotzeko eta horri erantzuteko.
- Ardaska Elkarteko kideen engaiamendua eta eskuzabaltasuna.

3.1.2 Aukerak

- Gaurkotasuna duten gaiak lantzeko aukera, hala nola klima-aldaketaaren aurkako borroka, inplikaturik dauden entitateak eta herritarrek erronkarekin bat egitera animatzen dituen, udal leku baten landaketa eta lorategia egitea baino askoz ere anbiziotsuagoa delako.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Lorategia keinu txiki bat da eta horretan bakarrik gera daiteke; helburuak eta lorpenak errotu behar dira; jende gehiagorengana iritsi; leku gehiagotan esku hartu; espazioa funtzionamenduan mantendu, eta horretarako bitartekoak behar dira.

3.2.2 Mehatxuak

- COVID-19 pandemiak proiektua arriskuan jarri du. Azkenean, irtenbide bat bilatu zen, baina ekimenaren jarraipenari eragin diezaioke edota bi entitateek etorkizunean ekintzak egiteko duten gaitasunari.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2018	2019	GUZTIRA
Zangozako Udala	1.000	8.000	9.000
GUZTIRA	1.000	8.000	9.000

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Lorategi bat auzolanean
Zangozarako**

ARDASKA ELKARTEA ETA
ZANGOZAKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Arga ibaiko Areatzea meandroaren lehengoratze hidraulikoa eta ingurumenari nahiz paisaiari begira (Uharte). Iruñerria

IRUÑERRRIKO MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRRIKO ZERBITZUAK, S.A





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Arga ibaiko Areatzea meandroaren lehengoratze hidraulikoa eta ingurumenari nahiz paisaiari begira (Uharte). Iruñerria

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Uharte eta Olatz (Eguesibar)

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Uharte, Olaz (Eguesibar) eta, oro har, Iruñerria

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Iruñerriko mankomunitatea / Iruñerriko zerbitzuak, s.a

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2010**

Bukaera: **2020**

Beste data interesgarri batzuk:

2017ko ekaina-urria: lurra kentzeko lanak.

2017ko urria-2028ko urtarrila: parte-hartze publikorako prozesua.

2018ko martxoa: proiektua idatzi eta onestea.

2018ko abuztua: meandrea lagatzea.

2018ko iraila: lurra lehengoratu, prestatu eta hobetzea.

2019ko iraila: krainer horma bat eraikitzea.

2019ko urria: meandroan 295 zuhaitz landatzea eta, 40 zuhaitz, eta 10 zuhaixka uhartean.

2019ko azaroa-2020ko urtarrila:

Zokoako zaldainetik meandroan sartzeko pasealekua egokitzea.

2020ko ekaina: eremu lehengoratuaren aurkezpena.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Arga ibaiko Areatzea meandroaren lehengoratze hidraulikoa eta ingurumenari nahiz paisaiari begira (Uharte). Iruñerria

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A

HARREMANA:

Mikel Manzanos Areta

Chinchilla jeneralaren kalea, 7
31002 Iruña

Tel: 948 42 32 30

E-Mail: mmanzanos@mcp.es

www.mcp.es



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiko Areatzea
meandroaren lehengoratze
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Areatzeko meandrea Argaren ezkerreko ibaiertzean dago, Uharte barnean. 2004ean eta 2005ean, kalte larriak eragin zitzaizkion. Izan ere, hara bota ziren Areta industrialdean kokaturiko enpresa bateko instalazioak handitzeko lanek mugiarazitako lur guztiak. Horrela, meandroaren ia azalera osoa aldatu zitzaion (lau hektarea baino gehixeago) eta lur-kota lau bat metro igo zen; horren ondorioz, haren funtzionaltasun hidrologikoa galdu zen, bai eta ingurumenari nahiz

paisaiari begira zeuzkan balioak ere. Zapuztu egin zen, gainera, inguru hori hiri-espazio gisa erabili eta gozatzeko udal aurreikuspena.

2013ko uholde historikoetan, ura ezin izan zen meandroan zabaldu eta horrek kalte larriak eragin zituen bai ingurunean, bai aldameneko Huici Leidan irin-enpresan. Izan ere, enpresako laborategia urpean uzteaz gain, makineria eta materialak suntsitu egin zituen. Bi aste behar izan zituzten lanari berreikiteko eta, azkenean, itxi egin behar izan zuten.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiko Areatzea
meandroaren lehengoratzeko
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A

1.2 JARDUKETA

1.2.1 Lehengoratzeko prozesua

2017ko urrian, obra-hondarra kendutakoan, parte-hartze publikorako prozesua hasi zen, bai eta aurreproiektua lantzen ere, ingurumenean eragindako arazoari erantzuteko. 2018ko martxoan, proiektua bukatu zen eta, orduz geroztik, faseka lan egin da, dena 2020ko udaberrian bukatu den arte.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

- Hasieratik, herritarren parte-hartzea sustatu nahi izatea; hartara, diagnosi bat egin da esku-hartze plan bat egiteko, baina herritarrek aintzat harturik, eta ez, soilik, kanpoaldeko esparru teknikoa:
 - Eragileen diskurtsoak eta balorazioak identifikatzea.
 - Paisaia-unitateak, ibilbideak eta begiratokiak identifikatzea.
 - Lurraldearen erabilera sozialak identifikatzea.
 - Hobekuntza proposamenak bildu eta baloratzea.
 - Denen artean lekuaz gogoeta egitea eta espazio publiko gisa izan beharreko eginkizunaz.
 - Herritarren eta erakundearen arteko konfiantza hobetzea.
- Meandroa lehengoratzeko, haren uholde-izaera errespetatuta eta askotariko ekosistemen bizikidetzat sustatuta: ibaiertzeko basoa, hezeguneak, belardiak eta zuhaixka-komunitateak.
- Uholdean direnean, kalte arriskuak gutxitzea, lehentasunezko ur isuria libreago utzita eta ibaiertzeko basoa ibai bazterreko ibiltokian sustatuta, izan litezkeen higadura prozesuak murriztuta hala meandroan bertan, nola uretan gora.
- Erabilerak antolatu eta lekuaren harrera gaitasunarekin egokitzea, eta eremuak antolatzea, halako gradiente bat ezarrita pertsona ibilera txikiagoa behar duten habitaten eta erabilera handiagoko eremuen artean; erabilera handiagokoak, ingurumenarekin bat heldu diren jarduerak ludikoak eta zabalkundekoak egiteko.
- Bide bat moldatzea Argaren ezkerreko ibaiertzean meandroa eta Zokoa aldea lotzeko.



Meandroaren irudia, 1929an hartua.

1.2.3 Garatutako estrategiak

Balorazio soziala prozesuan txertatzea.
Jarduketa proposamena lekuaren bokazioarekin bat.
Instituzioen arteko lankidetzatza.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiko Areatzea
meandroaren lehengoratzeko
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Gaur egun, Areatzeko meandroa lehengoratu dago. 2017an, obra-hondarrak handik eramane eta, horri esker, lekuaren funtzionaltasun hidrologikoa lehengoratu zitzaion. Ondoko urteetan, lekuaren izaera naturala ere leheneratu da, bertako ekosistema potentzialak lehengoratu eta, are gehiago, ekosistema berri bat ere sortuta: hezegunea. Hezegunea lur betegarria egon zen urteetan hasi zen sortzen, idoi bat sortu baitzen berez, koartza eta zikoina aunitzen erakargarri. Ingurua lehengoratzeko lane-tan, idoiak finkatu eta handitu dira.

Prozesuaren ondorioz, hobetu egin da herritarren konfiantza instituzioekiko eta itxa-ropena ere ekarri du jende artera, ingurua Uharteko eta Iruñerriko bizilagunen erabilera ludikorako eta didaktikorako baliatzeko. Izan ere, lotura egin zaio Ibai Parkeko paseoarekin Zokoako zaldaineraino doan oinezkoendako bide berriaren bitartez.

1.4 OHARRAK

Lehengoratzeko denbora gehiago behar du, naturaren erritmoak, ziklo biologikoak eta landatutako guztiaren bilakaera errespetatu behar direlako, baina lehen urteotan lortu dena aurrerapen handia izan da benetan.

Ingurua hobetzen doan heinean, eta behin Zokoa aldeko irisgarritasuna konpondu den honetan, ingurumen-hezkuntzako jarduerak egin ahal izanen dira, hala nola hegaztiei eratzuna paratzeko jarduerak, Mancoeduca programaren baitan egiten dena, Berroa parajetik hurbil, eta Areatzeko idoietatik eta begiratokietatik osatu egin litekeena.

Epe labur eta erdira, Areatzeko meandroa lehengoratzeko dauka lehentasuna Uharteko Agenda 21eko Toki Ekintzarako Planaren barnean (6.2.1 ekintza). 2018ko abuztuan, lursailak Ibai Parkeari lagatzea onetsi zen. Hala Uharteko Udalak nola Iruñerriko Mankomunitateak konpromisoari eutsi diote Areatzea elkarlanean lehengoratzeko; beraz, espero da paisaia horrek egunez egun hobetze jarraitzea.



Meandroaren irudia, 1956an hartua.



Meandroaren irudia, 1998an hartua.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Areatzea lehengoratzearekin batera, espazio publiko berezi bat sortu da Uharterako. Inguruan maiz ibiltzen den jende askok parte hartuz eta engaiatuz planifikatu da meandroaren lehengoratzea eta lekua zabalkundean eta kudeaketan eragin deza-kete. Hasieratik beretik, prozesuaren sustatzaileak eta eragileak lehengoratze prozesu gardena gidatzen ahalegindu dira, kolektiboak eta herritarrei engaiamendu-rako gonbit eginez, inklusio eta genero-berdintasuneko irizpideekin bat, eta haien pertzepzioak eta balorazioak baloratuta.

Meandrea lehengoratze proiektua instituzioen eta herritarren arteko lankidetzazko bultzadaren emaitza izan da, espazio publiko hori planifikatzeko elkarren arteko proze-suan mamitu eta garatu dena, eta horrek eragin oso ona izan du garapen komunitarioan. Ingurumenari begira, larriki kalteturiko inguru bat lehengoratu da, eragin kaltegarri asko baitzeuden paisaian, hidrologian eta biodibertsitatean, inguru hura obra-hon-darrez bete baitzen, gizartean kontrako jarrera nabarmena eragin bazuen ere. Meandrea ingurumenaren aldetik lehengoratu izanaren garrantzia heriaz harata doa, eta ondorio onuragarri nabarmenak izan ditu Arga ibaiaren arroan. Horrela, mean-droaren funtzionaltasun hidrauliko lehengoratu ondoren, eta lehengoratze-proiektuan uholde-erregimenarekin bateragarriak diren erabilerak ezarrita (kontserbazioa, hez-kuntza, ludikoa, oso esku-hartze txikiak eginda), orain berriz ere da uholde-eremua urak handi datozenean eta, horren ondorioz, kalteak txikiagoak dira Iruñerriko beste leku batzuetan.

Lehengoratze-lanetan erabilitako teknikak eta materialak jasangarritasun arloko iriz-pideekin bat aukeratu dira, bai eta ingurua aintzat hartzeko eta errespetatzeko irizpideekin ere: bioingeniaritza, irtenbide iragazkorrak, meandroko landaretza poten-tzialari dagokion landarearen erabilera ondoko mantentze-lanak ahalik eta gehien gutxitzeko eta, era berean, natur ingurune-ko ekosistemetak landarediaren balioak hedatzeko eta haien inguruan sentsibilizatzeko.



2013ko uhaldiaren irudia.

Erabilera eta kudeaketa jasangarria, arduratsua eta eraginkorra bultzatzeko asmoz, erabilera publikoari buruzko gradiente bat aurreikusi da, meandroaren berezko bir-sortzea errespetatu eta sustatzeko. Uholde-eremuan, ekialdean bakarrik egin dira bideak Zokoako sarbidearen ondoan eta erdiguneko mesetarekiko loturan. Gainera, koa ez da hain irisgarri utzi, bertan bizi diren espezieak lasaiago egoteko. Belardien bukaeran, Huicio ubidea eta Arga ibaia elkartzen diren inguruan, zalduak hobetu dira eta idoirik erreserbatuenak eta naturalizatuak sortu dira. Idaien artean, laharrek eta beste zuhaixka-espezie batzuk haziko dira, idoi ertzetatik hurbil, eta barnealdean, landaretza urtarra garatuko da, hala nola *Iris pseudocorus*, *Sparganium erectum*, *Typha latifolia*, *Juncus* sp, *Cladium mariscus*... Lurra, enborrak, harriak eta landareak erabili dira faunarendako ezpondak eta aterpeak planifikatzeko, forma eta tamaina honetakoa eta hartakoa, espezie bakoitzaren beharren arabera (erletxoriak, uholde-enarak, martin arrantzaleak, bisoia,...). Erabilera publiko handiena ibilbideetan

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiko Areatzea
meandroaren lehengoratze
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiako Areatzea
meandroaren lehengoratzeko
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A

garatuko da, bai eta begiratoki eremu txikietan ere; eremu haietako batzuetan jolas naturalizatuak paratzeko asmoa dago, bai eta kirol zirkuituak ere. Banaketa oreka horren bidez, biodibertsitatea zaindu eta babestu nahi da, lekuak berez dituen natur balioekin bat eta, aldi berean, jarduera jakin batzuek egiteko modukoa, hala nola jendea ingurumenaren gainean sentsibilizatzeko eta hiri-biztanleriaren bizitza osasungarria eta jasangarritasuna sustatzeko.

Areatzeko meandroan badira ibaiertzeko hainbat ekosistema mota, hezeguneak eta naturaltasun maila handia. Orain, Uharteko gune berdeen sareaz bestelako espazio publikoa da, Ibai Parkeari eta Oihana mendiari erantsia (mendia tramitatzan ari den Ezkabako Eskualde Parkean sarturik dago). Eskualde mailako ibai eta mendi paisaia horiek hiri-bilbean sartu izana lagungarria da hiri-garapen integratzailerako, ikuspegi globala kontuan hartuta, kontzientzia sortuko duena eta jendea biodibertsitatea babestu eta zaintzeko balioetan heziko duena, hirian bertan eta hiriaren bidez.

Herriko historia eta kultura zabaltzeko dagokionez, bisitariak meandrorako erakartzea ona izanen da urari loturiko ingurune historiko hau hobeki ezagutzeko (baratzeak, errota) eta, hondatua badago ere, irindegiko ubidea eta instalazioak daude agerian.

2.1.2 Elkartegintza

Sustapena Uharteko Udalari dagokio. Proiektuaren idazketa eta dinamizazioa, berriz, Iruñerriko Mankomunitateari. Bi aldeek obrak koordinaziopean egin dituzte.

Uharteko Udalak ituna egitea eskatu zion Mankomunitateari, horrelako proiektuetan eskarmentua duelako, Ibai Parkea zaindu eta mantentzeko eskumena baitu. Hainbat urtetako lankidetzaren ondorioz, eta behin lehengoratzeko aurreraturik zegoela, 2018ko abuztuan, proiektuaren eraginpeko udal lursailak Ibai Parkeari lagatzeko erabaki zuten. Aldi berean, bi entitateek hasieratik beretik ireki zuten prozesua taldeei eta herritarrei, plangintza oparagoa egiteko eta publiko zabala haren erabilera eta kudeaketan inplikatzeko. Proiekturako diagnosirako eta proposamenak lantzeko lantegi-bileretan, Uharteko hainbat talde aritu ziren: guraso elkarteak, gazte elkarteak, emakume elkarteak, ingurumen arloko elkarteak, auzokide elkarteak, erretiratu elkarteak. Halaber, web bat jarri zen abian nahi zuen orok proposamenak egin zitzen.



Obra-hondakinak kentzeko lanak, 2017. urtea.

2.1.3 Jasangarritasuna

Oro har, prozesua gardentasunez egiteko estrategiari jarraituko zaio, herritarrei parte hartzeko aukera emanez eta proiektuaren nahiz obren zabalkundea eginez; gainera, kudeaketa tekniko hutsa baztertzen saiatu gara Areatzeko meandroari irtenbide ematerakoan.

Bestalde, fase bakoitzean, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) aintzat hartzea eta betetzea bermatu da zeharkakotasunez, eta bereziki, Hiri Agenda Berriko helburuak, lagungarriak baitira ingurumena eta gizartea errespetatzen dituzten bizimoldea planifikatzeko.

Meandroa lehengoratzeko proiektatu diren ekintzak 15. GJHren zehaztapenekin datoz bat bereziki, hau da, Lurreko ekosistemak babestu, lehengoratu eta jasangarritasunez kudeatu eta erabiltzearekin. Horren haritik, Areatzean hainbat mailan ari da biodibertsitatea sustatzen. Zehazki, tuparria botatzearen ondorioz degradatutako lurzoruen birsortzea planifikatu da. Natur habitata lehengoratzen ari dira (ibaiertzeko basoa, belardi zabalgarriak uholde-eremuan, eta zuhaixka-komunitateak uharteko ezpondetan). Hezegune ekosistema berria sortu da, lehenago ez zegoena, han bota



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiko Areatzea
meandroaren lehengoratze
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A

ziren tuparrien tankera iragazgaitza aprobetxatuta; horrek, izan ere, idoia sortzea ahalbidetzen du, oso egokiak anfibioak, odonatoak eta hegazti bereziak bizitzeko. Gainera, espezie mehatxatuak babesteko irizpideei jarraikiz diseinatu da gunea (bisoi europarra, bertako karramarroa, besteak beste).

16.GJHrekin bat, erakunde parte-hartzaileek beharrezkoak diren gardentasuna, ardura eta espazio publikoaren kudeatzaile rola sendotzen dute prozesuaren bidez, ingurumen eta gizarte arloko balioekiko garapen jasangarri sentiberaren baitan.

Gainera, 12.GJHan ezarritako gogoeta batzuk sendotu dira; batez ere, jendea sentibilizatzea eta haien artean zabaltzea naturarekin bat eta harmoniaz bizi beharra. Paradoxikoki, harmonia hori kontraktik abiatzen den prozesu baten bitartez sustatzen da, meandroaren erabilera ez-jasangarri batetik, baina zorionez lehengoratzen ari dena, iraganeko okerrak irakasbide bihurtuta. Horren haritik, Areatzean eginen diren ingurumen-hezkuntzako jarduerak oso garrantzitsuak dira.

Areatzeako meandroa lehengoratzeak sinergia berezia dauka 11. GJHrekin, hau da, hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea erdiestearekin, bai eta Hiri Agenda Berriarekin ere, haren helburu nagusia baita herritarren parte-hartzea eta elkarlana sartzeko, edota inklusioa eta genero berdintasuna txertatzea, kokagune bakoitza sistema zabalago batean sarturik dagoela aintzat hartzea (muga administratiboetatik haratago), jasangarritasun politikak egitea, arriskuak eta hondamendiak ahalik eta gehien gutxitzea eta ekosistemak babestea. Areatzean zabaldu den prozesua lagungarria da bere eskala txikian balio horiek guztiak sustatzeko, betiere herritarrek kontuan hartuta, tokiko eta eskualdeko lankidetzak mailan lan eginda, eraginpeko habitata lehengoratuta, eta uholdeen kalteak txikiak egiten lagunduta.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Areatzea lehengoratzearen ondorioz, elkarrenganako konfiantza hobetu da gizartearen, gauzak hobetuko diren itxaropenarekin. Urte sail luzean zeinen gaizki zegoen ikusita



Sarbide berria: Zokoako zaldainetik doan bidea.

eta irtenbidea emateko zailtasuna kontuan hartuta, jendeak gero eta itxaropen gutxiago zuen lekua lehengoratzeko eta giro ezezkorra zen nagusi.

Hasieratik beretik, ordea, parte-hartze publikoari ireki zaio bidea eta, horri esker, hobe izan da lekua lehengoratzeko proiektua, instituzioek eta gizarte-eragileek erkatua. Gainera, oso erabilgarria da herritarrek engaiatzeko eta, era berean, herritarrengan oinarriturik, meandroa ingurumenari begira zaintzeko eta haren zabal-kundea egiteko.

Eztabaida pedagogiko bat eragin zen, hau da, zer komeni zen egitea eta zer ez, era bilera publikoaren eta meandroaren berezko lehengoratzearen arteko oreka nola lortu taxutzeko. Parte-hartzaile batzuek ekintza tinkoagoak espero zituzten, hala nola hiri-gintza arloko ekintzak kirol instalazioak ezartzeko. Beste batzuek, berriz, dena



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiako Areatzea
meandroaren lehengoratzeko
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A

erreserba gisa uztearen aldeko jarrera agertu zuten, jendeari sarrera galarazita. Adostasun bidea sortu eta halako plan hibrido bat taxutu zen, bazterrak berez lehengoratzeko, baina bateragarria maila apaleko erabilera publikoarekin eta eremuz eremu graduatua.

Horrela, hiru lan ildori lotutako 27 proposamen jaso ziren: inguruaren naturalizazioa (18), kirol erabilera (6) –bizikleta bideak, gehienbat– eta jolas eremu naturalak egitea (3). Partaidetzazko prozesuan egindako dinamikek ekarpenak denen artean baloratzeko aukera eman zuten eta, horri esker, argiago ulertu zen zergatik jarduketa jakin batzuk bideragarriak ziren edo ez legearen edo ekonomiaren ikuspuntutik edo ikuspuntu teknikitik.

Hemendik aitzina, behin lekua lehengoratzeko prozesua aurreratua dagoen honetan, gizarteari irekia dago Areatzeko meandroa erabili eta gozatu dezan. Bestelako lekua da Uharten, galsoroetatik, irindegitik eta bertako ubidetik hurbil, zertarako eta egurasteko, jostatzeko, ariketa egiteko, eta ibaiertzeko zuhaitzak, hezeguneak eta belardiak ikusteko, eta landareak, loreak, koartzak, zikoinak, ahateak eta beste hiri-ingurune batean gozatzeko.

Bizipen horiek guztiak, hots, bai lekua lehengoratzeko prozesukoak, nola aurrerantzean sortuko direnak, lagungarriak dira naturak duen balioa txertatzeko bai parametro politikoetan, bai komunitatearen hiri-garapenean.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Irizpide jakin batzuk erabili ziren taldeak partaidetzazko prozesurako aukeratzeko: inklusioa eta genero berdintasuna; hori guztia, Udaleko berdintasun eta kultur arloko teknikarien eskutik, egunerokoan Uharteko jendeararekin lan egiten dutelako. Gainera, hedaduraz, herritar guztiei ireki zitzairen, herriko eta Nafarroako hedabideetan argitaratutako albisteen bidez eta kontaktuan jartzeko egindako webaren bidez.

Bereziki, hainbat talderengana jo zen: emakume taldeak, adin tarte ezberdineko taldeak, hots, erretiratu elkarteak, gazte elkarteak, guraso elkarteak (nolabait, haurren beharrak jakinarazten dituztenak); eta gaiei dagokienez, ordezkaritza izan zuten natura, kultura, hezkuntza eta auzokide arloko elkarteak.



Krainer horma eraikitzea. Ibaiertza lehengoratzeko.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiako Areatzea
meandroaren lehengoratzeko
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Aurrekariak guztiz eztabaidagarriak izan ziren zinez, kalte larria eragin baitzitzaion meandroari. Horrela, funtsezkoa izan da lekua lehengoratzeko prozesua irtenbide teknikora soilik ez mugatzea, baizik eta gizarteak bere iritzia ematea paisaia horren gainean eta, horrekin batera, informazioa ematea eta proiektua irekitzea. Areatzeko meandroak ez zekarren soilik ingurumeneko arazo bat, baita politikoa eta soziala ere. Uharteko Udalak lursaila erosi zuenetik, bost alkate izan dira herrian. 2004an baimen-dutako lur betegarria behin-behineko izanen zen, eskualdeko obra-hondakindegia itxita baitzeuden. Hitzartutako bolumena gaintitu eta kalte are larriagoa izan zen. Gizartearen haserrea hainbat protesta eta salaketaren bitartez agertu zen. Azkenean, eta hamasei urteko gorabeheren ondotik, 2017an lekua lehengoratzeko lanak hasi ziren.

Partaidetza-prozesuak lekua lehengoratzeko proposamen bat adostea ahalbidetu du, ikuspegi teknikoa parte-hartzaileen ikuspegiekin eta proposamenekin orekatzeko. Zenbait aldiz, herritarrek beren bermea eta zorion mezuak helarazi dituzte sekulan kalterik jaso behar ez zuen meandro hori lehengoratzeko lanak egiteagatik. Bestalde, entitateen arteko ituna, udal mugak gaintituta, eta ibaiaren ikuspegia kontuan hartuta, Iruñerriko Mankomunitatea prozesuan sartu zenez geroztik, lurralde mailan txertatu du inguru hori.

Zalantzarik gabe, prozesuaren bereizgarria hari ekiteko modua izan da, hau da, lan-kidetza eta gardentasunez, eta irtenbide jasagarri bat bilatu nahian, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari begira.



Zaldaina Huiciko ubidearen, bideen, ereintzen eta landaketa-sailen gainean. 2020ko apirila.

2.2.4 Transferentziak

Prozesua berez izan da aldaketa Areatzeko meandroaren inguruko udal politikan eta praktikan. Izan ere, kaltea eragindako eta giro suminduko urteen ondotik, bestelako estrategia erabiltzea izan da kontua, lekua gardentasunez eta herritarrekin elkarlanean lehengoratzen saiatzeko.

Plangintza fasea hasi zenetik, partaidetza prozesuak izugarri landu du komunikazioa. Ekitaldiak eta albisteak udalaren webean berean eta herriko aldizkarian argitaratu dira, eta albisteak hedabide erregionaletara ere bidali dira, jendeari informazioa emateko eta eragiteko, parte-hartzera gonbidatze aldera. Ekintzak, proposamenak eta lekua lehengoratzeko lanen proiekturako aintzat hartu izana, den-dena, partaidetza-prozesuari buruzko txostenean bildu da, egin den oro herritarrei jakinarazteko.

Lekua birsortzen den neurrian, ildo berari eustea espero da, herritarrak lekuaren erabilera eta kudeaketan inplikatzeko. Meandroaren jasagarritasunari eta iraunkortasunari dagokienez, berme handia izan da Uharteko Udalaren eta Mankomunitatearen arteko ituna. Hala udal nola eskualde mailan, lekua Uharteko espazio publiko gisa mantendu, zaindu, kontserbatu eta finantzatu dadin begiratzen da, eta dagoeneko, Ibai Parkean sarturik dago.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Natura lehengoratzeko gaitasuna. Uholde bakoitzarekin batera, lurzorua aberasten da mantenugai eta hazietan.
- Iraunkortasun bermea. Uharteko Udala engaiatua da eta lekua Iruñerriko Ibai Parkean sartua da, Mankomunitateak kudeatua. Beraz, ziurtatua dago meandroak denboran iraunen duela.
- Irisgarritasun ona dauka bai Uharte aldetik, bai Ibai Parketik.
- Beheko aldean, hainbat idoi sortu dira berez, betegarria botatzean erabilitako tuparrien iragazgaitasunaren ondorioz. Abiaturu ona dira hezegune txikiak sortzeko eta, are gehiago, dagoeneko maiz erabiltzen dituzte koartzek eta zikoinek atsedean hartzeko edo beren migrazio-mugimenduetan pasatzeko.
- Badago meseta-uharte goratu bat paisaiaren begiratoki gisa ibai alderantz, uholde-eremurantz, inguruko herrietarantz eta Iruñerriko mendietarantz.
- Urrun dago herriko etxeetatik eta, gainera, meandro naturalizatua era askotako txokoak daude. Beraz, hainbat espezie hartu eta babesteko lekua izan daiteke: igaraba, bisoi europarra, bertako karramarroa edota ibai habitatari lotutako beste espezie batzuk. Gainera, baso eremuek eta idoei era askotako hegaztiak, anfibioak, lepidopteroak eta odonatoak erakarri eta babestuko dituzte.

3.1.2 Aukerak

- Uharteko espazio publikoen eta berdeguneen sarea dibertsifikatzea, ibai- eta hezegune-eremu bat gehituta.
- Meandro hori Mancoeduca hezkuntza-programan sartzea; izan ere, eskualdeko ibai-parkeko beste eremu batzuetako jarduerak barne hartzen ditu. Areatzean ingurumen-hezkuntzako proposamenak egin daitezke, lehengoratzeko-prozesuei, uholde-arriskuari eta hezeguneei lotuta.
- Uholdeetatik babestea, haien eragina minimizatuta.

- Erabileran eta kontserbazioan inplikaturako kolektiboen eta herritarren talde bat sortzea.
- Herritarren artean ingurumen-kontzientzia sortzeko aukera, hiriguneen garapenean izandako paradigma-aldaketan eragin onuragarria izan dezan, ingurumenak balioa hartuta.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Proiektua sustatzen eta dinamizatzen duten erakundeetako kargu politiko ardurasun behin-behinekotasuna; izan ere, hauteskundeetan, hautetsien aldaketa gerta liteke, eta horrek ekimenaren kudeaketan eragina izan dezake.
- Betelanean erabili ziren tuparri grisak mantendu diren eremua landareztatze zailtasuna. Lurzoru eta landaretza egokituaren medeapen garestiak behar ditu.

3.2.2 Mehatxuak

- Antzinako irindegiaren finka mugakidearen egungo abandonu-egoera. Balizko bandalismo-gunea, okupazioa, etab.
- Jarduketetan kalteak izateko arriskua, espero diren aldizkako uholdeen ondorioz. Landarea gal daiteke, gutxieneko maila batean finkatu arte; urek ere bideetako materiala eraman dezakete; beraz, berriro eta mantendu beharko da, etab.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2017	2018	2019	2020	GUZTIRA
Iruñerriko Mank.	4.792	25.817	69.983		100.591
Uharteko Udala				78.417	78.417
GUZTIRA					179.008

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Arga ibaiko Areatzea
meandroaren lehengoratzeko
hidraulikoa eta
ingurumenari nahiz
paisaiari begira (Uharte).
Iruñerria**

IRUÑERRRIKO
MANKOMUNITATEA /
IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, S.A



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

**“Convivium Yesa 2019”: Komunitatean osasunez,
sormenez eta berdintasunez bizitzeko bilerak**

ESAKO UDALA



Esako
Udala





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

“Convivium Yesa 2019”: Komunitatean osasunez, sormenez eta berdintasunez bizitzeko bilerak

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Ekimenak udal eskalan egin dira

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Esa, Zangozako Merindadea

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Esako Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2019/01/01**

Bukaera: **2019/11/30**

Beste data interesgarri batzuk:

Urtarrila-maiatz: Yoga.

Martxoa: inauteriak eta Ostegun Gizona. Emakume Langilearen Eguna.

Apirila: izarren gaua eta suzirien tailerra.

Ekaina: San Joan gaua. Klima-aldaketaren aurkako eragileak. Ingurumen auzolana.

Uztaila: zezensuzko tailerra.

Abuztua: saltsa, batxata eta merenge tailerra. Musika gure harrietan. Herrixk Baskoia emanaldia. Joaldunen zeramikari buruzko tailerra.

Iraila: artea eta Aisia Esan. Halloween prestatzeko tailerrak. Estresa kudeatzen ikasteko ikastaroa.

Urria: Halloween gaua. Omenaldia Esako emakume adinekoei. Emakumea eta Landa ingurua, Landa Eremuko Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Urria-azaroa: dantza tradizionalen tailerra.

Urria-abendua: yoga.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**“Convivium Yesa 2019”:
Komunitatean osasunez,
sormenez eta
berdintasunez bizitzeko
bilerak**

ESAKO UDALA

HARREMANA:

Roberto Martínez Luyando (alkatea)

René Petit k., 9
31410 Nafarroa

Tel: 948 88 40 15 / 626 49 42 29

E-Mail: alcaldia@yesa.es

www.yesa.es





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Egoera sozialaren eta ekonomikoaren deskribapena

Azken urteotan herrian bizi izan diren gorabeherak (autobia egitea, Esako urtegia handitzeko lanak, eskuineko mendi-hegala Aragoi ibaiaren gainean labantzea, etxebizitzak hustu behar izatea eta, ondoren, bi urbanizazio botatzea – gure herrian lehen edo bigarren bizilekua zuten 200 pertsona baino gehiago “desagertzea” –, errepide orokorra aldi baterako ixtea, herriaren irudi publikoa – Zigortua –, “Esa ez” ekimenaren kanpainaren kontsignek eta kanpainen zigortua), eragina izan dute gizarte-harremanetan eta Esako auzokideen arteko bizikidetzan. Tentsioek luzaroegi

iraun dute, eta, poliki-poliki, jendearen arteko harremanak murrizten joan dira. Espazioak eta jarduerak partekatzeko uneak murriztu ziren. Horrenbestez, herriko elkarbizitzak okerrera egin zuen, egokieran eta kalitatean.

Horri lotutako gizarte arazoa

Esan, bai arduradun politikoei bai pertsonen sentitzen zituzten gabezia eta behar horiek eragina zuten herriko gizarte-kohesioan: azturak, ohiturak, praktikak, jokabideak. Horiek oro aspaldi sortu ziren, astiro, eta ezin dira bat-batean eraldatu, baina esku hartu beharra dago, ez baitira berez desagertzen.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**“Convivium Yesa 2019”:
Komunitatean osasunez,
sormenez eta
berdintasunez bizitzeko
bilerak**

ESAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**“Convivium Yesa 2019”:
Komunitatean osasunez,
sormenez eta
berdintasunez bizitzeko
bilerak**

ESAKO UDALA

Egoera horien aurrean desilusioak, giro tenkatuak eta kohesio sozialaren galerak halako isolamendu eta indibidualizazio giroa sortu zuten. Izan ere, baziren herrian bizi nahi zuten baina aisialdi sortzailerako aukerarik aurkitzen ez zuten pertsonak; oraindik ere bigarren etxebizitzarik zuen jendea gutxi etortzen zen herrira, gero eta gutxiago, ez zegoelako jarduerarik; batzuk serio hartzen hasi ziren Esatik betiko alde egiteko aukera; pertsona batzuek Ebroko Konfederazio Hidrografikoari daude lan arloan lotuta, eta beste batzuk, berriz, beren lan eta gizarte ingurunea mehatxupean eta arriskuan ikusten dute eta, gatazketan sartu aurretik, nahiago dute inorekin ez elkartzeara.

Proiektuaren bidez landu den erronka

Gizarte kohesiorik eta integrazioz ezak eguneroko bizikidetzak kaltetzen du eta luzera, herri gisako ikuspegi partekatua eragotzi dezake, bai eta elkarrekin Guzión Ongiaren alde lan egitea ere.

1.2 JARDUKETA

Kontzeptu orokor batetik abiatu ginen, hots, “Convivium” zehaztuz. Horrek festa-ospakizuna-bilera zekarren berekin. Bada, hortik abiatuz, BIZIKIDETZARAKO proiektu bat landu zen Esako bizilagunendako. Abiaturuko hipotesiaren arabera, Esako bizikidetzak era askotako pertsonak behar zituela: aukerak, denbora eta argudioak hala elkar topatzeko nola partekatze, gizakien arteko sozializazioa eta harremanak behar-beharrezkoak baitira pertsonaren eta haren inguruko osasun mentalerako eta osotasun fisikorako; funtsezkoa da gizabanakoaren oreka lortzeko eta bere bizitzan, lanean eta gizartean ongi moldatzeko.

Gizartean zegoen ezinegon hori bideratzeko bideen bila, Esako Udalak bat egin zuen OMEren “adinekoentzako hiri eta komunitate lagunkoiak” programarekin; eta, harrezkero, prebentziozko eta sustapeneko esku-hartze bat egin da (eskuragarri dauden udal-baliabideekin), izaera integratzailearekin, gizarte-egoera eta bizilagunen arteko harreman-giroa aldatzeko asmoz, eta, azken batean, gizartea eta herritarak aldatzeko xede eraldatzailearekin, betiere elkarrekin partekatzea eta ikastera bideratutako jar-

dueretatik abiatuta. Testuinguru horretan kokatu zen, hain zuzen, “Convivium Esa 2019” proposamena. Zehazki, esku-hartze sozialeko proiektu gisa planteatu zen hiru ardatzetan oinarriturik:

- Bizitza osasungarria programa.
- Sormena eta lurdimena Programa.
- Berdintasun Programa.

Ekimena ezartze aldera, hasieratik beretik asmo hau proposatu zen: egin beharreko jarduerak parte-hartzaileekin adostu behar ziren, eta edukietan, eragingarriak, belau-naldien artekoak eta malguak izan behar zuten. Baina, batez ere, metodologian parte hartzeko modukoak; izan ere, esku-hartzeak gizarte-eragina eta gizarte-harremanaren eta bizikidetzaren tokiko dinamiketan eragina izan zezan, gako partaidetzan zegoen eta egon zen... jendearen parte-hartzerik gabe ez zen inoiz “hobeki bizitzeko bilerarik” egiten, proposamenak ez zuen arrakastarik izanen: elkarrekin egiteko jarduerak sortzea jendea ohitura eta azturetan prestatzeko, pertsona horiek Esako bizitzaren eragile izan daitezen.

1.2.1 Prozesua

Nola sortu zen ekimena?

Egoera hori pixka bat aldatzeko asmoz, Esako Udalak, 2018an, “Jarrera, pentsamendu eta praktika osasungarriak” programa bultzatu zuen. Toki-erakundeak esku-hartze prebentibo eta sustatzaile bat planteatu zuen, izaera integratzailearekin, gizarte-egoera eta bizilagunen arteko harreman-giroa aldatzeko benetako asmoarekin, eta, azken buruan, herritarren errealitate kolektiboa eta indibiduala eraldatzeko asmoz, osasun-ohiturak elkarrekin partekatzea eta ikastera bideratutako jardueretatik abiatuta. Proposamen horiei 180 lagunek baino gehiagok erantzun zieten (biztanleria errolatuari dagokionez, partaidetza-maila oso esanguratsua zen, errolatutako jendearen % 60 baitzen). Parte-hartze maila hori kontuan hartuta eta bertaraturakoen eta parte-hartzaileen poz handia ikusita, Udalak lan ildo hori bera 2019an lantzea erabaki zuen.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**“Convivium Yesa 2019”:
Komunitatean osasunez,
sormenez eta
berdintasunez bizitzeko
bilerak**

ESAKO UDALA

Nork pentsatu eta diseinatu zuen?

Alkateak, udalbatzako gainerako kideek eta Zangozerriko Cederna Garalurreko Enplegu eta Garapen arloko agenteak.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Esako Udalarentzat, gizarte-kohesio handiagoa, bizikidetza hobetzea eta gizarte-harreman positiboak areagotzea lortzeko, bi asmo mota planteatu behar dira:

- Ekintzak eta jarduerak eginez, GIZARTERATZE-MAILA zabalak lortzea: pertsonak ez daude burbuila batean, beste pertsona batzuekin harremanetan bizi dira eta, ongi egoteko, orekan egon behar dute; beraz, proposatutako jarduerak pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzen laguntzera bideratu behar dira, banaka eta taldeka; desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzera; gizartearen bazterturik gelditzeko arriskuan diren eta desberdinkeria sozialaren arriskuan diren pertsonak tokiko bizitzan era aktiboan sartzea, eta oro har, Esan dauden pertsonen gizarte harremanak hobetzea.
- GOBERNANTZAN lan egitea: bizikidetza, parte-hartzea eta berdintasuna ez dira soilik Udalarendako helburuak; guztiek ikasi, bizi eta praktikatu behar dituzte; horretarako, herritarrak jardueren kudeaketan engaiatzea bultzatuko duten lan-metodoak behar dira.

Asmo horiek, aldi berean, bi helburu motatan islatzen dira:

A. Proiektu hau gauzatzeko moduari buruzkoak, eta helburu hauek dituztenak:

- Tokiko gobernantza eta kalitate demokratikoa hobetzea, eta horretarako, behar diren ekintzak sustatzea, proiektu honetan jasotako jarduerak eta ekintzak onartzearekin eta gauzatzearekin lotutako erabakietan herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzeko.
- Herritarrak indartzea eta inplikatzeko, bai tokiko arazoren baten diagnosia egiteko, bai arazoendako irtenbideak lantzeko.
- Inklusio- eta berdintasun-mailak handitzea, inplikaturako eragile nagusiak barne hartuta eta tokiko bizitzan parte hartzeko gaitasunak sustatuta.
- Belaunaldien arteko lankidetzak sustatzea.



- Herritarrak hezte, sentsibilizatzea, gaitzea eta informatzea gauza hauen alde: parte-hartzea, berdintasuna, ezagutza eta tokiko nortasunarekiko errespetua, bizikidetza eta pertsonen ongizatea.

B. Proiektuaren edukiei dagozkienak, ezarri beharreko jarduera eta ekintzei dagozkienak, oro har helburu hauek dituztenak:

- 2018an hasitako lanarekin jarraitzea, gizarte-ongizatea lortzeko eta bizilagunen bizi-kalitatea bermatzeko, betiere bizikidetzarako, partaidetzarako eta gizarte-harremanetarako guneak eta uneak sustatuz, PARTEKATZE ALDERA.
- Ikaskuntzan lortutako lorpenak sendotzea, osasuntsuago bizitzeko eta bilera – topaketa parte-hartzaile berriak sortzea gure herria irudimenez, sormenez eta berdintasunez bizitzeko eta elkarbizitzeko.

Ekimen honetan, zehatzago, asmo horiek hiru helburu zehatzetan islatu ziren:

- **OSASUNA ETA ONGIZATEA hobetzea:** sozializazio-baldintza egokiak sortzea, parte-hartzaileek osasun hobia izateko lekuak eta denborak partekatu ditzate, umorea eta gogo-alderia hobetzeko, ongizate-sentsazioa eta gaitasun kognitiboak areagotzeko, autoestimua handitzeko, estresa murrizteko, zahartzaroaren narria-fisiko eta mentalari aurre egiteko, etab.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**“Convivium Yesa 2019”:
Komunitatean osasunez,
sormenez eta
berdintasunez bizitzeko
bilerak**

ESAKO UDALA

- **SORMENA eta IRUDIMENA sustatzea;** hau da, hurrenez hurren, inguratzen gaituen mundua beste era batera ikusteko gaitasuna, eta ideia, proiektu edo sorkuntza berritzaileak ulertzeko gaitasuna sustatzea. Horretarako, jarduerak eta proposamenak sortzea, Esak komunitate gisa duen kulturari, ondareari, paisaiari, historiari... aplikatzeko.
- **BERDINTASUNEAN haztea:** herritarren eginkizun aktiboa sustatzea, identitate-eredu tolerantean, demokratikoan eta solidarioan oinarritutako gizarte baten eraikuntzan; eta horretarako, gatazkak konpontzeko eta gizarte-harreman positiboak sendotzeko trebetasunak emango dizkieten hezkuntza- eta gizarte-komunikazioko jarduerak sustatzea; bereziki emakumeei eta adinekoei.

1.2.3 Garatutako estrategiak

Arestian aipatu den bezala, garatu diren bi estrategia nagusiak bizilagunen integrazioan eta kohesio sozialean aurrera egitera bideratu ziren; gobernantza parte-hartzaileko prozesuetan oinarritutako udal-kudeaketaren bidez, eta era hone-tako proposatu ziren jarduerak sustatuta:

- Belaunaldien artekoak, adin eta publiko guztientzat.
 - Diziiplina anitzak, proposamenak dibertsifikatuta, pertsona, interes eta gustu guztiei arreta emateko moduan.
 - Irekia eta parte-hartzailea: bizilagunek hasitako dinamikak baliatu eta sustatu ziren, bai jarduerak antolatzeko, bai herritarren inplikazio handiena lortzeko.
- Parte-hartzea izan zen “Convivium Yesa 2019” proiektuaren funtsa, bai eta inplikatu-tako pertsona guztien ikaskuntza nagusia ere; izan ere, haiek, bizi izandako esperientziaren ondorioz, emaitza nagusitzat jotzen dute, ez hainbeste bertaratuta-koen kopurua publiko gisa edo parte-hartzaile gisa, baizik eta, batez ere, azken diseinuan, erabakietan eta proposamenak gauzatzean inplikatzeko aukera. Horren haritik, hasiera batean, Udalak zenbait jarduera proposatu zituen, eta bizikideekin hitz egitean, egokitu ziren.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Esperientziaren, ikaskuntzaren eta metatutako emaitzen ondoren, 2020an, Esako Udalak beste urrats bat eman nahi du tokiko gobernantza eta kalitate demokratikoa hobetzeko. Horretarako, lotutako erabakiak hartzean herritarren parte-hartze aktiboa bultzatuko duten ekintzak sustatuko ditu, herritarrek, tokiko talde eta kolektiboek, enpresek eta udalak elkarrekin bizikidetza-proiektu berri batean lan egiteko espazioak, tresnak eta formulak bilatzeko. Horregatik, 2019aren amaieran, Batzorde Mistoa sortzea proposatu zuen, udal kideek, enpresaburuen ordezkariak eta auzo-taldeek (formalak eta informalak) osaturik, betiere Cederna Garalurren laguntza teknikoarekin, proiektu berri baten fase guztiak lantze aldera. Hona hemen:

1. Proposamenak eta jarduerak diseinatzea + plangintza.
2. Erabakiak hartzea.
3. Proposamenak eta jarduerak garatzea.
4. Bizilagunen motibazioa, proposatutako bizikidetza- eta topaketa-jardueretan parte hartzeko.
5. Egindakoari buruzko hausnarketa eta ebaluazioa: helburuak, kostu/emaitza erlazioa, bizilagunen asebetetze-maila, antolaketa zailtasunak (Batzordearen funtzionamendu-a, etab.).

1.4 OHARRAK

Nafarroako Gobernuak Jardunbide Egokietako lehiaketa honetan esperientzia hau saritzen badu, Esako Udalak sariaren zenbateko guztia xede berberera bideratuko luke, hau da, jarduerak berriak sortzera, bizikidetza hobea sustatzen laguntzeko eta, halaber, komunitatean kide izatearen sentimendu partekatua sendotzen laguntzeko.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

“Convivium Yesa 2019”: Komunitatea osasunez, sormenez eta berdintasunez bizitzeko bilerak.

Gizarteak erabateko erantzun ona eman zuen, espero ez zena.

- 9 jarduera aurreikusi ziren.
- 20 jarduera egin ziren.

Herritarren parte-hartze/laguntza maila oso altua izan zen:

- Sormen eta irudimen programa: 594 lagun.
- Berdintasun-programa: 202 langile.
- Osasun programa: 206 pertsona.

Parte hartzea, guztira, “Convivium Yesa 2019” ekimenean: 1.002 lagun.

2.1.2 Elkartegintza

Convivium 2019k aliantzak ezartzea lortu zuen Udalaren eta tokiko taldeen artean; baina benetan esanguratsua da pizgarri gisa balio izan zuela elkarte eta kolektibo horiek loturak ezartzen hasteko eta haien artean proiektu partekatatuak sortzeko. Horrenbestez, 2020ko urtarrilean, Jarduera eta Jaietarako Batzorde Misto bat eratu zen, udal-ordezkariek eta talde guztietako ordezkariak osatua (herriko talde formalak eta informalak).

2.1.3 Jasangarritasuna

Aurreikusitako jarduketak izaera integrala du. Horregatik, Agenda 2030en ezarritako Garapen Jasangarriko Helburu batzuekin bat heldu da:

- Bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea adin guztietako jende guztiarendako.



- Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea, eta etengabeko ikas-kuntzarako aukerak sustatzea guztientzat.
- Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neska guztiak ahalduztzea.
- Hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzea.
- Garapen jasangarriko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, justiziarako sarbidea erraztea jende guztiarentzat eta erakunde eraginkor, arduratsu eta inklusiboak sortzea maila guztietan.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**“Convivium Yesa 2019”:
Komunitatean osasunez,
sormenez eta
berdintasunez bizitzeko
bilerak**

ESAKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Parte-hartzea funtsezkoa izan da, ez bakarrik proiektua arrakastatsua izan zedin, baizik eta errealtatea izan zedin... Jendeak parte hartzen ez badu, ez da “hobeki bizitzeko bilerarik” eginen, eta ez dira jarduerak elkarrekin eginen, jendea Esako bizitzaren parte aktibo izateko ohitura eta jokabideetan prestatzeko. “Convivium Yesa” proiektuaren funtsa parte-hartzea zen. Gainera, laguntza hutsa baino askoz ere inplikazio handiagoa izatera animatu eta lortu zen. Parte-hartzaileek iritzia eman, iradoki, aldatu eta jarduera berriak sustatu ahal izan dituzte, eta ekimenaren azken edukia denen artean antolatu da (tokiko erakundea, teknikariak eta parte-hartzaileak).

Udalak –tokiko gizarte politika gisa– uste zuen, eta uste da, ezin dela Esako bizilagunen arteko bizikidetzaren kalitatea hobetu eta areagotu, pertsonak, jarduera-proposamen honetan inplikatzeari gain, ez badira engaiatzen (batez ere) etorkizuneko partaidetzan ikasi, landu eta gauzatzeko ekintzetan, bizikidetzaren hobe eta Esako ondasun komuna lortzen lagunduko dutenak. Eta, horren haritik, saiatu egin da parte-hartzaileak, bertaratzeaz gain, prozesuko aktoreak izan zitezen, konpromisoa har zezaten eta erantzukizunak har zituzten.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna da programa honen lan-ardatz eta edukietako bat. Horrekin batera, ekitatea, hau da, “Pertsona bati beste bati kalte egin ez tratatu hobe ez ematea”; hori eskakizun moral eta legal gisa bizi izan da proiektu honetan, bereziki bi une zehatzetan:

- Herritarrek jardueretan parte hartzeko unea (informazioa, izen-emateak, ordutegiak, etab.), proposamenetara joan ahal izateko eta horietan aktiboki parte hartzeko aukera berdina izate aldera.

- programa gauzatzeko kontratatutako pertsonaren aukerategia; artistak eta jardueretarako begiraleak hautatzea.

Horren haritik, funtsean, ekimen hau molde inklusiboan sortu eta hazi egin zen. Gizarteratzeko eta gizartearen kohesioa proposamen bat zen, zertarako eta elkarrekin, elkarbizitzarako eta partaidetzarako uneak sortu nahi zituen, jende-kolektibo guztiei zuzenduta, bazterketarik gabe.

Ez da neurri berezirik hartu egoera ahulean dauden kolektiboak sartzeko; izan ere, hasieratik beretik, proiektu honen helburua da Esan dauden edo bizi diren pertsona guztiak engaiatzea izan da, adinean, sexuan, egoera fisikoan nahiz mentalean inolako bereizketarik egin gabe.

Gizarteratzea abiapuntutzat hartu zen, horixe baita gizartearen babesteko sistema egoki bat jende guztiarentzako segurtasuna eta laguntza bermatzeko, kalteberatasunaren aurrean, edota arrisku, egoera edo premia berariazkoen aurrean. Horren haritik, Udala arduratu zen inor bazterrean ez uzteaz “Convivium Yesa” ekimeneko jardueretan, bereziki Esan diren egoeren ondorioz, hala nola adineko jendea, gaixotasuna, autonomia pertsonalik eza, droga-menpekotasuna, zailtasun ekonomikoak edo isolamendua, besteak beste.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

“Convivium Yesa 2020” ekimenaren estrategia sinple batean oinarritu zen: gizarteratzea lortzea, adin ezberdinetako bizilagunen arteko ekintza bateratuak sustatuz, hainbat kezka, hainbat gustu eta interes dituztenak, bizilagunen arteko harremanak hobetzeko, herritarrek tokiko gaitan inplikatzeko, pertsonen gogobetetzea, ongizatea eta harmonia sortuko zituzten egoera, une eta esperientzia partekatuetan oinarrituta. “Elkarrekin gauzak hobeki eginez gero, hobeki sentitzen bagara”, baliteke pertsona horiek beste gai batzuetan, herriaren bizitzan, parte hartzen jarraitzea animatzea eta auzokideen eta kolektiboen arteko kohesioa nahiz integrazioa areagotzea.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

“Convivium Yesa 2019”: Komunitatearen osasunez, sormenez eta berdintasunez bizitzeko bilera

ESAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

“Convivium Yesa 2019”: Komunitatean osasunez, sormenez eta berdintasunez bizitzeko bilerak

ESAKO UDALA

Berrikuntza –tokian-tokian behintzat– honetan datza: pertsonalki aberasten duten jarduerak + beste pertsona batzuekin batera egindakoak → hobeki bizitzeko bilerak → tokiko egoeretan aplikatzeko aukera, guztiei eragiten dieten beste gai batzuk proposatuz, eginez eta haietan lagunduz.

Proiektu honen originaltasuna gai orokorrean dago:

BIZIKIDETZA azpimarratzea.

“Convivium” hitza latinezko “vivere” aditzetik dator, “vivir” “bizi” esan nahi du, eta gaztelaniaz hitz hauek eman ditu: vivo, vivificar, vianda, vivida, viviparo, vivero, vida, vida, vitamina, viable, etab. Horrekin batera, “-ium” atzizkiak eta “com-” aurrizkiak osatzen dute. Horrek ideia hau eragiten du: “elkarketa edo elkarrekin”. Beraz, “convivium” “bizitzeko bilerak” izan liteke.

Erromatarren garaian, oturuntza edo conviviuma, jendea elkartzeko eta ospakizun publiko edo pribatuak ospatzeko aukera berezi bat zen. Bainuen ondoren hasten zen. Lehenik eta behin afaria egiten zen, eta, ondoren, “komissatio”-a. Tarte ederra zen solas egiteko, goatzeko eta ardo onak edateko.

Kontzeptu orokor horretatik abiatuta, jai-ospakizun-bilerak hartatik, elkarbizitza-proiektu bat antolatu zen Esako bizilagunendako.

2.2.4 Transferentziak

Proiektu honekin ez da transferentziarik sortu; hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea 2018an zirriboratu eta 2019an abiarazi zen “Convivium Yesa” proiektua (Jarrerak, Pentsamenduak eta Praktikak) luzatu eta berritu egin dela 2020an, esku-hartzearen hasieratik ezarritako erronketan aurrera egiteko proposamen berri batekin: hots, ohiturak hobetzea, jokabide positiboak ikastea, eta gizarteratzeko eta gizarte-harremanetarako guneak sortzea. Bigarren ediziorako berrikuntza metodologiko gisa, herritarren partaidetza-kuota handitzea aurreikusten da, Jarduera eta Jaietarako Batzorde Mistoa eratuz.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Udalaren jarrera programa irekia, inklusiboa eta partaidetzazkoa sustatzeko.
- Bizilagunek udal proposamenari emandako harrera eta erantzuna.

3.1.2 Aukerak

- Nafarroako Gobernuako Ingurumeneko eta Landa Garapeneko Departamentutik lortu zen laguntza (A21 proiektuak) eta Geoalcali Fundazioaren sostengua.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Urteko proiektua da, ez da epe erdirako programa; hori gomendagarria izanen litzateke, xedea ohiturak aldatzea bada, edo jarrerak ikastea edo jokamoldeak hobetzea.
- Ahalegin eta lan handiagoa da udal ordezkariarentzat, eta gainera, prest egon behar dute botere eta autoritate apalagoa izatera, bizilagunen autonomia handiagoaren eta ahalduntzearen mesedetan.

3.2.2 Mehatxuak

- 2020aren hasieran, proiektuari jarraipena gogoz ematea planteatu zen, eta Bartzorde Mistoan lanean hasi ziren, indarrez hasi ere, baina pandemia agertu zenean, dena geldiarazi zen, eta jarduera gehienak eten ziren. Bizikidetzarako aukeren eta topaketan sorreran ez ezik, orain arte lortutako gizarte-ohituen eta -trebetasunen kalitatean ere nabarmen atzera egiteko arrisku handia dago.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	AÑO 2019	GUZTIRA
Esako Udala	5.974,86	5.974,86
Nafarroako Gobernua. Ingurumeneko eta Landa Garapeneko Departamentua	6.000,00	6.000,00
Geoalcali Fundazioa	1.200,00	1.200,00
GUZTIRA	13.174,86	13.174,86

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**“Convivium Yesa 2019”:
Komunitatean osasunez,
sormenez eta
berdintasunez bizitzeko
bilerak**

ESAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Konpromiso ttikien kanpaina

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Konpromiso ttikien kanpaina

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Baitan

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Baitan

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Arras Baitan Fundazioa

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2020/02/12**Beste data interesgarri batzuk: **2019/02**

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Konpromiso
ttikien kanpaina**

ARRAS BAITAN FUNDAZIOA

HARREMANA:

Joseba Otondo Bikondoa

Foru Plaza, Z/G
31700 Baitan

Tel: 948 580 006

E-Mail: jotondo@baitan.euswww. arrasbaitan.eus



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUERA GARATU AURREKO EGOERA

Baztango Udalak bultzaturik eta finantzaturik, 2018an, Baztango identitatean oinarritutako lurralde-marka bat sortzeko prozesua jarri zen abian, parte-hartze prozesu baten bidez, ibarreko herritar aunitzek eta ekonomia, kultura nahiz gizarte arloetako eragileek parte hartuta. Helburu nagusia da identitate horrekin bat heldu den tokiko garapen sozioekonomiko bat bultzatzea, eta era berean, lurralde eragileen arteko elkarlana antolatzea. Horren ondorioz, ARRAS BAZTAN marka sortu zen, eta proiektua Nafarroako Gobernuak finantzatu du, EGEF funts europarrekin batera.

2019an, marka sortu eta gero, huraxe kudeatzeko erakundea eratu zen fundazio baten izaerarekin eta izen honekin: ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA. Honatx helburu nagusiak:

- Pertsonen eta eragileen arteko talde-lana bultzatzea.
 - Egungo barne-indarrak eta sinergiak ezagutaraztea.
 - Herrietako dinamika soziala, ekonomikoa eta kulturala indartzea.
 - Tokiko garapen ekonomiko eta kultural jasangarria bultzatzea, herritarrak beren ekintzen erdigunean paratuta, lankidetzaz giroa sortuta, eta tokiko produktuak eta zerbitzuak lurraldearen hobekuntzari eta aldaketa positiboari lotuta.
 - Ibarreko kalitateko paisaia kulturalaren eta naturalaren ezagutza eta bilakaera bultzatzea, haien euskarri diren prozesu sozial, ekonomiko eta kulturek en bidez.
- Erakunde publiko eta pribatuak osatzen dute fundazio hau, eta haietan, ibarreko eragile sozioekonomiko adierazgarri eta eragingarriak daude bildurik: Udala, nekazaritza eta abeltzaintza, merkataritza, turismoa, beste zerbitzu batzuk, hezkuntza, artisautza eta garapen agentzia.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Konpromiso
etikien kanpaina

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Konpromiso ttikien kanpaina

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA

KONPROMISO TTIKIEN KANPAINA fundazioaren lan-ildoaren barnean sartzen da, eta prestakuntza-ariketa bat da, irismen handiagoko beste dinamika batzuk egin aitzinetik. Azken helburua epe ertain eta luzerako konpromisoen parrilla bat sortzea da, ekintza sinpleenetatik konplikatuenetarako ibilbidea marraztuko duena eta, aldi berean, tokiko agenda positiboa eratuko duena egungo erronka globalekin bat heldu diren aldaketa eta egokitzapenak gauzatzeko.

1.2 JARDUKETA

Talde ekimena da eta haren funtsa denon artean pentsatu eta ekitea da, edonoren eskura dauden ekintza ttikien bidez, zertarako eta, epe luzerako trantsizio sozial eta ekologikoaren aldeko logikan, Baztan eraldatzeko eta bizitzeko tokia hobea izateko. Eta horrek ezagun egin gaitzala.

Lehen kanpaina honen xede publikoa Fundazioko kide diren elkarteetan bilduta dauden eragile ekonomikoak dira; halaber, hartzaileka eta parte-hartzaileak dira, eta aipatu konpromisoak, lehendabizikoz, bere gain hartu eta betetzen ari direnak.

Jorratu ditugun gaiek egun aurrean ditugun erronka globalekin dute zerikusia: hondakinak, energia, ura eta elikadura. Kanpainak ekintza ttiki eta zehatz bat proposatu du hga horietako bakoitzerako:

- **Hondakinak:** zero hondakin: organikoa bereizteko eta horren enbaxadore izateko konpromisoa.
- **Energia:** negozioetan LED argiak erabiltzea eta, ahal dela, berrerabilgarriak.
- **Ura:** establezimenduetatik, jarduera bakoitzetik, plastikozko ur-botilak ezabatzea eta kentzea. Tabernen eta denden kasuan, tarteko arau bat dute: derrigorrezkoa da kristalezko botiletan botilaratutako ur-botilak edukitzea.
- **Elikadura:** Baztango esne-marken kontsumoa (Jauregia, Kaiku eta Lacturale).
- **Euskara:** ordainagiriak, fakturak eta tiketak euskaraz.

Baztango biztanleak, inolako taldekatzerik gabe, hartzaileak ere badira, oro har, bai eta azken eta zeharkako onuradunak ere. Establezimenduak kanpaina honi atxikitzeak



domino-efektua eragin zuen, bere baitan berez baitakar ekimenaren berri ematea bezero, hornitzaile, laguntzaile eta abarri. Horrela, hasmentan konprometitua zegoena baino aunitzez ere jende gehiagorengana iristea lortu zen eta, aldi berean, errazagoa da kontzientzia hartzea eta ikastea kanpainan azpimarratzen diren arloen inguruan.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Konpromiso ttikien kanpaina

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA

Hori sasteko urrats txiki bat da, etorkizunean kuota eta konpromiso-eremu handiagoak hartuko dituen dinamika kolektibo zabalago baten barnean.

Ekimen gisa aurre egin beharreko arazoei dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Hasieran erresistentziak, arras erroturik dauden ohituren ondorioz.
- Establezimenduen abiapuntu ezberdinak, konpromisoak hartzeari begira.
- Egungo argiteria LEDera egokitzeari buruzko alderdietan prestatu beharra.
- Establezimendu horietako zenbaitek egin beharreko inbertsio ekonomikoa konpromiso guztiak betetzeko.
- Ostalaritza- eta jatetxe-sektoreari tokiko eta berehalako alternatibak eskaintzeko zailtasuna, plastikoa ezabatzeko eta, haren ordeztu, kristalezko elementuak erabiltzeko konpromisoari dagokionez. Irtenbide posibleak berehala ekarriko dituzten tokiko hornitzaileak ez izatea.

Komunikazio iraunkorra eta beti aferak konpontzeko xedez, funtsezkoa izan da honako aukera hauek bilatzeko eta aurkitzeko:

- LED lanparak batera erostea.
- Egungo argiak berrira behar bezala egokitzeko prestakuntza-proposamena.
- Tarteko konponbideak, saltokietan plastikozko botilen erabileratik kristalezkoetara mailara pasatzeko.

1.2.1 Prozesua

Idea Arras Baztan Fundazioaren baitan sortu zen. Kide dira Baztango Udala, Bertan merkataria elkartea, Baztango Zaporeak ekoizle elkartea, Apopilo ibarreko turismo ostatu elkartea, artisau elkartea, Prest turismo zerbitzuetako enpresne elkartea, lanbide-heziketako eskola eta Cederna Garalur eskualdea garatzeko agentzia.

Fundazioaren dinamika kolektiboa aztertu eta eztabaidatu ondoren, sortzaileek eta patronoek Frantziako Rhone-Alpeetako Val de Drome eskualdea bisitatu zuten, Biovallée Eragileen Elkartearen esperientzia ezagutzeko. Bisita hartan ikasitakoetan oinarriturik, hausnarketa- eta eztabaida-prozesuari jarraitu zitzaion. Prozesu horren



emaitza da fundazioaren dinamika kolektiboa zehaztea eta 5 jardun-arlo mugatzea, edonoren eskura dauden ekintza ttikien kanpainaren oinarri izan daitezen. Kanpaina honen funtsezko oinarria Baztan bizitzeko leku hobea bilakatzea da, konpromiso ttikiak hartuz, poliki-poliki handitu eta herritar guztiengana zabaldu egingen direnak.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Konpromiso ttikien kanpaina

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA

Fundazioko patronoen artean 5 lan-arlo nagusiak aukeratu ondoren (hondakinak, energia, ura, euskara eta elikadura), elkarte bakoitzak bere kideen artean ekintza zehatzak, onargarriak eta egiteko modukoak eztabaidatu eta adostu zituen. Patrono bakoitzak emandako ondorioak, berriz ere, fundazioaren erabaki-organoan eztabaidatu, zehaztu eta onartu ziren, eta, azkenik, horiek kanpaina egituratu dute.

Hasiera batean, eta jarduera ebaluatzen hasi aitzinetik, bilerak egin dira, enpresa batzuek konpromiso zehatzen bat betetzeko dituzten zailtasunak konpontzeko irtenbideak proposatzeko aldera, guztiontzat onuragarriagoak diren irtenbide globalak eta ekonomikoak bilatze aldera, eta, aldi berean, lankidetzazko ekonomiako eta erakundeen arteko harremanetako lan-ereduak sustatzeko.

Konpromisoari atxikitze aldera, atxikipen-fitxa bat egin zen, establezimendu bakoitzak bere borondatez sinatzen duena, ekintzak betetzeko konpromisoaren erakusgarri. Fitxa horren osagarri, hartutako konpromisoa identifikatzeko pegatina itsasgarri bat paratzen da saltokian, ikusteko moduan. Merkataritzaz bestelako establezimenduen kasuan, pegatina logo digital bat da, kanpainarekiko atxikimendua erakusteko.

Aldi berean, giza baliabideak eta datuak biltzeko baliabideak diseinatu eta izendatu dira, konpromiso horiek kontrastatzeko eta haien jarraipena egiteko.

Behatzeko, kontrastatzeko, zailtasunak aztertze, irtenbideak bilatzeko eta neurri progresibo eta adostuak hartzeko fasea etengabea da, dinamika bizia baita.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Kanpaina honek ekarpena egiten dio ekoizpen- eta kontsumo-sistemetan, erakunde sozial eta politikoetan, eta biztanleen bizimoduetan nahiz balioetan aldaketak egiteko prozesuari.

Hona hemen ekintza eta konpromiso zehatzen helburuak:

- Ekonomia birkokatzea.
- Energia gutxiago eta eraginkortasun handiagoz erabiltzea.
- Hondakinak gutxitzea.
- Tokiko elikadura-sistemak indartzea.



- Tokiko gizarte- eta ingurumen-eremu erresilienteagoa eraikitzen laguntzea, krisi ekosozialaren eta klima-aldaketaren testuinguruan.
- Antolaketa-egitura inklusiboak eta irekiak sortzea, trantsizio sozial eta ekologikoa-ren logika batean epe luzera lan egitea ahalbidetzen dutenak.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Konpromiso ttikien kanpaina

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA

1.2.3 Garatutako estrategiak

Estrategia arrakastatsuenak honako hauek izan dira:

- Partaidetzan, adostasunean eta lan koordinatuan oinarritutako metodologia, ekintza kolektiboko dinamikak diseinatzeko eta gauzatzeko aukera ematen duena.
- Neurri zehatzak, errazak, txikiak eta onargarriak zehaztea.
- Malgutasuna.

- Borondatea, egiteko molde berrietarako trantsizioan laguntzeko borondatea.

Diseinatu den aipatu partaidetza-lanaren estrategiaren barnean, KOMUNIKAZIO atalak sekulako garrantzia izan du.

Konpromiso ttikien kanpainaren komunikazio-lanak bi norabide nagusi izan ditu eta izaten jarraitzen du: kanpokoa eta barnekoa.

Barne-komunikazioari dagokionez, ekintza hauek egin dira:

- Azalpen-bilerak fundazioa osatzen duten erakundeetako kideekin, kanpainaren xedeari, erabilgarritasunari eta helburuari buruzko informazioa emateko.
- 5 konpromisoak jasotzen dituen eskuliburu argigarri bat egitea (eranskin gisa erantsi dugu), publiko orokorrari aurkeztu zitzaiona.
- Atxikimendua identifikatzeko pegatina, parte hartzen duen establezimendu bakoitzean paratzeko, eta logo digitala.

Kanpo-komunikazioari dagokionez, ekintza hauek egin dira:

- 2020/02/12an prentsaurreko bat ematea.
- Bideo argigarri bat enkargatzea, kanpainari atxikitako establezimenduen lekukotasunak jasotzeko.
- Elkarrizketak tokiko eta eskualdeko irratietan.
- Zabalkundea tokiko komunikabide guztietan: telebistan, irratan, prentsa idatzian eta digitalean, eta eskualdeko hainbat komunikabidetan.
- Atxikitako establezimendu bakoitzak bezeroekin, hornitzaileekin eta laguntzaileekin egiten duen komunikazioa, eta aipatu eskuliburuaren bidez.
- Fundazioaren webgune ofizialean atal berezi bat sortzea.

Prentsak ongi tratatu du albistea, konpromiso ttikien kanpainaren dinamika leialtasunez aurkeztuta, bai eta haren testuingurua ere.



1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Gaur egun, 70etik gora dira ekintza horiekin zuzenean inplikaturako eta konprometitutako eragile ekonomikoak: saltokiak, turismo-ostatuak, nekazaritzako elikagaien ekoizleak, artisauak eta turismo-zerbitzuen enpresak. Horietako batzuek konpromiso horietako gehienak betetzen zituzten, kanpainari atxikitzeko unean, eta aski izan da konpromisoak betetzeko falta ziren ekintza apurra txertatzea; beste batzuetan, berriz, pixkanaka betetzen ari dira. Izan ere, halako denboraldi bat eskatzen baitute konpromiso batzuek egokitze, trantsizioa egiteko eta horiek betetzea ahalbidetuko duten alternatibak bilatzeko. Azkenik, badira gaur egun sartzen ari diren beste batzuk ere, ez baita denboran mugatutako kanpaina bat.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Konpromiso ttikien kanpaina

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA

Hondakinei dagokienez, konpromiso ttikien dinamikatik abiatutik, hondakinak ekitaldi publikoetan kudeatzeko udal-baldintza bat argitaratu zen, eta, hala, debekatu egin ziren erabilera bakarreko plastikozko ur-botilak eta baxera, eta hortaz landara, frakzio organikoa bereizteko betebeharrak ezarri zen. Horrela, aitzinatu egin zen Nafarroako hondakinei buruzko 14/2018 Foru Legeak ekitaldi publikoetarako ezarri nahi zuen erregelamendua.

Kanpaina hau abian jarri eta gero, honako hauek egiaztatu eta ikasi ditugu:

- Partaidetzan oinarritutako metodologia erabiltzearen garrantzia.
- Ekintzen sinpletasunak eragiteko eta erakartzeko duen garrantzia.

1.4 OHARRAK

Fundazioa osatzen duten erakunde guztiek eman dute laguntza, eta inork ez du trabarik paratu.

Ekimen txiki hori Baztango Udalak egindako ekarpen ekonomikoari esker egin ahal izan da, udalak bere gain hartu baititu tokiko enpresa bati egindako komunikazio-kanpainaren kontratazioak eragindako gastuak.

Bere sinpletasun eta apaltasunaren barnean, KONPROMISO TTIKIEN KANPAINA Landa Eremurako Berrikuntza Sozialeko proiektu bat da, proiektzio handikoa, eta hala-kotzat hartzeko eskakizun guztiak betetzen ditu:

- Ekintza endogenoa da.
- Gizarte-garapeneko (ongizatea eta/edo gizarte-koehesia hobetzen duena).
- Hasieran berriak ziren aldaketen bidez (lehendik zegoenaz bestelako egoera bat gertatzen da).
- Zerbitzu bat ematean edo ondasun bat ekoiztean (zenbait adierazpen ukiezin eta/edo ukigarri onartzen ditu).



- Emaizta batzuk lortzen ditu (gertatu den aldaketaren adierazle objektiboak daude).
- Sare sistema baten bitartez (protagonismo handiagoa hartzen dute antolakuntzaren arteko harremanek, antolaketa barnekoek baino).
- Erreproduzitzeko modukoa da (erreproduktzio mugatuaren edo kontrolatuaren orde, hedapen mugagabea izateko joera du).
- Tokiko produktuaren kontsumoa sustatzen du.
- Tokiko ekonomia indartzen du.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

Gure iritziz, kanpainak berak eta huraxe abian jartzeak honako irizpide hauek betetzen dituzte:

2.1.1 Eragina

- Hondakinaren sorkuntzan eta bilketan.
- Uraren erabilera eta banaketan.
- Energiaren erabilera eta kontsumo eraginkorrean.
- Banakako eta taldekako erantzukizun eta konpromisoaren bultzadan eta sustapenean.
- Udal-araudian.

2.1.2 Elkartegintza

Arestian esan dugun bezala, kanpaina Arras Baztan Fundazioaren baitan sortu zen. Kide dira Baztango Udala, Bertan merkatarik elkartea, Baztango Zaporeak ekoizle elkartea, Apopilo ibarreko turismo ostatu elkartea, artisau elkartea, Prest turismo zerbitzu elkartea, lanbide-heziketako eskola eta Cederna Garalur eskualdea garatzeko agentzia.

2.1.3 Jasangarritasuna

Ekintza horiek ekonomikoki bideragarriak dira, sozialki inklusiboak, ez-baztertzaileak eta ingurumena errespetatzen dute. Hortaz landara, tokiko sektore-estrategietan aldaketak sartzeko balio dute; gai zehatzen ezagutzan sakontzeko eta barneratzeko aukera ematen dute, konpondu nahi dituzten arazoei berariazko irtenbide emate aldera (arau- eta lege-aldaketak kontuan hartuta); erreplikatu egin daitezke.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Erabilitako metodologiak lidergo partekatua erakutsi du, eta parte hartzen duten pertsonen eta erakundeen arteko harremanak sendotzea ahalbidetu du, baita erakunde antolatzaileekin ere.

2.2.2 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Borondatezkoa da ekintzekiko konpromisoa eta ekintzak betetzea. Aldi berean, erreplika daiteke, beste jarduera-arlo edo sektore batzuetara ere hedatu daiteke eta beste batzuek imitatzen dute. Jakina, aukera ematen du imitatu nahi dituztenen berezitasunak hobetzeko eta horietara egokitzeko.

2.2.3 Transferentziak

Aitzineko atalean bezala, kanpaina honetako ideiak eta ekintzak transferitu daitezke. Azpimarratu nahi dugu, beste behin ere, tokiko agenda zabalago, luze eta jasangarriago baten parte dela, Baztan bizitzeko leku hobeagoa izate aldera, eta horrela, ibarreko biztanleek zein bisitariek aintzat hartuko dutena, hasierako ekintza sinple ttiki bidez, eta gero, ekintza konplexuagoetarantz eta esanguratsuagoetarantz bilakatuta.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Konpromiso
ttiki kanpaina**

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

Azalpen honetan egoeraren analisisa aitzinatu dugula iritzita, honako puntu hauek azalduko ditugu labur.

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Sinergia eta konbergentzia Arras Baztan Fundazioaren baitan.
- Kideen artean bada lanerako eta laguntzarako borondate argia.
- Partaidetzazko estrategiak eta dinamikoak ezartzea.
- Ekintza zehatzak, tikiak eta erraz neurtzeko modukoak ezartzea.
- Kanpaina abian jartzean aurkitutako arazoei irtenbidea emateko ahalegina eta nahia.

3.1.2 Aukerak

- Herritarren sentsibilizazio- eta kontzientziazio-maila handia kanpainen landutako gaien inguruan.
- Bailararen tokiko garapenaren orainari eta etorkizunari buruzko kezka.
- Ehun ekonomikoak elkarlanaren garrantzia ulertzea.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Hasierako erresistentziak, arras erroturik dauden ohituren ondorioz.
- Establezimenduen abiapuntu ezberdinak, konpromisoak hartzeari begira.
- Prestakuntza eman beharra egungo argiteria LEDera egokitzeari lotutako alderdietan.
- Baliabide ekonomiko gutxi.
- Laguntza teknikorik ez dago inplikaziorako, komunikaziorako eta irtenbideak emateko estrategiak ezartzeko.

3.2.2 Mehatxuak

- Badago zailtasuna ostalaritza eta jatetxe sektoreari tokiko eta berehalako alternatibak eskaintzeko, plastikoa ezabatzeari begira eta, haren orde, kristalezko elementuak erabiltzeko konpromisoari dagokionez.
- Ez dago tokiko hornitzailearik irtenbide posibleak berehala ekartzeko.
- Establezimendu haietako zenbaitek egin beharreko diru inbertsioa konpromiso guztiak betetzeko.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	2019KO EKARPENA	2020rako AURREIKUSPENA	GUZTIRA
Baztango Udala	3.200	10.000	13.200
Apopilo			
Bertan			
Prest			
Baztango			
Zaporeak			
Baztango Artisauak			
Lanbide Heziketa Eskola			
Cederna Garalur			
GUZTIRA	3.200	10.000	13.200

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Konpromiso
ttikien kanpaina**

ARRAS BAZTAN FUNDAZIOA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Ekonomia Zirkularra & Hiri Biodibertsitatea Bizikidetza Arduratsu baterako “CATHOTEL”

LLOBREGATS

LlobreGats

Colonias Felinas 3.0 & Economia Circular





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Ekonomia Zirkularra & Hiri Biodibertsitatea Bizikidetza Arduratsu baterako “CATHOTEL”

LLOBREGATS

HARREMANA:

José Luis Rodríguez Espinosa

Torre de la Vila etorb., 25 - 1º - 2ª
08830 Barcelona

Tel: 687 475 455

E-Mail: llobregatsasociación@gmail.com

www.llobregats.wordpress.com

JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Ekonomia Zirkularra & Hiri Biodibertsitatea Bizikidetza Arduratsu baterako “CATHOTEL”

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Cascante, Erriberako Mankomunitatea

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Cascante

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

LlobreGats

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2019/01/10**

Bukaera: **2019/11/30**





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Birziklapenerako edukiontzi abandonatuak, guztiak ere hondatzen ari direnak eta ingurunea kutsatzen. Bota egin diren materialek karbono-aztarna handia eragiten duten birziklatzean, prozesu luze eta garestian, eta gehienak zabortegi edo erraus-tegietara eramaten dira. Katu koloniak daude babeslekurik gabe; eta boluntarioak aire zabalean ari dira, lan zail eta nekagarrian.

1.2 JARDUKETA

Bota diren material ugari berrerabiltzea (zuntz-educiontziak, zurak, porexpan kaxak, etab.), ingurumena eta hiriko biodibertsitatea zaintzeko.

1.2.1 Prozesua

Edukiontzietak kalteak konpontzeko lanak, katuentzako eta boluntarioentzako sar-bideak irekitzea, barnealdea egokitzea, eta kanpoko apainketa, animalien adopzioa eta haienganako errespetua sustatzeko mezua barne.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Ekonomia Zirkularra &
Hiri Biodibertsitatea
Bizikidetza Arduratsu
baterako "CATHOTEL"**

LLOBREGATS



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Ekonomia Zirkularra &
Hiri Biodibertsitatea
Bizikidetzatza Arduratsu
baterako "CATHOTEL"**

LLOBREGATS

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

Ekonomia Zirkularra aplikatzea, bota diren materialak berrerabiliz, zertarako eta hiri-biodibertsitatearen eta haren ingurunearen parte diren katu koloniak duintzeko eta ikusarazteko, arras eginkizun garrantzitsua betetzen ari direlako, herritarrentzako arriskutsuak izan daitezkeen izurriteak hiritik urrun mantenduta.

1.2.3 Garatutako estrategiak

Sinergiak hainbat aldetan. Lehenik eta behin, Erriberako Mankomunitatearekin, edukiontzi abandonatuak lortzeko; bigarrenik, Cascanteko Udalarekin, instalaziorako baimena lortzeko. Hirugarrena, egokitze-lanak egin dituzten bizilagun boluntarioekin, eta laugarrena, gure Elkarteak, bota diren materialak eta apainketa egokitu, birziklatu eta aurkitzeko lanak ahalik eta hobekien egiten gidatu dituen. Tuterako Ospitalearekin, ohatzetarako kaxak erosteko; inguruko etxetresna elektrikoak konpontzen dituzten bi enpresak jangeletarako eta edaritegiatarako erabiltzen diren garbigailuetako ateetako beirak ematen dituzte; errotulu-enpresa batek, berriz, beren lanetako metakrilato-hondarrak ematen dizkigu, CatHotelak egokitze.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Birziklapenerako edukiontzi abandonatuak, CatHotels-ak egiteko eraldatuak (katuendako hotelak), berrituak, konponduak, kanpotik eta barnetik egokituak. Inguru garbiak, janari-hondarrik gabeak, porexpan erretiluak, aluminiozko papera edo inguru kutsatzen duten film gardenak. CatHotels barnean, literak, katuendako atsedeen babesturako, osasun etxetako porexpan kaxekin eginak, katuendako janaria eta ura babestuak; biltegiatze-eremua, boluntarioek garraiatzen duten karga arintzeko, eta LED argi bateriadunak paratzea gabeiz barnealdeak ikusteko.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Ekonomia Zirkularra &
Hiri Biodibertsitatea
Bizikidetzatza Arduratsu
baterako "CATHOTEL"**

LLOBREGATS

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Ingurune garbia, duina, edertua, apaindua. Ongi zaindutako katuak, leku babestu batez gozatzeko. Boluntarioek askatasun handiagoa dute egunen batean atseden hartzeko, jakiak eta ura babestuta daudela jakinik. Bizilagunak pozik daude instalazio polit, apaindu, funtzional eta merkea izateaz (Udalari ez zaio xentimorik ere kostatu). Ekonomia zirkularra aplikatzeari esker, ingurumenari egin zaion onura kontuan hartu gabe.

2.1.2 Elkartegintza

Gure elkartearen eta CER Cascante boluntario taldearen artean, egunero arduratzen baitira katuak zaintzeaz. Lankidetzatza Erriberako Mankomunitatearekin, edukiontzi abandonatuetan sartzeko, eta lankidetzatza Udalarekin, katu kolonietan jartzeko leku egokienak koordinatze aldera.

2.1.3 Jasangarritasuna

Erabilitako materialen % 95 baino gehiago berrerabili dira. Tona erdi hondakin baino gehiago berrerabili dira. NBEko 2030 Agendaren gidalerroei jarraitu zaie, gure elkar-teak 17 GJHetatik 12 betetzen dituelako. Cascanteko boluntarioak gidatu ditugu ingurumena zaintzeko lan honetan. Smartcities delakoan printzipioetako bat aplika-tzen dugu, hau da, hirien ingurunea zaintzea, inguru naturalarekin bat eginda, bertan 'bizirauten' duten beste izaki bizidun batzuk eskubide osoko herritar bihurtuta, guz-tiak ere errespetatuak, zainduak eta duinduak.



2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Sinergiak –NBEko GJHetako bat– oinarria dira gure gizarteak ingurumena gehiago errespetu eta zaindu dezan; horretarako, ezinbestekoa da herritarrengandik hurbilen dauden toki-administrazioek sinergietan parte hartzea. Ekimen honek administra-zioak lanean jartzen ditu, herriko bizilagun boluntarioekin batera, gizartearen onerako.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Ekonomia Zirkularra &
Hiri Biodibertsitatea
Bizikidetzatza Arduratsu
baterako “CATHOTEL”**

LLOBREGATS

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Gure elkarteak 5. GJH betetzen du, hau da, 'Genero-berdintasuna'. Zuzendaritza batzordeko kideen %66 emakumeak dira, batzorde burua eta sortzailekidea barne. Halaber, 10.GJH betetzen du, hots, “Desberdintasunak murriztea”: izan ere, elkarteak zuzendaritza batzordeko kideen %100ek desgaitasun aitortua dute eta gizartearen bazterturik gelditzeko arriskuan daude.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

'Berrerabilpenaren' ekimen hau bat dator —eta aplikatzen du— Europar Batasuna azkentzen ari den hondakinen zuzentarauarekin, birziklapen arloko indize apala saihesteko. Izan ere, horren ondorioz, zabortegiak eta erraustegiak beterik daude edota hondakinak herrialde batzuetara eramaten da, hango bazterrak kutsatuta. Nafarroako Foru Komunitateko elkarte batzuek interesa agertu dute. Hona hemen zein diren: Egapeludos, Refugio Muskaria, CER Pamplona, Ablitas, Castejon, Cortes eta Murchanteko boluntarioak, 9 vidas Beriain, etab. Eta beste erkidego batzuetakoak, hala nola Errioxakoak, Euskal Autonomia Erkidegokoak eta Aragoiakoak. Planeta osoan ba baitira hiriak, zaborrontziak, hondakinak eta katuak, eta ekimena edonora eraman eta egin daiteke.

2.2.4 Transferentziak

Ekimena hiri handietan egiten ari da. Adibidez, Eivissan eta Bartzelonako metropoli-eremuko 6 hiritan 10.000 biztanletik 250.000 biztanlera bitartekoak. New Yorke berak ere ikastaroak eman dizkie bere boluntarioei ekimena ezartzeko.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

**Ekonomia Zirkularra &
Hiri Biodibertsitatea
Bizikidetzatza Arduratsu
baterako “CATHOTEL”**

LLOBREGATS

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

Ingurumena zaindu beharra, inguruan ditugun izaki bizidunak zainduta eta, aldi berean, botatzen diren materialen bizitza erabilgarria luzatuta, eta horrela, planeta kutsatzea saihestuta. Izan ere, egunkari nazional nagusiek dagoeneko argitaratu dituzte ekimen horri buruzko artikulak. Diru publikoetan zentimorik ere ordaindu gabe egin daiteke.

3.1.2 Aukerak

Aukerak aunitz dira, botatzen diren materialak adina. Jarduketa bakoitza egokitzen da bai ezarriko den lekura, bai bota diren materialetara, egokitzapen lanak egiteko unean; beraz, bakoitza ezberdina da. Kanpoko apainketaren ondorioz, deigarriak, atseginak eta ezberdinak dira.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

Administrazioek motel dihardute (batez ere hiri handietan; ez, ordea, txikietan) behar diren hondakinak dauden lekuetara joateko baimena emateko, hala nola edukiontzia edo garbiguneak.

3.2.2 Mehatxuak

Tokiko administrazioen inplikaziorik eza lurraldeko biodibertsitatea zaintzera behar-tzen dituen araudia aplikatzeko.

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Ez dugu bazkiderik. Erosi behar izan diren materialen kostu txikia herriko boluntarioek ordaindu dute. Administrazioek (udala eta mankomunitatea) ez dute deus ere ordaindu behar zian.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Zahartze aktiboa Ledean

LEDEAKO UDALA



Ledeako
Udala





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Zahartze aktiboa Ledeana

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Tokiko ekimena da, Udalak Ledeako bizilagunentzat sustatua

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Ledeako Udalerria

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Ledeako Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **01/01**

Bukaera: **12/31**

Zahartze aktiboko programa urtekoa da.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledeana

LEDEAKO UDALA

HARREMANA:

Ricardo Murillo Delfa (Alkatea)

Escuelas k., 2
31487 Nafarroa

Tel: 948 87 00 22 / 619 99 34 00
E-Mail: ayto.liedena@cniebla.com
www.liedena.es





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA




1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Ledeako Udalak ikusi du adinekoek ez dutela parte hartzen eta ez direla inplikatzeko udalerriko gaietan eta, halaber, jarduera gutxi dagoela adinekoentzat. Herrian, oso biztanleria talde esanguratsua da.

Izan ere, INE erakundearen 2019ko urtarillaren 1eko datu argitaratuen arabera, Ledean 292 biztanle ditu. Gaur egun, Ledean biztanleria dentsitatea 15,15 biztanle da Km² bakoitzeko, eta %51 emakumeak dira.

Biztanleriaren datuak adinaren ikuspegitik aztertuz gero, Ledean piramidearen nola-baiteko inbertsioa ikusten da, bertako biztanleen batez besteko adina 49,12 urtekoa baita.



Datu horiek zehatzago aztertuz gero, ageri da 39 pertsona direla 18 urtetik beherakoak, 166k 18 eta 65 urte bitartean dituztela, eta 87 ledeatar 65 urtetik gorakoak direla.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledean

LEDEAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

Adinekoak herriko biztanleriaren %30 dira, eta ehuneko hori 6 puntu handiagoa da, 60 eta 65 urte bitarteko pertsonak sartzen badira.



Horiek dira 60 urtetik gorako Ledeako biztanleriaren balioak, sexuaren eta adinaren arabera xehatuak.

ADINA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
60-65	8	8	16
65-70	11	11	22
70-75	15	9	24
75-80	6	3	9
80-85	12	5	17
85-	3	16	19
GUZTIRA	55	52	107

Udalak lan egin nahi du adinekoak artatzeko, haien bizi-kalitatea hobetzeko eta era aktiboan inplikatzeko, arras adin tarte esanguratsua baita herriko demografiaren egituraren (60 urtetik gorakoak), Ledeako bizitzari dagokionez.

1.2 JARDUKETA

Zahartzea prozesu naturala da bizitzan, pertsonen denboraren joanaren ondorioa. Zahartzaroa bizitzako beste aro bat da, naturaltasunez onartu behar duguna, aurkeztzen zaizkigun aukera ugarienez gozatzeko.

Zahartze aktiboa eta osasungarria izateak esan nahi du gizartean parte hartzea gure premien, nahien eta gaitasunen arabera, eta halaber, esan nahi du ahalik eta gehien aprobetxatzea osasun fisiko ona izateko aukerak, emozionalki ongi sentitzea eta gizarte-ingurune egokia izatea. Helburua bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena adin aurreratuera zabaltzea da.

Ledeako Udalak langile batzuk, gune batzuk eta jarduera multzo bat ditu, herriko adinekoek beren gorputza, kontaktuak, memoria eta emozioak PIZTEKO. Zahartze Aktiboko Programa izenekoa da, eta, aldi berean, lau azpiprogramatan egituratua dago: Gimnasia, Konektatzen, Oroimena eta Elkarreraginean.

Proposamen gehienak Gizarte eta Kultur Etxean egiten dira. Udan, berriz, jarduera batzuk Latorre Hoteleko igerilekuetan eta aire zabaleko leku batzuetan eramaten dira.

“Zahartze Aktiboa Ledeana” programa, izenak dioen bezala, adinekoek gorputza, burua, harremanak eta emozioak mugitzera, AKTIBATZERA, dago bideratua. Hau da, laguntzera, aukerak sortzera eta tresnak ematera. Horrela, lau azpiprograma sortu dira:

Gimnasia. Osasuna da bizitza luze eta, aldi berean, gogobetegarriaren funtsezko gauzetako bat. Zahartzaroan, osasun ona autonomiaren baliokidea da, eta bizimolde independentea izateko aukera ematen du. Autonomiak, Independentziak eta Osasunak ariketa fisikoari egiten diote erreferentzia.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledean

LEDEAKO UDALA

Adineko biztanlerian, zahartzeak gaitasuna eta errendimendu fisikoa murrizten duten zenbait aldaketa eragiten ditu; horietako aunitz jarduera motorraren murrizketaren ondorio dira. Beste arazo batzuk, berriz, honako hauek dira: muskulu-masaren galera, hezur-masaren murrizketa, arintasunaren murrizketa, koordinazioaren murrizketa, orekaren nahasmenduak, giltzaduren mugikortasuna murriztea, biriken ahalmena murriztea...

Ariketa fisikoak aldaketa horiek geldiarazi eta hobetu ditzake, bihotzaren, biriken eta lokomozio-aparatuaren funtzionamenduan hobekuntzak eraginez, eta hortaz gain, estresa murrizten du, odoleko azukrea berdindu, eta kolesterol-maila jaisten du. Lan-ildo horretan, zahartze aktiboko programak adinekoen osasuna hobetzeko jarduerak biltzen ditu, betiere zahartze osasungarriko jarduerak ezartzeari eta ariketa fisikoa sustatzeari lotutakoak.

Zehazki, honako jarduera hauek eskaintzen dira:

- Luzaketa eta mantentze gimnasia.
- Tonifikazio gimnasia.
- Aquagym (Latorre Hoteleko igerilekuetan).
- Gimnasia belar gainean.

Konektatzen. Programaren onuradun izan daitezkeen pertsonen aldaketa zorabigarrien garaiak bizitzea egokitu zaie, bereziki teknologikoak, eguneroko bizitzari eragiten diotenak eta, askotan, ez daude prestaturik eta ohiturik. Trebetasun horietako askok tresna eta ezagutza berariazkoak behar dituzte, gero eta gehiago, eta beren zereginen eta harremanen konektatuta mantentzen dituzte. Horrelakoak ez menderatzeak mendeakotasuna eta segurtasunik eza eragiten die. Egoera horiei aurre egiten laguntzeko, hainbat ikastaro eta prestakuntza-jarduera eskaintzen dira, sare sozialak eta informazioaren teknologia ezagutzeko eta haiekin praktikatzeko. Zehazki, lan hauek egiten dira:

- Wassapp erabiltzen ikasi.
- Sare sozialak.
- Internetarako sarbidea.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledean

LEDEAKO UDALA

Memoria. Adinekoen kezka handienetako bat da, zahartu ahala, oinarritzko prozesu mentalen galera; batez ere, oroimena eta arrazoitzeko gaitasuna, nagusiki demenztzia motaren bat izateak dakarren beldurratik. Egia da adimen-gaitasun batzuk murriztu egin daitezkeela urteak igaro ahala, baina beste batzuk mantendu egiten dira, eta azken horiek baliatu egin behar dira. Nolanahi ere, entrenamendu kognitibo on batek narriadura hori geldiarazten du eta beste gaitasun batzuk indartzen ditu. Estimulazio kognitiboak, bai eta gure goi-mailako prozesu mentalak jokoan jartzen diren beste zeregin batzuek ere, helburu dute, batetik, gaitasun intelektualari eustea eta, bestetik, behar diren estrategiak irakastea adinarekin batera gertatzen diren prozesamendu mentaleko aldaketak arintzeko eta konpentsatzeko aukera emate aldera.

Horrekin bat, Ledean Zahartze Aktiboa programak oroimena lantzeko tailerra proposatu du jarduera gisa.

Elkarreraginean. Pertsonak adinean aurrera doazenean, probabilitate handiagoa dago daukaten laguntza-sarearen eta gizarte-harremanen zati bat galtzeko. Adinekoak uzkurrago bihur daitezke eta, era berean, gizarte honetan baliagarria eta preziatua ez izatearen sentimendua has daiteke. Aunitzetan, aldaketa horiek beste era bateko arazoak eragiten dituzte, tristura edo malenkonía sortzen dutenak, eta horrek depresioa eragin dezake. Emozio horiei aurre egiteko, gizarte-babesaren sentimenduak eta pertzepzioak oso tresna eraginkorrak dira.

Gizarte-babesa jasotako babesa edo laguntza dela esan genezake edota pertsonen arteko elkarrekintza (senitartekoak, lagunak, bizilagunak eta gizarte-erakundeetako kideak), era askotako laguntza emateko eta jasotzeko; nagusiki, laguntza espiritual, emozional, instrumentala eta informatiboa. Ledean Zahartze Aktiboa programari dagokionez, berdinen arteko gizarte-babesa sustatzen da, bereziki.

Ulertzen dugu, beraz, gizarte-babesak zuzeneko eragin onuragarria izan dezakeela osasunean eta ongizatean, giza beharrak asetzen laguntzen duen heinean, hala nola segurtasuna, gizarte harremana, kide izatearen sentimendua, estimua, afektua eta beste. Hori dela eta, horrekin bat abian jarri diren jarduketek komunitate-espiritua sustatu nahi dute, uneak, emozioak eta sentsazioak partekatzeko, parte-hartzaileei





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledean

LEDEAKO UDALA

egonkortasun emozionala, psikologikoa eta afektiboa ematen laguntze aldera. Honatx jarduketak:

- Sevillanak.
- Dantzak lerroetan.
- Asteazkeneko kafea (tarte bat kafe bat elkarrekin hartzeko, eta haurtzaroko eta gaztaroko oroitzapenak, teknikari arduradunak gidaturiko tertulian).
- Yoga hastapena.
- Musikaren bidez lasaitzea, eragina eta urrinterapia.

Jarduerak, urtarilaren 1etik abenduaren 31ra arte egin ziren, goizeko ordutegian (11etatik aurrera) eta arratsaldean (17etatik 18etara). Abuztua eten egiten da “oporrerengatik”.

1.2.1 Prozesua

Osasunaren Mundu Erakundearen ustez, zahartze aktiboa da “bizitza osoan zehar ongizate fisiko, sozial eta mentalerako aukerak optimizatzeko prozesua, bizi-itxaropen osasungarria, produktibitatea eta zahartzaroko bizi-kalitatea zabaltzeko helburuarekin”.

Ledeako Udalak herrian zahartze aktiboa bultzatzeko politika hori sustatzea erabaki zuen, eta horretarako, urtero, adinekoei gorputza eta burua aktibatzen laguntzeko jarduera-programa bat prestatzen du (parte-hartzaileekin adostuta), herrian modu osasuntsu eta autonomoan zahartze aldera.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

“Ledeako Zahartze Aktiboa” programaren helburu orokorra adinekoei bizi-baldintzak hobetzea da, haien bizi-itxaropen osasungarria handitzeko jarduerak abian jarri, adinaren berezko defizitak prebenituz eta atzeratuz, agertu diren defiziten larriagotzea geldituz eta autonomia-faltaren ondorioak arinduz.





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledean

LEDEAKO UDALA

Helburu zehatzak:

- Ledeko adinekoei, zahartze-prozesuen eta horien ondorioen inguruko ezagutzak ematea.
- Adinekoen isolamendu soziala saihesteko guneak eta denborak sortzea.
- Adinekoen parte-hartze aktiboa sustatzea.
- Herritarrak, oro har, eta adinekoak, bereziki, bizi-ohitura osasungarriari eustearen garrantziaz eta gizartean modu aktiboan parte hartzearen garrantziaz sentsibilizatzea.
- Ledeko adineko biztanleen artean bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, osasuna sustatzeko eta gaixotasunei aurrea hartzeko.
- Adinekoen gizarte-trebetasunak lantzea, haien gizarteratzea errazteko eta hobetzeko.
- Adinekoak sentsibilizatzea ariketa fisikoa egiteak duen garrantziaz, haien bizi-kalitatea hobetzeko bitarteko gisa, eta jarduera hori egiteko errutina, behar diren trebetasunak eta espazio-denbora egokia ematea.
- Arazo kognitiboen agerpena atzeratzea, burua aktiboa -bereziki oroimena- mantentzeko estrategiarik handienak eskainita.
- Adinekoen arteko eta adinekoen gizarte-babeseko sarea hobetzea.
- Adinekoen aisialdiko eta denbora libreko jardueren eskaintza sortzea, onura osasungarriak, emozionalak eta afektibo-sozialak jaso ditzaten (musikaren, dantzaren eta ariketa fisikoaren bidez).
- Adinekoei estrategiak ematea, adinarekin nagusitzen diren prozesu emozionalei aurre egiteko, hala nola depresioari, antsietateari, lo egiteko arazoei...
- Adineko pertsonen behar bezalako estrategiak erakustea beren adinari dagozkion egoeretatik eratorritako estresa kontrolatzeko.

1.2.3 Garatutako estrategiak

Ledeko Udalak sustatutako programak jendearen dimentsio guztiak lantzea du helburu: soziala, ekonomikoa, kulturala, espirituala eta zibikoak. Hau da, ez soilik fisikoki aktibo egoteko gaitasuna. Haren helburua da bizi-itxaropen osasungarria eta bizi-



kalitatea zabaltzea jendea zahartzen den bitartean, pertsona hauek, desgaituak edo laguntza behar dutenak barne.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledean LEDEAKO UDALA

Ikuspegi hori zentzu zabalean hartu behar da; izan ere, norberaren osasuna zaintzeaz gain, gizarteratze parte-hartzailea ere eskatzen du. Paradigma horretan kokatutiko jarduerak berezko motibazioa sustatu behar dute, pertsona bakoitzarentzat bereziak eta esanguratsuak diren elementuak lehenetsita. Hori dela eta, jarduerak parte-hartzearen, gizarteratzearen, malgutasunaren, kalitatearen, ebaluagarritasunaren, jasagarritasunaren eta berrikuntzaren ikuspegitik formulatu behar dira. Nazio Batuen Batzar Nagusiak (46/91 ebazpena) adinekoen aldeko printzipio batzuk sortu zituen: independentzia, duintasuna, autoerrealizazioa, zaintza eta parte-hartzea (Nazio Batuak, 1991). Nazio Batuen printzipio horien ondorioz, zahartze aktiboa hiru zutabe nagusitan kokatua dago: osasuna, segurtasuna eta parte-hartzea (OME, 2002).

Horren haritik, Ledeko Udalaren estrategia jarduera osasungarri, seguru eta parte-hartzaileen programa bat sortzea da, herriko adinekoei indar fisiko, mental eta emozional nahikoarekin aurre egin laguntzeko zahartzaroari eta modu proaktiboan, gainera.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Esperientzia urterokoa da. Udalak, dena den, benetan ulertzen duen esku-hartze soziala hezkuntza-prozesu bat dela, epe ertain eta luzera pertsonen bizitza autonomia izaten lagunduko dieten ohiturak eta jokabideak aldatzen lagunduko diena, gorputz eta ariman "hobeki egoteko" gai izanen dena; hau da, Ledeko adinekoen ongizate fisikoa, animikoa eta emozionala areagotuko duena.

Beraz, aldaketa soziala da, batez ere pertsonak sustatzera bideratzen dena, eta ez hainbeste arazo edo behar sozial bat arintzera edo prebenitzera.

Onuradun posibleak

INERen datuen arabera, 2019an, Ledek 292 biztanle ditu. Horietatik, % 36,64, zehazki, 60 urtetik gorakoak dira, 107 guztira, eta horietatik 52 emakumeak.



Parte-hartzaileen profila

Zahartze aktiboko programan 36 pertsonak parte hartzen dute, biztanleria onuradunaren ia % 34k.

Sexuaren arabera bereizitako kopurua

Ledeko Zahartze Aktiboko Programan parte hartzen duten pertsonen % 85 emakumeak dira.

1.4 OHARRAK

Nafarroako Foru Komunitateko tokian tokiko garapen jasangarriko jardunbide egokien José Ignacio Sanz Arbizu sariak esperientzia hau aitortzen badu, zenbatekoa bideratuko litzateke belaunaldien arteko eta komunitatea sustatzeko proiektu bat sustatzera, Ledeko adinekoak lotzera balioko lukeena, betiere ekimenean herriko beste talde edo adin tarte batzuek parte hartuta.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Proiektu baten eragina baloratzeko aukera ematen duen faktoreetako bat emaitzak dira. Ekimen honetan, emaitzak oso ontzat jotzen dira alde guztientzat:

- **Udalarentzat:** Izan ere, jardueren kostuak txikiak dira, parte-hartzaileen partaidetza maila altua da, eta asebetetze-maila altua ere bai. Horrek guztiak bultzatzen du Udala urtez urte proposamendi jarraipena ematera; horrela, toki-erakundeak proposamen eskaintza zabala bermatzen du adinekoentzat, astean 6 egunetan eta urtean 11 hilabetetan jarduerak eginez.
- **Jardueren arduradunarentzat:** Udalaren apustuak eta, batez ere, bizilagunen erantzunak eraginda, pixkanaka, Gizarte eta Kultur Etxeko arduradunaren lan-bal-dintzek eta lan-edukiak eboluzionatu egin dute; lehenik eta behin, haren kontratua lanaldi erdikoa izatetik lanaldi osokoa izatera igaro da; orain, lanaldi horren % 75 Zahartze Aktiboko Programako jarduerak prestatzen eta gauzatzen ematen du.
- **Parte-hartzaileen kasuan:** Ledeako 60 urtetik gorako pertsonen % 34k parte hartzen du programan. Horietako aunitzek urtez urte errepikatzen dute. Programa honetan izena emateko eta jarraitzeko arrazoiei buruz galdetuta, hauek azaldu dituzte:
 1. Egoera fisikoa hobetzen da, aktibo eta osasuntsu mantentzen dira;
 2. Emozionalki, artatuak, maitatuak sentitzen dira, adin bereko pertsonekin lotuta, badute norekin hitz egin, norekin partekatu;
 3. Herriko beste jarduera batzuetan parte hartzera animatzen dira; pozik daude; ongi pasatzen dute;

4. Badute arrazoirik etxetik ateratzeko, apaintzeko;
 5. Lanpetuta daude eta umore hobea dute...
- Azken batean, hobeki sentitzen dira eta gutxiago gaixotzen dira...

2.1.2 Elkartegintza

Ekimen honetako aliantza esanguratsuenetako bat parte-hartzaileen artean sortu da, Udalak planteatutako eta bideratutako jardueretatik haragoko loturak, konplizitateak eta konpromisoak ezartzen baitira.

Atal honetan, Udalak udalerriko erakundeekin dituen harremanak estutzea aipatu behar da, bereziki El Irati elkartearekin; izan ere, Zahartze Aktiborako Programan parte hartzen duten pertsona asko elkarte horretakoak dira, eta lankidetzaz-jarduera berriak sortu dira Udalaren eta Elkarteen artean.

Azkenik, nabarmentzekoa da kanpoko erakundeek programarekin bat egin izana eta programa horri babesa eman izana. Geoalcali Fundazioak, adibidez. Izan ere, gim-nasiako jarduerak egiteko materialak eta ekipak berritza finantzatu zuen 2019an.

2.1.3 Jasangarritasuna

Jasangarritasunaren 3 ardatzen ikuspegitik, esan daiteke esperientziak eragin zuzena duela dimentsio sozialean. Horren haritik, eta 2030eko Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuak kontuan hartuta, Ledeako Zahartze Aktiboko Programa bat etor liteke proposatutako 17 programetako batzuekin; bereziki, 3. helburuarekin, hots, "Bizitza osasungarria bermatzea eta adin guztientzako ongizatea sustatzea". Alderdi ekonomikoari dagokionez, aipatu eta nabarmendu behar da ekimena ezar-tzeak enplegu bat finkatzeko balio izan duela; hain zuzen, programa kudeatzeaz, adinekoei arreta emateaz eta jarduerak monitorizatzeaz arduratzen den pertsonaren enplegua.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledeon
LEDEAKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Udalen motibazio nagusietako bat komunitate indartsu, prestatu eta aktiboa izatera iristea da. Helburua da jarrera eta portaera proaktiboagoak bultzatuko dituzten jokatibideak eta ohiturak prestatu, irakatsi eta praktikatzeari ledeako adinekoen artean; tokiko lider bihurtu daitezela, eta ez daitezela mendeko pertsonak izan; adinekoek tokiko garapen-prozesuei esperientzia ematea... berentzat ez ezik, bizilagun guztientzat ere aktibatu daitezela.

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Zahartze aktiboko udal-programa oso eraginkorra izan da biztanleriari emandako arreta positiboaren ikuspegitik, genero-berdintasuna bermatuta: arestian azaldutako datuak ikusirik, deigarria da emakumezkoek hain ehuneko handia izatea jardueretan parte hartzen dutenen artean.

Era berean, nabarmendu nahi genuke udal-programa ekitatiboa eta inklusiboa dela, ez baititu pertsonak bereizten —eta ez baitu inor baztertzen— beren baldintza ekonomiko edo fisikoengatik edo merezimenduengatik. Jende guztiari harrera ona egiten zaio, denek parte har dezakete eta jarduerak doakoak dira edo oso prezio eskurgarria dute bertaratzen direnentzat.

Azkenik, adierazi behar da, jarduerak planifikatu, proposatu eta ezartzeko orduan, parte-hartzaile guztien mugak hartzen direla kontuan: adibidez, oreka-arazoak baldin badituzte, aulki bat ematen zaie gimnasiako jarduerak egiteko; erabiltzen den ahots-tonua entzumen-gabeziatarako egokitua dago; materiala oroimena lantzeko tailerrerako prestatzean, letra handiagoa erabiltzen da ikusmen-zailtasun handiena dutenentzat...

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Ezaugarri batek egiten du ezberdin eta berri esperientzia hau, hots, egokitzeko gaitasunak. Ez da programa estandarizatu, jarduerak parte-hartzaileekin batera prestatu, diseinatu eta pentsatzen dira. Horrek herriko adinekoen egoera pertsonaletara egokitzeko gaitasuna dakar.

Programaren arduradunak ezagutza handia du herriari buruz, parte hartzen duten pertsonen buruz eta bizilagun izateari buruz; eta horri esker, arreta beste une batzuetara eta beste leku batzuetara zabaltzeko daiteke, eskoletatik eta tailerretatik haratago; era berean, herriko adinekoak zaindu eta haien jarraipena egiteko sistema bat ere bada.

Horren haritik, lan-metodologia gisa, erraz esportatu eta transferitu daiteke; bereziki, Ledeako antzeko herri txikiak; betiere, langile kualifikatuak engaiatzen badira, herriarekin eta parte-hartzaileekin lotura estua dutenak. Horrela, hasierako baldintza bat bermatuko baita ekimenak arrakasta izan dezan: adinekoek konfiantza dute haiek artatzen dituztenengan.

2.2.4 Transferentziak

Programaren hiru ezaugarri erakusten dute proiektuak zer-nolako gaitasuna duen transferentziak sortzeko. Hauek dira: oso erreplikagarria, oso eskalagarria eta oso iraunkorra da.

Programaren oinarritzko egitura eta jarduerak proposamen orokorrak, behintzat, urte urte errepikatzen dira. Edizio bakoitzaren emaitza desberdina da, faktore askoren arabera baita, baina, batez ere, parte-hartzaileen erantzunen eta inplikazioaren arabera.

Urtero erreplikatu ahal izateko gakoetako bat eskalagarritasun handia da. Kontuan hartuta, definizioz, proiektu bat eskalatze orduan kontuan hartu beharreko faktoreetako batzuk honako hauek dira: onuradunari argi eta garbi entzutea, ongi jakitea zein diren haren beharrak eta ea betetzen ari den hutsune bat, nabarmena dena eta haienentzat benetako balioa dena, eta, beraz, ea ekimena zabaltzeko ote daitekeen behar berbera duen pertsona-talde handiago batengana. Tinko esaten dugu ekimenaren eskalagarritasuna oso altua dela.

Azkenik, garrantzitsua da kontuan hartzea udal-mailako gizarte-politiketan iraunkortasuna epe laburrean hartu behar dela kontuan. Kasu honetan, Ledeako Udalak konpromisoa hartzen du lan-ildo horri eusteko, eta zahartze Aktiboko Programari eutsiko dio, gutxienez, legegintzaldi hau amaitu arte.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledeako
LEDEAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

- Parte-hartzaileen artean sortutako konfiantza eta segurtasuna.
- Onuradunen beharrak entzuteko, ulertzeko eta artatzeko gaitasuna (hurbiltasuna, gertutasuna, egokitze gaitasuna...).
- Urteetan metatutako esperientzia.
- Udalaren borondatea eta interesa ekimena sustatzeko.

3.1.2 Aukerak

- Landa-lurralde batzuetako (Zangozerria, adibidez) despopulazioaz, zahartzeaz eta neurri gabeko zahartzeaz kezkatutik dauden eskualdeko erakunde eta entitateek nabarmendu dute pertsonak beren lurrian finkatu beharra; eta adinekoei era berezian eta hurbiltasunez arreta eman beharra.
- Estatuko eta nazioarteko erakunde eta entitateek (MS, UN, Agenda 2030...) bermaturik eta sustaturik daude Ledean Zahartze Aktiboa lortzeko erabilitako metodologiak.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.1 Ahulguneak

- Parte-hartzaileen beraien baldintzak eta mugak; ezinbestean, inplikatzetik izanen ez duten unea iritsiko baitzaie.
- Etorrizuneko udalbatzetan interesak alda daitezke.

3.2.2 Mehatxuak

- COVID-19aren murrizketak eta mugak ezarri dizkie horrelako jardueri; horren ondorioz, batzuetan ez da bideragarria jardura egitea (kupoak, edukiera, etab.) edota adinekoek atzera egin dezakete (adinekoak, COVID-19aren aurrean arrisku handiena dutenak. Beraz, atzera egiten dute, eta beldurra dute etxetik ateratzeko edota beste pertsona batzuekin elkartzeko).

4. KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

BAZKIDEA	EKARPENA	GUZTIRA
Ledeako Udala	28.913,70 euro	28.913,70
El Irati elkarte	Zabalkundea eta animazioa	0,00
Bizilagunak	Laguntza eta partaidetza	0,00
GUZTIRA		28.913,70

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Zahartze aktiboa Ledean

LEDEAKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK

JARDUNBIDE EGOKIA

Berriozar, zaintza ardatz

BERRIOZARKO UDALA





BILAKETA



AURKIBIDEA




HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA



JARDUNBIDEAREN IZENBURUA:

Berriozar, zaintza ardatz

JARDUERAREN KOKALEKUA:

Berriozar

JARDUERAK UKITUTAKO LURRALDEA:

Berriozar

JARDUNBIDEA AURKEZTEN DUEN INSTITUZIOA / ERAKUNDEA:

Berriozarko Udala

JARDUKETAREN DATA NAGUSIAK:

Hasiera: **2018/09/01**

Proiektuak denboran iraute du. Denboran bizia.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Berriozar, zaintza ardatz

BERRIOZARKO UDALA

HARREMANA:

Izaskun Pitillas Lopez

Euskal Herria plaza
31013 Nafarroa

Tel: 948 30 16 31
igualdad@berriozar.es





BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

1. DESKRIBAPENA



1.1 JARDUKETA GARATU AURREKO EGOERA

Berriozar zaintza ardatz 2016an onetsitako III. Berdintasun Planetik sortu da. Plan horretan ezarritako esku-hartzeetako bat hauxe da: ERANTZUNKIDETASUNA, ZAINZTA ETA KONTZILIAZIOA.

Berriozarrek zaintzaile asko izatea du ezaugarri. Betidanik, zaintza lanak ikusezin bihurtu dira eta, horrekin batera, baita zaintzaileak ere, gehienak emakumeak. Femenismoak lan etengabea egiten du zaintza lanen balioa aitortzeko eta zaintzaileei ikusgaitasuna emateko. Zaintza lana lan etengabea da. Lan hori ez da sekulan bukatzen. Horrek dakarren guztiarekin.

1.2 JARDUKETA

Berriozarko Udaleko Berdintasun Alorrak abian jarritako ekimenaren helburu da gogoeta lan gune bat sortzea zainketen inguruan. Horretarako, udalerriko hainbat entitatek ekimen honetan parte hartuko dute zainketen gaia hainbat esparrutan lantzeko. Proiektuak denboran iraunen du, Berriozarko biztanleria zainketek duten garrantziaren inguruan sentsibilizatzeko. Adinekoak zaintzea, haurrak zaintzea, mendekoak zaintzea, pertsonen arteko zaintzak, zaintzak biziara guztietan, autozaintzak, zaintza partekatua, zaintza osasungarria, berdintasunezko zaintza, zaintza baloratua. Esparru guztiak hartzen ditu bere baitan.

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Berriozar, zaintza ardatz
BERRIOZARKO UDALA



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Berriozar, zaintza ardatz
BERRIOZARKO UDALA

1.2.1 Prozesua

Proiektu pilotu baten bidez hasi zen:

Berriozarko komunitatean zuzeneko arretan diharduten profesionalak gogoetarako gune bat sortu zuten, hausnarketa tekniko, fisikoa eta emozionala egiteko. Horretarako, entitateetako profesionalen zaintzari eskainitako gune bat sortuko dugu (Udala, Gizarte Zerbitzuak, Osasuna, Enpresa Publikoak, Hezkuntza, gizarte erakundeak, etab.), autozaintza lantzeko, herritarrendako arreta zerbitzu hobea emate aldera.

1.2.2 Lortu beharreko helburuak

- Behar diren baldintza sortzea, udalerrian gogoeta egiteko, eta zaintzaren eta kontziliazio erantzukidaren etika lantzeko guneak sustatu ahal izateko.
- Udalerrian diseinatutako lan-plan berriazkoa garatzea, udalerriko gizarte- eta ekonomia-eragileekin batera, zaintzaren etika eta kontziliazio erantzukidea bultzatzeko.
- Eta, gainera, hainbat esparruk zaintzak genero-ikuspegiarekin bat lantze aldera.

1.2.3 Garatutako estrategiak

Berriozarko hainbat erakundek, elkartek eta kolektibok gonbidapena jaso dute gune ireki horretan lan egiteko. Beren esparruan zaintzak lantzen dituzten erakundeak, une jakinetan batuko direnak ekintza zehatzak lantzeko. Koordinazioa.

Parte hartzen duten erakundeek urtero landu beharreko gaiak proposatu ahal izanzen dituzte, eta Berdintasun Alorrak abian jarriko ditu.

1.3 JARDUKETA GARATU ONDOKO EGOERA

Emaiza ekintza berberak baloratzean ikusten da, inplikaturik dauden alde guztien partetik (parte-hartzaileak eta antolatzaileak), eta kasu guztietan oso positiboa izan zen.



Erakunde laguntzaileen ordezkariak. Berriozar Aldizkaria, 2018ko abendua.

1.4 OHARRAK

Joan den urtearen bukaeran, Berriozarko Udaleko Berdintasun Alorrak "Berriozar zaintza ardatz" proiektua jarri zuen abian, zaintza ikusarazteko eta baloratzeke, eta jendea sentsibilizatzeko eta guztiok ulertzeko zaintzak ezinbestekoak direla gure bizitzek funtzionatzeko eta gizarte gisa funtzionatu dezagun.

Herriko hainbat erakundek bat egin zuten proiektuarekin, proiektuari heldu eta urte osoan zehar egin diren ekintzak proposatu zituzten, zainketen inguruan hausnartzeko eta lan egiteko gune bat sortzeko eta gaia hainbat esparrutan lantzeko.

Proiektuak denboran iraunen du, proiektu bizi, abian dagoena, eta zaintzei lotutako edonolako ekintzak egin daitezke. Ekintza horien bidez, Berriozarko jendea sentsibilizatu nahi du zaintzeki duten garrantziaz. Adinekoak zaintzea, haurrak zaintzea, mendekoak zaintzea, pertsonen arteko zaintzak, zaintzak biziari guztietan, autozaintzak, herriaren zaintza, planetarena, zaintzen gaituztenen zaintza, espazio publikoena, zaintza partekatua, zaintza osasungarria, zaintza jasangarria, berdintasunezko zaintza.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Berriozar, zaintza ardatz BERRIOZARKO UDALA

2019 osoan zehar, hainbat dinamika eta ekintza landu dira, proiektuan sarturik dauden erakundeek proposatuak. Aurten, honakoak egin ditugu:

Autozaintzak zahartzaroan (Adienkoen Eskola)

Iruñalde Adinekoen Udal Zentroak bi ikastaro egin ditu 60 urtetik gorakoentzat, autozaintza lantzeko.

2019ko martxoan eta apirilean egindako “zahartze aktiboa” ikastaroan, besteak beste, honako gai hauek jorratu ziren: zahartze-prozesua, gure gorputzaren, adimenaren eta emozioen zaintza, harremanak eta ingurunea. 16 lagun bertaratu ziren. Bigarren ikastaroa “afektibitateari eta sexualitateari” buruzkoa izan zen, eta apirilean egin zen. Gai hauek jorratu ziren, besteak beste: gizakien sexu-egitatea, sexualitatearen dimentsioak, aniztasuna eta erredukzionismo sozialak, sexualitatearen jarrerak eta ezaugarriak aro horretan, eta abar. 12 lagun bertaratu ziren.

Patio Laguna

Mendialdea Ilko hezkidetzak eta bizikidetzak batzordeak proposamen bat egin zuen zaintzen inguruan, “Patio Laguna” izenekoa, ikastetxeko bizikidetzak hobetzeko asmoz. Gainera, ikastetxeak “Berriozar zaintza ardatz” ekimenarekin bat egitea erabaki zuen eta, horretarako, proposamen hau landu zuen.

- Zertan datza “Patio laguna” proposamena?

“Patio Laguna” Mendialdea Ilko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak dira. Hiru pertsonako taldetan ateratzen dira patiora, eta txaleko hori bat eta “patio laguna” gisa identifikatzen dituen txartel pertsonal bat eramaten dituzte soinean. Txartel horretan idatzia dago besteekiko solidario izateak pertsona hobeak bihurtzen gaituela.

Jolastokian dauden bitartean, laguntza eskainiko diote behar duenari, bakarrik dauden haurrengana hurbilduko dira... Baina gatazkak sortzen badira, pertsona horiek ez dute arazoa konponduko. Halakoetan, jolastokia zaintzen ari diren irakasleetako batengana joko dute, gatazkaren berri emateko.

Pasabidean, proposamen honi eskainitako gune bat dago; han ere badaude parte hartzen duten pertsonen argazkiak eta koaderno bat, bizi izandako esperientzia idaz-



Berriozar Aldizkaria, 2019ko azaroa.

teko. Zer den gehien eta gutxien gustatu zaiena, nola sentitu diren, gertatu diren gauza bitxiak.

- Zer helburu lantzen dira proposamenarekin?

Ikastetxeko bizikidetzak hobetzea, zainketen garrantziaz jabetzea, berdintasunerako eredu onak izatea eta jasotzea, norberaren autonomia lantzea eta arduraz jokatzeko bizitzako egoeren aurrean.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI
BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Berriozar, zaintza ardatz BERRIOZARKO UDALA

Garbiketa agerian

Jarduera Usalanda Garbiketa Enpresa Publikoak proposatu du, bera arduratzen baita Mendialdea I eta Mendialdea II ikastetxeak garbitzeaz. Usalanda, Berriozarko Udaleko Berdintasun Alorrarekin eta ikastetxeekin batera, zaintzak, errespetua, bizikidetza, enpatia eta gisako balioak landu ditu.

Ikasleek eta irakasleek ikastetxeak garbitzeaz arduratzen diren emakumeak ezagutzea izan da jardueraren xedea. Usalanda enpresako arduraduna eta garbitzaileak ikasgeletan ibili dira irailean eta urrian, beren burua ezagutera emateko. Aurkezpenarekin batera, informazio-saio labur bat egin da ikasleekin eta irakasleekin, garbitzaileen horien eguneroko lanari buruz: ikastetxearen garbiketa, oro har, eta ikasgelena, jolastokiarena eta bainugelena, bereziki. Eta haiek, garbitzaileek, egunero aurkitzen dituzten kontuak. Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako talde guztietan eta Lehen Hezkuntzako maila guztietan egin dira aurkezpenak. Haur Hezkuntzako 1. mailako taldeekin bilera bat egin da irakasleekin.

Honatx jardueraren helburuak:

1. Espazioaren eta ikasgelen zainketa gaineko kontzientziazioa lantzea, eta horrekin batera, leku horien egunero garbitzen dituzten pertsonen gainekoa, egunero garbitzen duten pertsonak zaintzeaz kontzientziazioa, elkar zaintzeko giroa sortuta.
2. Zaintzak ematea eta jasotzea, eta errespetuan oinarritutako espazio batean bizitzea: "Egunero zaintzen nauzu eta ikastetxe garbi bat eskaintzen didazu; nik zure lana errespetatuz zaintzen zaitut, ikastetxearen zaintzan inplikaturik".
3. Garbiketa-lana duintzea, garbitzaileei ikusgaitasuna ematea eta haien, ikasleen eta irakasleen arteko laguntzan oinarritutako harremanak sortzea.
4. Zaintzea zer den, nork egiten duen, zer dakarren beren bizitzetan, hori guztia ikusaraztea.

Jarduera hau oso positibotzat jo da, batez ere irakasleen eta ikasleen jarrera eta inplikazioa. Ikasleek aktiboki parte hartu dute, garbitzaileei galderak eta iruzkinak eginda, harreman pertsonalak sortuta. Garbiketa-taldeko pertsonak oso baloratuak



Berriozar Aldizkaria, 2018ko otsaila.



Berriozar Aldizkaria, 2019ko azaroa.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

DESKRIBAPENA

JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

EGOERAREN AZTERKETA

KOSTUA ETA FINANTZABIDEA

Berriozar, zaintza ardatz BERRIOZARKO UDALA

sentitu dira, harrera ona izan dute, eta horrek ongizatea sortu du emakumeengan eta zainduak izatearen sentsazioa.

Gainera, aurkezpenetatik 15 egunera, emaitzak ikasgeletan eta jolastokian jartzen dira agerian. Ikasleek eta irakasleek barne-arau batzuk ezarri dituzte, eta dagoeneko martxan jartzen ari dira, eta horrek garbiketa-taldeari lana errazten dio, eta, batez ere, ikastetxea txukunago, garbiago eta atseginago mantentzen du.

Azken buruan, asmoa zen hala irakasleek nola ikasleek aurpegia jartzea ikastetxea eta lantokia egunero baldintza onetan egoteaz arduratzen direnei, eta ohartzea, haiek ikastetxean aritu ondoren, beste pertsona batzuk joaten direla toki berbera biltzeko, garbitzeko, txukuntzeko eta moldatzeko. Erran nahi baita, zaintzaren inguruko kontzientzia sortzea zaintzen gaituzten pertsonenganako eta ikastetxearekiko ere bai eta, horrekin batera, elkar zaintzeko harremanak sortzea.

Berriozarko Udalak eta Usalanda enpresak uste dute horrelako jarduerak hezi egiten dutela eta kontzientzia sortzen dutela zaindu beharraz, geure burua zaindu beharraz eta ingurunea zaindu beharraz, eta horrek gizarte berdinzaleagoa, jasangarriagoa, zuzenagoa eta, batez ere, gizatiarragoa sustatzen duela.

Hurrengo proposamenak...

• Plastikoak itota... Meta: zero hondakin.

INTXAURDI Elkartek ingurumenarekiko zaintzaz kontzientziatzeko jarduera bat proposatu du, gizarteak eta pertsona bakoitzak egunero kutsatzen dugunaz jabetzeko.

Lur planetan bizi garen pertsonak garen aldetik, arduratsuak izan behar dugu eta ingurumena zaintzeko konpromisoa hartu behar dugu: ahalik eta gutxien kutsatzea, zaborrik ez sortzea, arduraz kontsumitzea, gehiago partekatzea, hurbileko eta plastikorik gabeko produktuak erostea eta gobernuari neurri sendoak har ditzatela eskatzea...

Plastikoaren kontsumoak eragindako arazoak gehiago jabetzen lagunduko digun jarduera bat eginen dugu, lehenik eta behin herria ardatz hartuta, baina Berriozar osora zabaltzeko asmoz. Talde jarduera artistikoa eta salaketa sozialekoa.



Berriozar Aldizkaria, 2019ko azaroa.

• Pertsonak zaintzen dituzten profesionalak zaintzea.

Berriozarko komunitatean zuzeneko arretan diharduten profesionalak gogoetarako gune bat sortu zuten, hausnarketa teknikoa, fisikoa eta emozionala egiteko.

• Jubiloteka erabiltzen dutenen senide eta laguntzaileendako zaintza tailerra.

Argibideak Jubilotekan.



BILAKETA



AURKIBIDEA



HASIERA



INPRIMAKETA

SARIAK / JARDUNBIDE EGOKIA

2. JARDUNBIDE EGOKI BATEN IRIZPIDEAK

2.1 OINARRIZKOAK

2.1.1 Eragina

Generoan eta adinekoen artean.

2.1.2 Elkartegintza

Berriozarko Udala, Osasun Etxea, Iruñalde Adinekoen Udal Zentroa, Urtxintxa Haur Eskola, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Liburutegia, Auzokideari Laguntzeko Elkartea, Berriozarko Talde Feminista, Gaztegunea, Txolin Ludoteka, Berriozar BHI, Mendialdea I eta Mendialdea II, Lantxotegi, Kiroldedia, Musika Eskola, Irigoyen Comedor Saludable, Ausensi Guraso Elkartea, Mendialdea Guraso Elkartea, IESO Guraso Elkartea, BH Guraso Elkartea, La Majari Ijito Elkartea, Secretariado Gitano, Emausko Trapuketariak eta Ohitura Osasungarriak programa.

2.1.3 Jasangarritasuna

Jasangarritasuna zaintzetan berdintasunez diharduen gizartearentzat, zaintzailea ikusarazita. Zaintzak aintzat hartuta, gure bizitzek funtzionatu dezaten. ZAINTEK BIZITZARI EUSTEN DIOTE.

2.2 GEHIGARRIAK

2.2.1 Lidergoa eta komunitatearen indartzea

Ekimena Berdintasun Arloak abiarazi badu ere, asmoa da gonbidatuak izan diren erakundeek proiektuan inplikatzeko eta huraxe bere egitea, beren erakundeetan zaintzak lantzea, eta batzuetan, Berdintasun Arloarekin batera, zainketen inguruko ekintzak antolatzea, bakoitza bere esparruan.

Era guztietako zainketak landu nahi ditugu: adingabeena, pertsonen arteko harremanen zaintzak; halaber, autozaintzak, ingurumena zaintzea, herria zaintzea...

2.2.2 Genero berdintasuna eta gizarteratzea

Zaintzak aurreko ataletan deskribatutako hainbat eremutan egiten da lan, eta guztietan ere genero-ikuspegiarekin bat.

2.2.3 Berrikuntza tokian tokiko testuinguruan eta transferibilitatea

Asmoa da proiektua irekia egotea denboran zehar eta erakunde guztiek lankidetzan jardutea.

2.2.4 Transferentziak

Erakunde guztiei, elkarren arteko proposamenak diren heinean.

3. EGOERAREN ANALISIAK

3.1 PUNTU SENDOAK

3.1.1 Indarguneak

Berriozar zaintza ardatz sentsibilizazio, gogoeta eta lan arloko proiektu bat da zaintzen inguruan, herriko alor, erakunde eta elkarte askoren artean. Berriozarrekin urteak daromatza era deszentralizatuan eta koordinaziopean lanean. Kudeaketa komunitario oso ona izateaz gainera.

3.1.2 Aukerak

Udalerriak aniztasuna du belaunaldietan, kulturen eta elkarrekin.

3.2 PUNTU AHULAK

3.2.2 Mehatxuak

Erreferentzia gune bat ezarri beharra; Berdintasun Alorra izan daiteke, koordinazioan arazorik ez izateko.

